


Euskal liburugintza 2003

JOAN MARI TORREALDAI



ARGITALETXEAK

TITULUAK ETA TIRADAK

NOBEDADEAK / BERRARGITALPENAK / ITZULPENAK

HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA LIBURUAK

HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUAK

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

LITERATURA

Gaiak

Euskara euskal nazioaren funtsa, periferia erdaldunean ere?

JULEN ZABALO / TXOLI MATEOS

Etorkizuneko telebistaren itzalak eta argiak

CARMEN PEÑAFIEL / NEREIDA LOPEZ / AINHOA FDEZ. DE ARROYABE

JAKiN

146/147

urtarrila
apirila
2005



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Zenbaki honetan

► 7

Liburuak

Euskal liburugintza 2003 ► 11
JOAN MARI TORREALDAI

Gaiak

Euskara euskal nazioaren funtsa, periferia erdaldunean ere? ► 165
JULEN ZABALO / TXOLI MATEOS

Etorkizuneko telebistaren itzalak eta argiak ► 183
CARMEN PEÑAFIEL / NEREIDA LOPEZ /
AINHOA FERNANDEZ DE ARROYABE

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

jakin@jakingunea.com


2005eko PREZIOAK

ZENBAKI BIKOITZ HAU	16,25 €
---------------------	---------

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,10 €
KANPOAN		
Harpidetza	45 €	—
Ale arrunta	7,50 €	10,50 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

Summary



Basque Bibliography 2003

Joan Mari Torrealdai, the editor of *Jakin*, publishes the catalogue of all the books published in Basque during 2003, together with an appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language. In 2003, 1,945 books were published in the Basque language, 312 more than in 2002. Most of these publications are school books (41%), followed by children's and young people's literature (20,5%), books on human and social sciences (18%) and literature for adults (12%). Torrealdai has been cataloguing Basque bibliographical publication since 1976. ► JOAN MARI TORREALDAI




The Basque language as a foundation of the Basque nation, also on the Spanish-speaking fringes?

The professors Julen Zabalo and Txoli Mateos reflect on one of the contradictions of Basque nationalism which, on a theoretical plane, does not hesitate to consider the Basque language as a basic foundation of the nation, yet in practice also grants the status of Basques to those citizens of the Basque Country who do not know the Basque language. In this article, the authors take into account the opinion regarding this issue of individuals of nationalist ideology who reside on the Spanish-speaking fringes of the Basque Country. ► JULEN ZABALO / TXOLI MATEOS

The light and shade of the television of the future

The professors Carmen Peñafiel, Nereida Lopez and Ainhoa Fernandez de Arroyabe analyse the features and functioning of the three television models which currently exist in Spain: mass general-interest television, thematic pay-television and an alternative model which is being hatched on Catalan autonomous television. The analysis is aimed at defining the keys to the television of the future, just when digital television has burst forcefully onto the scene. ■
CARMEN PEÑAFIEL / NEREIDA LOPEZ / AINHOA FERNANDEZ DE ARROYABE



e skuetan duzun hau bigarren aldiko 146/147. zenbaki bikoitza da eta 2005. urteko lehenengoa eta bigarrena.

Zenbaki honetako edukien artean *Liburuak* sailari dagokio zatirik handiena. Izan ere, Joan Mari Torrealdaik *Jakin*-eko zuzendariak, aurreko urteetan egindakoaren ildo beretik, 2003. urtean euskaraz argitaratutako liburuen katalogoa aurkezten digu.

Torrealdaik urtero egiten duen lana ez da mugatzen, dena dela, liburuen zerrenda hutsa eskaintzera. Ohi duenez, oraingo honetan ere euskal liburuen urteko ekoizpenaren azterketa eta balorazioa osatu du. 2003ko euskal liburugintzaren azterketa honetan ere, beraz, hainbat datu eta zifrarekin batera, analisia eta balorazioa datoz. Honako alderdi hauek landu ditu egileak: lehenik, liburu produkzioaren zifrak zehazterakoan informazio iturrien arabera dauden desberdintasunak; bigarrenik, titulu produkzioaren gorakadaren eta tiradaren beherakadaren arteko erlazioa; hirugarrenik, argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen aniztasuna eta argitaletxe emankorrenen aipamena; laugarrenik, argitalpenaren zifren inguruan, argitaratutako tituluaren zifrak, nobedadeak eta berrargitalpenak, jatorrizko eta itzulitako liburuak; eta, azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa. Kopuru nagusiak aipatzearen, 2003. urtean 1.945 liburu argitaratu ziren, 2002an baino 312 gehiago. Urtero legez, liburu gehienak hezkuntza eta irakaskuntza arlokoak izan ziren: 795 (pro-


dukzio osoaren %41); ondoren, haur eta gazte literaturako liburuak (400, %20,5), giza eta gizarte zientziei buruzkoak (353, %18) eta helduen literaturakoak (228, %12). Azterketaren ondoren titulu guztion zerrenda osoa dator.

Gaiak saila dator ondoren, eta bertan bi artikulua.

Lehenengo artikuluan, Julen Zabalo eta Txoli Mateosek euskarak ideologia nazionalistaren gorputzean betetzen duen lekuari buruzko hausnarketa egiten dute. Teoriaren arloan, euskara da euskal nazioaren funtsa, baina praktikan diskurtso horrek ez dauka beti jarraipenik. Artikulu honen egileak Euskal Herriko periferia erdaldunera joan dira —Karrantza eta Enkarterriak Bizkaian, Mendebaldeko Haranak eta Errioxa Araban, eta Nafarroako Erribera—, bertako hainbat abertzaleren iritzia jasotzera gai honen inguruan.


Bigarren artikuluan, Carmen Peñafiel, Nereida Lopez eta Ainhoa Fernandez de Arroyabek Estatu espainiarrean gaur egun indarrean dauden hiru telebista ereduak aztertzen dituzte: orotariko telebista masiboa, ordainpeko eskaintza tematikoa eta Kataluniako telebista autonomikoan gorpuzten ari den eredu alternatiboa. Telebista digitala indarrean jartzen ari den une garrantzitsu honetan, etorkizuneko telebistaren gako nagusiak argitzen saiatzen dira egileak.¶

Ciburuak



JOAN MARI TORREALDAI
Euskal liburugintza 2003

11



Euskal liburugintza 2003



J O A N M A R I T O R R E A L D A I



hogeita zazpigarren urtez jarraian heldu diot urteko liburu ekoizpena aurkeztu eta aztertzeari. Ez al da azkena izango! Edozer gauza da posible auzipetuta egonik. Baldin eta azkena bada, ez da nire borondatez izango. Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzaren erruz ere ez, urtea joan eta urtea etorri laguntza ekonomikoa eskaintzen baitit, bihotzetik eskertzen diodana, zertan esanik ez da.

Zifren saltsa

Euskal liburuaren inguruan gai asko dago aztertzeko: ekoizpenaren baldintzak, liburuaren kalitatea, salmenta eta irakurketa, eta zertan esanik ez: liburu politika.

Baina bada zalantza edo eztabaida beharko ez lukeen gai bat: titulu kopurua. Hau da: zenbat titulu ekoizten da urtean? Zehaztapen honen garrantzia begi bistakoa da, edozein azterketaren aurrekoa baita. Edozein azterketatan aurretiaz unibertsoa finkatu behar da, azterketaren objektua.

Euskal liburuaren kasuan jakina da zifra dantza dezentea dagoela; itxaron, bestela, apirileko liburu eguna datorenean agertuko diren kopuruei. Nahasketa bat badago,

► **Joan Mari Torrealdai** Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziatua da.

hasteko, «euskal» liburu gisa zer ulertzen den: Euskal Herrian (edo Euskal Erkidegoan) agertua soilki, hizkuntza aparte? Euskal Erkidegoan argitaratu dena, eta euskaraz? Euskaraz munduan zehar argitara eman dena? Segun-eta zein irizpide aukeratzen den, emaitzak desberdinak dira.

Unibertsoa zehazteko irizpideetan badago arazorik. Eta, baita ere, informazioa biltzeko metodologian. Arrunki, informatzailea argialetxea da. Zenbaitetan kopuru bat ematen du argialetxeak; eta ematen ez duen argialetxearen produkzioa? Edo ISBNren orria betetzen du argialetxeak eta agentziara bidali. Baina zer gertatzen da ISBNk orria bete bai baina bidaltzen ez badu? Ez pentsa, gero, galdera hauek hutsalak direnik edo erretorikoak, airea eragiteko eginak.

Euskal liburuaz informazio estatistikoa sistematikoki h i ruzpalauek eman ohi dugu: Espainiako Kultur Ministerioak ISBNko agentziaz baliatuta, Precisa azkerketa etxeak eta nik neuk. Precisak bi tokitan aztertzen du euskarazko liburuak: Espainiako argialetxeen elkarten federaziorako eta Euskal Erkidegoko Editoreen Elkarterako; eta harritzekoa bada ere, urteko zifrak desberdinak dira batean eta bestean. Harritzekoa ez da bakoitzak bereak ematea eta ez bat etortzea, baina bai batzuetan ageri den aldea, esaterako 2003ko liburu ekoizpenean: ia laurehun edo bostehuneko aldea dago niretik besteenera.

Urtez urte aztertzaille bakoitzak ematen duena agertuko dut segidan, nirea tarteko. Nire datuen zehaztapena eta zuriketa geroago egingo dut zehatz eta mehatz, iturriak eta irizpideak azaltzearekin batera.

Iturria / Urtea	1999	2000	2001	2002	2003
Precisa/Espainia	1.360	1.589	1.621	1.588	1.576
ISBN espainiar agentzia	1.250	1.428	1.528	1.221	1.532
Espainiar Liburu Zuzendaritza		1.266	1.358		
Joan Mari Torrealdai	1.589	1.519	1.488	1.665	1.945
Precisa/Gremio	1.526	1.435	1.326	1.342	1.487

Arestian hitz egin dut unibertsoa zehazterakoan eta metodologia aukeratzekoan agertzen dela zifra hauen

desberdintasunaren gakoa, edo gakoetako bat. Iradoki dut zeintzuk liratekeen akatsak, edo gabeziak. Azpimarratu nahi dut nire kasuan titulu bakoitzak fitxa bibliografikoaren bermea duela.

Besteez gaizki esaka aritu baino nahiago dut nire bilketaz hitz egin, eta behin betiko zehaztuta utzi zeintzuk diren nire bideak eta helburuak.

Kontuak argitze aldera laukia emango dut aurrena, eta gero esplikatu.

Urtea / Mota	Aldizkaria	Fitxategia	Sarekoa	ISBNdunak
1992	1.000	1.052	1.050	956
1993	1.173	1.180	1.178	1.131
1994	1.106	1.139	1.136	1.101
1995	1.260	1.308	1.274	1.223
1996	1.097	1.244	1.244	1.132
1997	1.229	1.381	1.254	1.184
1998	1.458	1.542	1.542	1.445
1999	1.589	1.792	1.613	1.504
2000	1.519	2.067	1.575	1.518
2001	1.488	2.059	1.529	1.485
2002	1.589	2.042	1.670	1.633
2003	2.206	2.345	1.945	1.945

Noan orain banan-banan esplikatzera:

1. Lehenengo eta behin nire fitxategia artxibo bizia da, hau da, urte osoan zehar fitxategia irekita dago eta datu berri bat jaso ahala barruan integratzen dut. Urteko kopuruak horregatik dira aldakorak. 2002ko produkzioan, esate baterako, 1.586ko kopurua eman nuen aldizkarian, eta gaur egun urte horri dagokion zifra 1.633koa dela diot. Zer esan nahi duen horrek? Urtean zehar 47 titulu gehiago eskuratu ditudala.

2. Informazio iturri ugariz baliatzen naiz zerrenda osatzeko: argitaletxeak eta erakundeak (ia denak), katalogoak, Koldo Mitxelena Biblioteka, Donostiako Udal Liburutegia, *Jakin*-eko bulegora iristen direnak, Zabaltzen, eta ISBNko agentzia espainiarra. Eta hala ere, bildu gabe uzten dut liburu bat baino gehiago.

3. Gaineko laukian urteko lau zifra-ilara agertzen dira. Aurten eta hemendik aurrera baliozkotzat emango du-

dana, kontabilizatzeko, laugarrena da, ISBN daukaten liburuena. Baina lerro bakoitzak badu bere esplikazioa:

a) *Aldizkaria*. Urtean-urtean *Jakin* aldizkarian eman dudan kopurua da, esan bezala, aldakorra informazio berria urtean zehar eskuratu ahala. Eta horixe da gertatu dena. Bestalde, normalean behintzat, gero kontadurian zenbatuko ditudan tituluak baino gehiago ematen ditut aldizkarian, horien berri jendeak izan dezan.

b) *Fitxategia*. Ilara honetan agertzen da titulu gehien. Izan ere, hemen daude pilatuta dauzkadan fitxa bibliografiko guztiak. Hauetako batzuk, baina, ez ditut argitaratzen daturen bat ziurtatu gabe daukadalako: izan liteke hizkuntza (euskaraz dagoen, elebiduna den), izan liteke urtea, izan liteke autorea... Horietako askok ez dute ISBNrik, hori da bestea.

c) *Sarekoa*. Titulu hauek guztiak *Jakin*-en edizio elektronikoa agertzen dira. Hurrengo ilarakoak baino gehiago dira, arrazoi bakar bategatik, alegia, hemen daudela ISBNdunak noski, baina baita ere nortasun-agiri hori gabe merkatuan bizirik dauden tituluak. Kontuan eduki behar da euskal argitalgintzan badela edizio agente asko liburu kontutan «profesionala» ez dena: holakoak ISBN emateak kezkatzen ditu gutxien. Baina bete-betean dira liburuak. Eta mezezi du jendeak ezagutu ditzan. Horregatik daude interneten, jendearen eskura hain zuzen ere (www.jakingunea.com).

d) *ISBNdunak*. Hemendik aurrera titulu-kopurua erabakitzeko ISBN daukatenak bakarrik hartuko ditut aintzat. Orain arte ez bezala. Orain arteko kopurutan ISBNdunenez gainera liburuaren merkatuan zirkulazioa zuten tituluak ere sartu izan ditut. Hauek orain kanpo geldituko dira. Berri batzuk sartu egingo ditut, ordea: euskarri informatikoan argitara emanak. Bideo, DVD, CD eta bestelako produktuetan ISBN daukatenak bakarrik aukeratu ditut, gehienak fitxategian gordeta gelditzen direlarik. Aurreantzean irizpide nagusi hauek mantentzen saiatuko naiz.


Badakit jakin irizpide estuegia dela ISBNdunak bakarrik liburu kontsideratzea. Ez da nire gustukoa, baina gustatu ala ez hala jokatu dut aurreantzean zifra homologarriak maneiatzearren.

Tituluak eta tiradak

Hainbat urtetan aritu izan naiz tituluen gorakadak eta aldi bereko tiraden beherakadak izan dezaketen esanahiaz. Behin baino gehiagotan esan dut tiraden jaitsierak titulu aldetik liburugintza modernoak duen gorako joeraren abantaila kulturalki neutralizatu egiten duela. Titulu ugari merkatura bota bai, baina gero eta gutxiagoen artean banatzeko? Besterik litzateke merkatu espezifikoeekin lan egingo balitz, eta tiradak merkatu berezi eta ugari horiei zuzenduak balira. Baina ez dut uste hori denik egoera.

Dena den, oraingoa ez nator holako deus planteatzera. Grafiko bikoitz bat eman nahi dut, Precisaren datuak erabiliz. Esana dut bestetan ere datu horiek optimis-tegiak iruditzen zaizkidala, baina kasu honetan ez da hori ikusarazi nahi dudana. Tendentzia baizik. Batetik tituluen gorakako joera eta bestetik tiradaren jaitsiera etengabea. Edo zehatzago esan, bien arteko gurutzaketa. Irudian ederki ikusten dira biak, eta nola gurutzatzen diren. Milioiko galdera litzateke ea gaur atzo baino hobea, aberat-sagoa eta kalitate hobekoa ote den eskaintza.

Tituluak eta tiradak



Iturria: Precisa Research.

	1999	2000	2001	2002	2003
Tituluak	0,0	16,8	2,0	-2,0	-0,8
Tirada	0,0	-7,5	0,6	-5,2	-13,2

Argitaratzaileen jarduera

Argitaratzaile txiki asko

Azterketa honen ondoko fitxa bibliografikoak norbaitek banan-banan begiratzen baditu izen desberdin pila bat ikusiko du. Denetara, 258 argitaratzaile desberdin. Eta horietako askok eta askok 2003an titulu bat bakarra eman dute argitara. Erdia eta gehiago dira holakoak, %55, liburu bakar bat plazaratu dutenak, zifra absolutuetan 143 agente editorial-edo, laukian ikusten denez. Beste multzo on batek, 80 argitaratzailek, bitik hamar titulu bitartean atera ditu.

Titulu-kopurua igo ahala argitaratzaileen kopurua jaitsiz doa: hamar eta hogeititulu bitartean beste 18 agenteeditore daude, eta zerbait esan beharko da hortik aurrerakoa ikusita. Hortik aurrera nabarmen soiltzen baita editoreen basoa. Hara: hogeitita berrogeitita hamar bitartean, hau da, editorial ertain bat gure kasuan, zortzi bakarrik daude (%3 besterik ez). Hurrengo mailan are gutxiago daude, normala denez, baina ez proportzio berean: zorionez sei argitaletxe badira berrogeitita hamar-ehun bitartean publikatu dituztenak. Eta mailarik gorenean, ehundik gorra, hiru daude. Egia esan, goreneko maila honetan bada datu positibo bat eta da hiru rek gaintitu dutela 150eko kopurua, azken bi urteotan berauetako batek bakarrik egin ohi zuena.

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	143
2-4	50
5-9	30
10-19	18
20-29	4
30-39	4
40-49	0
50-59	0
60-69	1
70-79	1
80-89	1
90-99	3
100-149	0

2003ko titulu kopuruan ia bi mila titulutan ibilita atera genezakeen ondorioa «indarra rena» izan badaiteke ere, taula honek kontrakoa erakusten du industria editorialaren aldetik planteatuta, ahuldadea, atomizazioa. Zein industriak eutsi liezaioke kanpotik datorkigun uholdeari bertako produkzio eragileetan %93,5ek 20 produktu ere atera ez dituenen? Bermea gutxi batzuen eskuetan gelditzen da. Gutxiegi batzuen eskuetan, egia esan, tarte handia (handiegia) baitago egiazko argitaratzailetzat jo daitezkeen artean ere. Diodana frogatzeko berriz esango dut 50-100 titulu bitartean ateratzen dutenak 6 bakarrik direla.

Iazko ondorio bera azpimarratuz buka dezaket kapituluska hau, alegia, ekoizleen barriaketa honek produkzioa igo bai, igotzen duela, baina ez duela bermatzen liburugintzaren etorkizuna, agente hauetako asko eta askoren bokazioa ez baita liburugintza.

Argitaratzaile motak

Liburugintzaren etorkizuna eta bermea aipatu ditugu lehentxeago. Ekoizleen aldetik indarrak oso sakabanaturik daudela ikusi dugu, desoreka sortuz.

Errealitate horri orain beste modu batez begiratuko diogu: argitaratzaileen jatorria eta bokazioa kontuan hartuz.

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Ekoizleak</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertoko argitaletxe pribatu komertziala	43	947	48,7
Argitaratzaile publikoa	48	248	12,8
Elkarte, talde, fundazio, erlijio-etxe...	88	168	8,6
«Kanpokoa»	26	443	22,8
Irakaskuntzakoa	12	70	3,6
Besterik	41	68	3,5

Taulan ikusten den multzorik handiena hiru garen le-roan kokatzen da: talde, fundazio, elkarte eta gisakoez osatzen da. Hauek komunean daukatena da liburuak argitaratzea ez dela bere egiteko nagusia edo printzipio sortzai-

lea. Ekoizle guztien artean %34 dira honelakoak, eta produkzioaren %8,6 atera dute, hau da, bakoitzak ia bi liburu.

Bigarren multzo handiena argitaratzaile publikoek osatzen dute. Hemengo lehoia Eusko Jaurlaritza da, eta gero Gipuzkoako Foru Aldundia, baina zerrenda luze-luze bat dator ondoren, udaletxe eta erakunde publiko edo parapublikoekin. Guztira ekoizleen %18,5 osatzen dute argitaratzaile publikoek, eta produkzioaren %12,8.

Hirugarren baino ez datoz bertoko argitaletxe pribatuak. Ez dira besteen erdira ere iristen (%16,5) eta ekoizpenean ere ez dira erdira iristen, gutxigatik bada ere (%48,7). Tamaina guztietakoak daude hemen, eta bateratzen dituen da hemengoak direla eta beren egiteko nagusia argitalgintza dela.

Kanpokoen multzoa da laugarrena ekoizleen aldetik (%10,0) eta bigarrena ekoizpenean (%22,8). Hemen kokatu ditut etxe nagusia Euskal Herritik kanpo daukatenak. Multzo honen barruan genero eta kolore oso desberdineko ekoizleak sartu ohi dira: Euskal Herrian finkatuta daudenak, egoitza kanpoan dutenak, enpresak, elkarteak, etab. Erdiak enpresa dira eta berauena da produkzioaren hamarretik zortzi.

Irakaskuntzara emanda dauden erakunde eta taldeetatik ere sortzen da libururik: dozena bat dira eta ekoizpenearen %3,6 eragin dute. Unibertsitateak dira eragile nagusiak. Ohartarazi behar da Ikastolen Elkarte partzialki bakarrik sartu dudala multzo honetan: Elkarlanean argitaletxearekin batera argitaratzen duena bertoko argitaletxeen sailean dago, eta hemen Ikastolen Elkarteak berak bere kasa atera ohi duena.

Hamaika aurrenekoak

Hamaika aurrenekoetan ez da alde handirik egoten urte batetik bestera. Dagoenean, zerrendaren azkenekoetan egon ohi da aldaketa. Bat edo beste erori, eta berriren batzuk sartu egin direla, kasu honetan gertatu den bezala: Planeta DeAgostini eta Bruño sartu dira iazko Aizkorri eta Alberdaniari aurrea hartuz.

Hamaika hauen ekoizpenean ere ez da egon ohi aldaketa nabarmenik azken urteotan. Duela urte batzuk produkzio osoaren baitan %60 pasatxoan ibili ohi ziren, baina badaramatzagu hiru bat urte %50aren ardatzaren inguruan dabilena, goitik betiere. Hamaika hauek suposatzen duten produkzioaren zatia iaztik hona hazi egin da proportzionalki, puntu eta erdi (%53,5), eta ez da asko, baina zifra absolutuetan dezentea da, kopuru osoaren hazkundera handia izan baita: 215 titulu gehiago suposatzen du hazkunderak.

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrarg.</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkarlanean	72	114	186	9,6
Elkarlanean/ Ikastolen Elkartea	24	161	185	9,5
Ibaizabal	101	67	168	8,6
Giltza-Edebé	54	45	99	5,1
Zubia-Santillana	95	2	97	5,-
Erein	53	44	97	5,-
Ttarttalo	46	24	70	3,6
Anaya	48	17	65	3,3
Hiria	30	0	30	1,5
Gero-Mensajero	20	2	22	1,1
Aizkorri-Everest	11	11	22	1,1
<i>Guztira</i>	<i>554</i>	<i>487</i>	<i>1.041</i>	<i>53,4</i>

Hamaika aurrenekoen zerrendan argitaletxe pribatuak daude bakarrik. Publikoek sarrera izan balute Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia legoke bertan, ondo kokatuta. Eta ez leudeke urruti Gipuzkoako Foru Aldundia eta EHU.

Denetik dago hamaika hauen artean, handi eta txiki, kanpoko eta bertoko. Produkzio tamainaren aldetik diferentzia handia dago batzuetatik besteetara: lehen hirurek bakarrik gaintzen dute 100 tituluko marra; beste hiru bat daude hortxe 100 kopuruari azpitik itsatsita bezala; eta azkeneko hirurak ez dira 40ra ere iristen.

Pare bat diferentzia seinagarri ere badituzte: bat da berrargitalpenari buruz duten politika. Berrargitalpena produkzioaren erdia baino gehiago da hiruren kasuan: Elkarlanean/Ikastolen Elkartea (%87), Bruño (%65,5), Elkarlanean (%61,5). Biren kasuan %40-50 osatzen du berrargi-

talpenak: Erein (%45,5) eta Giltza (%45,5). Hiru gehiagok %30-40^{en} tartean berrargitaratzen dute: Ibaizabal (%39,5), Anaya (%35,5), Ttartalo (%34,5). Zubiaren kasuan ez dugu datu zehatzik, Madrilgo Santillanak zentralizatzen baitu informazioa. Baina badira bi argitaletxe, arrazoi desberdinengatik bada ere, berrargitalpenik ez dutenak: Planeta DeAgostini etorri berria delako, eta Hiria. Hiriaren jarrera urtero berdina da, eta pentsatzekoa da ez duela zerikusirik argitaragaien kalitatearekin baizik eta editorearen jarrerarekin.

Bigarren desberdintasun seinalarria zera da, itzulpenari buruzko politika. Batzuen kasuan nobedadeetan itzultako liburuak agintzen du guztiz, esaterako Bruñon (ehuneko ehun) eta Ttartalon (%91). Anaya ere itzulpenetik bizi da gehienbat (%69). Urteko ekoizpenaren aldetik askoz altuago dabilzanen kasuak pisu berezia hartzen du, zehazki Ibaizabalek (%59,4) eta Giltzak (%59,2). Kontrako muturrean daude itzulpenari dagokionean Elkarlanean/Ikastolen Elkarte itzulpenik gabe, Erein %17rekin edo Elkarlanean %26rekin. Ez da hutsaren hurrengoa seguruenik argitaletxe hauek jatorrizko ekoizpenari dioten atxikimendua.

Kanpoko eta bertoko argitaletxeen bereizketa egiten badugu, ia erdiak egoitza nagusia gugandik aparte daukatena dira, eta produkzioaren ia hirutik bat beraiek lantzen dute.

Ez da berria eta ezta ustekabea ere hamaika argitaletxe hauen produkzio nagusia irakaskuntzako materiala izatea, direla testuliburuak, direla material osagarriak edo irakurketak.

Eskaintza editoriala

Titulu kopuruaz ohartxo pare bat


Titulu kopuruez luze aritu naiz lehenago, iturburuez eta metodologiaz, eta ez naiz orain berriz gai berera itzulkiko. Baina ez dut seinalatu gabe utzi nahi pare bat kontu.

Bat, zein den handia aurten nire kopuruaren eta beste guztien artean dagoen aldea: nik 1.945 titulu kontabilizatu ditut; Kultura Ministerio espainiarrak 1.532; eta Precisa azterketa etxeak, bere aldetik, beste bi: Espainiako Editoreentzako lanean euskaraz 1.576 titulu atera zirela dio, eta Euskadikoentzat egin zuenean 1.487 tituluz osatzen du kopurua.

Bigaren puntu seinagarria da hain zuzen ere titulu kopuruaren hazkundearen handia. Oinarri-oinarrian aurreko urteetako metodologia bera izan dut lanean, aldaketa txiki batzuekin. Aldaketatxo horien berri eman nahi dut segidan. Hasteko, tituluaren bilaketa exhaustiboagoa izan da, eta horrek esplikatu dezake titulu gehiago bildu izana. Bestalde, beste urteetan egin dudaren aurka, aurten euskarri informatikoko materialak sartu eta kontabilizatu egin ditut. Eta horrek bai kopurua handitu duela, zehazki 87. Hor badago aldaketa bat titulu kopuruaren igoeraren alde. Badago, ordea, beste aldaketa bat ere, doi kontrako norabidean jokatu duena: aurten ISBN daukaten produktuak bakarrik kontabilizatu ditut, salbuespenik gabe, eta ez aurreko urteetan bezala. Orain arteko irizpideak oso-osorik mantendu izan banitu gutxienez 190 titulu gehiago sartuiko nituen, ISBN gabeak baina merkaturatu korritzen dutenak. Hortaz, egin dudaren irizpide-doitzearekin titulu kopuruak murriztu egin behar zuten, metodologiari dagokionez behinik behin, baina alderantzizkoa gertatu da. Gorakadak, oso nahastuta ez banago, egiazkoa behar du. 1.945 titulu horiek ISBNdunak baitira, baldin eta nire datuak fidagarriak badira.

Aldizkari honetan, orri batzuk atzerago, liburu guztien zerrenda dator, eta aurreko begi kolpean ikus daiteke 1.945 titulu baino dexente gehiago daudela zerrenda horretan. Izan ere, ISBNdunak gainera, irakurle zein aztertzailearentzat interesgarri izan daitezkeenak ere sartu ditut bertan, aurreko urteetan egindakoaren bide beretik. Gauzak argitze aldera esan dezadan, hortaz: paper euskarrian 1.858 titulu kontabilizatu baditut ere, zerrenda honetan 2.062 tituluren fitxa bibliografikoa eman dut. Eta berdin euskarri informatikoko materialekin: ISBNdunak

87 izanik ere, 144 zerrendatu ditut. Horrela, bada, bi euskarrietan ISBNdunak 1.945 dira eta ISBN gabeak 261, guzti-guztira: 2.206.




Tituluen gorakada

Titulu produkzioa urtez urte


Irizpide aldaketak direla eta, orain ISBNdun tituluak bakarrik kontsideratzen ditudala esatea eta berresatea komeni da. Batez ere kontuan hartzen badugu atzeraeraginezko irizpide gisa ere erabili dugula. Hau da, grafikoan agertzen diren balioak irizpide berarekin neurtuak dira guztiak. Aurreko urteetako grafikoarekin alderatuta dauden kopuru aldaketak begien bistakoak dira.

Azken hamarkada honetan behin bakarrik egin du urte batetik bestera jauzi handiagoa ekoizpenak, 1998an,



22 puntu. Baina oraingoa 19,1 puntu izanik ere, kopuru absolututan igoera handiagoa da, 300 titulu pasa.

Tituluen eboluzioaren indizea



Nobedadeak eta berrargitalpenak

Ondoko grafikoa ere birmoldatua da, hau da, ISBN daukaten tituluekin bakarrik osatua 1994tik gaur arte.


Nobedadeak eta berrargitalpenak

2003ko liburugintzan nobedadeek %72 osatzen dute eta berrargitalpenek %28. Proporzioz egokiak diren ala ez, ez dakit. Azken hamar urteotako proporzioen tamainan dabilela esan dezaket, hori bai. Hamar urteotako batez bestekoa hau da: nobedadeentzat %73,5 eta berrargitalpenentzat %26,5. Grafikoaren lerroetan argi ikus daiteke zein den kontzeptu bakoitzaren ardatza.

Grafikoaren eta nobedade eta berrargitalpenen arteko erlazioaren irakurketa bat egin beharko balituz nik ez dut sekula ezkutatu nahiago dudala, sanoagoa iruditzen zaidalako, berrargitalpenaren pisu handiagoa. Liburuaren arakastaren seinale da hori eta argitaletxearen sendotasunaren adierazle eta eragile. Egia esan, gainera, irakaskuntzako ma-


teriala bereiz utziko bagenu, gainerako liburuetan gutxitan, gutxiegitan, luzatzen da bizitza argitalpen berri bati esker. Egia izanik ere, esate baterako, 2003an %28 berrargitaratu dela esateak ezkutatu egiten du errealitatea. Zergatik? Haur eta gazteentzako liburuek (%30,7) edo irakasmaterialek (%44) jartzen dutelako pisua. Baina zer berrargitaratzen da aisiako liburuetan (%1,6), edo erlijiozkoetan (batere ez) edo giza edo gizarte gaietan (%3,9)? Literatur liburuetan ere %22,8 da berriz argia ikusi duena 2003an. Berriz diot, niretzat proportzio egoki batetik urrun gaude oraingoz.

Aurreko puntua eztabaidarako utziz, inork ez du ukatuko tituluaren produkzioak gora egin duenik. Baina zein



hazi da gehiago, nobedade liburuia ala berrargitaratua? Nobedadeak ia 19 puntu gora egin du, berrehun titulutik gora. Hazkunde mantsoagoa izan du berrargitalpenak, ia hamasei puntu, hau da, 74 titulu.

Nobedadeak



Bai nobedadeak eta bai berrargitalpenak izan duten igoera azken hamarkadako bigarrena da. 1998koa da lehen-a: nobedadea 20 puntu hazi zen eta berrargitalpena 24,6.

Berrargitalpenak

Ikusi dugu ikasliburuak duela berrargitalpenen kopuru handiena, baina ez da liburu klase hau maiztasunean irabazle, literatur liburua baizik. Iñaki Zabaletaren *110. Street-eko geltokia* eleberria, urtean hiru edizio izateaz gainera, 26.a izatera iritsi da guztira. 24 argitaraldi ditu Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*-ek. Aurtengo mugan hiru garen Jon Arretxeren *Ostegunak* da, 23ra iritsi baita urte berean hirutan argia ikusi ondoren. Hurbil-hurbil du Joan Mari Irigoienek *Babilonia*, 22rekin; 21ekin Joseba Sarrionandiaren *Narrazioak*, Gotzon Garateren *Izurri berria* 17rekin; 16rekin datoz Bernardo Atxagaren *Obabakoak* eta Gotzon Garateren *Goizuetako ezkongaiak*. Xabier Mendiguren Elizegik bi ditu 14/15ekin: *Irakasle alu bat* eta *Ezin da ipuinik asmatu ala?*. Bi titularekin dator atzeraxeago, 13/14rekin, Joxantonio Ormazabal: *Kittano* eta *Mari-pertxenta*-rekin.

Hamabi argitaraldirekin liburu ugari dator ondoren: Bernardo Atxagaren *Sugeak txoriari begiratzen dionean* eta *Gizona bere bakardadean*; berriro ere Gotzon Garate *Alaba*-rekin; Pako Aristi *Kcappo*-rekin eta Unai Elorriaga *SPrako tranbia* sarituarekin, azken honek 2003an hiru argitaraldi izan dituelarik.

Lehen tropel honetan bi autore atzerritar ere badaude onentxoeren artean: batetik, Richard Chisholm-en *Istanbul-en elkartuko gara*, 21 argitaraldirekin; eta, bestetik, Hans Jürgen Press-en *Eskubeltz taldearen abenturak*, 17 edizioekin.

Berrargitalpenen hierarkia


Lehen argitaraldia.....	1.416 titulu
Bigarren argitaraldia.....	192
Hirugarren argitaraldia.....	95
Laugarren argitaraldia.....	71
Bosgarren argitaraldia.....	37

Seigarren argitaraldia.....	31
Zazpigarren argitaraldia.....	19
Zortzigarren argitaraldia.....	16
Bederatzigarren argitaraldia.....	15
Hamargarren argitaraldia.....	24
Hamaikagarren argitaraldia.....	17
Hamabi argitaraldi edo gehiago.....	35

Jatorrizko eta itzulitako liburuak


Nobedade liburuen sailean kokatuta gaude, eta horren baitan ikusiko dugu zein den jatorrizko liburuaren eta itzulitakoaren konportamendua. Jatorrizko liburua euskaraz sorturikoa da hemen, erdaratik jasotakoari kontrajarria.

Lehen argitaraldiko liburuek ikusi dugu igoera handia izan dutela, zehazki 18,9 puntu, aurreko urtean baino




223 titulu gehiago. Eta igoera horretan ekarpenik handiena jatorrizko liburuak egin du diferentzia handiz: euskaraz sorturiko liburua 22 puntu hazi da, 175 titulu; eta bestea, itzulitakoa, apalago hazi da, 11,6 puntu, hots, 45 titulu gehiago.

Jatorrizko liburua eta itzulpena nobedadeetan



Au rtengoak azken hiruzpalau urteetako joera hautsi du: 1998tik gaur arte lehen argitalpenaren hazkundan it-



zulpena azkarrago ari zen gora; aurten ez, aurten bi halakoa da jatorrizkoaren igoera. Gustatuko litzaidake joera honek etorkizunik balu, baina auskalo. Beti gauza bera esan ohi dut holakoetan: urte bateko datuak deus gutxi balio duela hurrengo urteetan finkatzen ez bada.

Jatorrizko liburua

Itzulpena

Ondoren eskaintzen dugun taula goiko bi grafikoen informazioa osatzera dator. Kontzeptu bakoitzak egin ohi duen bidea ikustea interesgarria da, baina errealitatea

gehien argitzen duena hurrengo taula hori dela esango nuke.

Urtea joan eta urtea etorri hemen ageri da bakoitzaren indarra zein den. Azken hamar urteotan batez bestekoa %67 da jatorrizko liburuarentzat eta %33 itzulitako liburuarentzat. 2003an itzulpena batez besteko horren azpitik dabil, baina gauza bera gertatzen da bost urte atzera begiratzen badugu ere. Itzulpenak karga askoz astunagoa zuen 90eko hamarkadaren lehen aldian, %40tik gora ere dezentetan zebilen eta. Gaur oreka sanoago mantentzen delakoan nago.

<i>Urtea</i>	<i>Jatorrizkoa</i>	<i>Itzulpena</i>
1990	61,-	39,-
1991	57,7	42,3
1992	56,6	43,4
1993	56,4	43,6
1994	61,7	38,3
1995	63,3	36,7
1996	59,5	40,5
1997	66,2	33,8
1998	68,3	31,7
1999	73,9	26,1
2000	73,7	26,3
2001	69,4	30,6
2002	67,3	32,7
2003	69,2	30,8


Gaiak

Azterketaren orain arteko bidean gauza asko ikusi ditugu, argitaratzaileen lana, liburuen jatorri kulturala edo linguistikoa edota titulu kopurua zenbatekoa den. Baina hitz erdi bat ere ez da agertu gaien inguruan, hau da, liburuen eduki tematikoaz.

Urte roegin ohi dudanaren haritik gai multzotan sailkatu dut aurten ere ekoizpena, besteak beste: irakaskuntza, haur eta gazteentzako, giza eta gizarte zientzietako, literaturakoa. Hauek dira nagusiak. Esan nahi baita alor haue-tan argitaratzen dela gehien-gehiena euskaraz. Multzoen arteko hierarkia, egitura, ordena ia urte ro da berdina, gai-

nera. Baina ez kopuru orokorrak eta ezta ere proportzioak dira beti berdin. Ustekabeko harrigarriak ez badago ere bada nabarmentzekoa aurten irakaskuntzako liburuek izan duten gorakada, zenbaki absolututan bezala proportzionalki ere beraiena baita igoera handiena. Beti bezala aurreneko lekuan agertzeaz gainera, orain produkzio osoaren gain duten pisuak sekulako tamaina hartu du: %41.

Produkzio tematikoaren argazki honetan alderdi iluna agian literatur liburuarena da. Esan nahi dut, ia alor guztietan tituluak gora egin dutenean, helduen literatura-



ren saila hazi ez baino jaitsi egin dela, aleak galdu egin dituela, ez asko, baina irabazi beharrean hamar bat titulu galdu. Argazkia osatzera joko bagenu bi datu gehiago erantsi beharko genituzke, bata positiboen alorrean eta bestea negatiboan. Alderdi positibo bezala uler daiteke giza edo gizarte alorreko liburuek izan duten hazkundera, ia ehun titulu gehiago. Eta alderdi negatibo bezala joko genuke aisia liburuaren jaitsiera: 20 bat titulu izanik ere esanguratsua da hori alor estu-mehe horretan.


Gaien arabera

Gai multzoa	Zenb. absolutuak	%	2003/2002
Hezkuntza, Irakaskuntza	795	41,-	+ 40,-
Haur eta gazteentzako liburuak	400	20,5	+ 16,3
Giza/gizarte zientziak	353	18,-	+ 35,2

Helduen literatura	228	12,-	- 4,2
Aisia liburuak	62	3,-	- 25,3
Zientzia. Teknika	76	4,-	+ 15,2
Besterik	31	1,5	+ 19,2

Goraxeago aipatu ditugun gorabeherak ederki asko islatzen ditu laukiak, zerk egin duen gora eta zerk behera, eta bakoitzak zenbat gora edo behera. Grafikoak, aldiz, ezin argiago dakar begietara liburu tipo bakoitzaren indarra zein den. Gure *de facto*-ko liburu politika zein den hor baino hobeto ez da inon ikusten ahal.

Zehatzagun azal ditzagun orain gai multzoak banaka.



Hezkuntza eta irakaskuntza: 795 titulu

Nola harritu liburu mota honen gailentasuna ikusita? Euskalgintzaren baitan irakaskuntzak duen lehentasunaren ondorio zuzena besterik ez da. Lehen postua ez baina hazkunde hain altua izan daiteke agian harigarria. Azken bi urteotan gora eta gora doa, aurreko urte beltzak konpentsatzeko edo. Ez dakit esplikazio zehatz-zehatzik baina pentsatzekoa da zerikusizuzena izango duela ikasketa planekin. Grafikoan urtez urteko bilakaerari erreparatzen badiogu ikus daiteke aldiari aldikoa dela jaitziera eta igoera.

Irakaskuntza, urtez urteko indizea

Urteko produkzioan sekulako pisua du liburu mota honek, sekulakoa benetan: %41. Kontuan eduki behar da, hala


ere, ekoizpen honen zati handi bat ez dela lantalde sortzaileen ekimena baizik eta ekintza editoriala; hots, berrargitalpenetik elikatzen da sail hau hein handi batean. Irakaskuntzako liburuetan %44 berrargitalpena da, 350 bat titulu.

Itzulpenak ere indar dezentea du irakaskuntzan. Etxe ama nagusi baten baitakoak direnek, horiek orokorrean itzuli egiten dute, soil-soil itzuli edo hainbat kapitulu birmoldatu. Saileko %32 da itzultako liburua.

Urtero bezala ikasmaila landuenetan ere ez dago ustekabekorik, betikoak nagusi baizik: Lehen Hezkuntza (%43) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (%31,2). Bi hauetan kontzentratzen dira irakaskuntzako lau liburutik hiru. Geroz eta handiagoa dirudi kontzentrazioak.

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	9,7
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	9,5
Lehen Hezkuntza.....	43,5
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	31,2
Euskararen irakaskuntza.....	5,6
Besterik.....	0,5
	% 100

Haur eta gazteentzako argitalpenak: 400 titulu




Sail honetako liburu gehien-gehienak literaturazkoak badira ere, ez denak. Bai baitira hemen literaturazkoak ez diren bestelako materialak ere, haurrei edo gazteei espre-suki zuzendutakoak.

400 titulu sailkatu ditugu guztira hemen, eta esan behar da aurreko urtean baino 60 bat titulu gehiagoz ari gara hitz egiten.

Urteko ekoizpenaren barruan, hala eta guztiz ere, pisua galduz doa azken urteotan, modu esanguratsuan ez bada ere. %20,5 da aurten, iaz baino puntu bat gutxiago bakarrik, baina duela bi urte baino zazpi puntu baxuago.

Haur eta gazteentzako liburuak

Berrargitalpena igo egin da liburu mota honetan (%31), eta jaitsi egin da itzulpena. Jaitsita ere, ordea, oraindik oso goian mantentzen da itzulitako liburuaren



pisua, %52an hain zuzen ere. Nahiz eta aurreko urteetik hona 12 puntu-edo apaldu den, hala ere altu. Ez dakidana da itzulpenaren eta berrargitalpenaren arteko proportzio aldaketa hauek zerbait adierazten duten ala ez, baina nago ona litzatekeela kanpoko jatorria motelduko balitz pitin bat eta berrargitalpena azkartuko.

Giza eta gizarte zientziak: 353 titulu

Aurreko urtean baino 92 titulu gehiago agertzen dira sail honetan, eta kopuru horrek 35 puntuko igoera suposatzen du.

Igo egin da, baita ere, liburu mota honen pisua urte barruko ekoizpenean (%18), iazko jaitsiera ahaztuz.


Giza eta gizarte zientzietako liburuak

Itxura batean liburu tipo honek badu euskaraz indarra. Baina hurbilagotik begiratu gero indar hori ez da hainbestekoa. Ahuldadea erakuste aldera bi arrazoi mota emango ditut.

Lehen arrazoiak liburuaren «bizitzari» dagokiona da. Liburu mota hau ez da zirkulazio handikoa, eta zoritxarez bizialdi luzekoa ere ez. Aurten berrargitaratu direnak 14 titulu bakarrik dira, saileko produkzioaren %4 eskas.

Bigarren arrazoiak ere ahuldadea islatzen du, kontuan eduki behar baita sail hau esparru zabala dela oso: bertan kokatzen ditugu historia eta geografiako liburuak, artekoak, hizkuntza eta etnologiazkoak, eta berdin filosofia, politika, soziologia, administrazio edo zuzenbidekoak. Mundu oso bat. Eta zer dira 400 titulu gai horien guztien baitan?

Filosofia eta psikologia.....	2,8
Soziologia eta estatistika.....	8,5
Zientzia politikoak eta ekonomikoak.....	10,-
Zuzenbidea. Administrazioa.....	11,3
Linguistika eta filologia.....	8,5
Geografia eta bidaiak.....	4,8
Historia eta biografiak.....	22,5
Etnologia.....	10,5



Edertia.....	12,-
Besterik.....	9,1
	%100

Azpisailen barruan liburu gehien historia-biografiak biltzen du, bertan sartzan direlarik herrietako historiak edo istorioak, pertsonaien bizitzak edo biografiak, Euskal Herri edo garai bateko historia, etab. Liburu mota honi etnologia eta hizkuntzarekin loturikoak erantsiz gero, %40tik gora berak hartzen du. Beste hiru bloke bereiz genitzake horrez gainera, bata arte edo edertiarena, beste bat administrati-boa, eta hirugarrena unibertsitate liburuak, hauetako bakoitza %20 inguruko pisuarekin.

Helduen literatura: 228 titulu

Literatura, urtez urteko indizea

Berriz ere jaitsiera du literatur liburuak, helduen sailko literatur liburuak, hobeto esan, haurrei zuzendutako literaturazkoa hazi egin baita; helduenak galdu dituenak baino gehiago jaso baititu hark, dena esanda.

Beriz ere jaitsi egin dela diot, zera nabarmenezko, maiz-maiz jaitsi dela azken aldion, grafikoak agerian uzten duenez. Jaitsierak ez dira handiak izaten, baina joera bat markatzen dutela esango nuke.

Urteko produkzioaren baitan duen pisua ere (%12) jaitsi egin da hiru puntuz. Ezin da esan besterik gabe kopuru eta indar eskasa duenik literaturak eta are gutxiago ahula dagoenik, baina bai jauzi nabarmenik emateko gaitasunik ez duela erakusten. Egoera hau finkotzat ematen badugu galdera bat baino gehiago sor dakiguke gerakuntza bezalako horren inguruan: zergatik ote, sorkuntzare n eskasiagatik? Zergatik ote, merkatuaren asebetetzeagatik?

Berrargitalpenak badu urteko ekoizpenean pisua, baina ez literaturak beharko lukeenaren tamainakoa, iruditzen zait. Ekoizpenaren %22,8koa da berrargitalpena, eta gutxitxo iruditzen zait. Egia da arrakasta handiko liburuak badirela, askotan berrargitaratzen direnak, baina horiez gain behin eta berriz inprimatzen den liburu gehiago behar genuke, hobe beharrez.

Itzulpenaren pisuak aurreko urtetik hona gora egin du, dezente egin ere, %12,8tik %23,8ra. Guztira 42 titulu dira nobedade bezala itzuli direnak.

Eleberria. Ipuina.....	62,3
Olerkia.....	14,5
Antzerkia.....	4,8
Herri-literatura. Bertsoa.....	4,8
Saioa. Poligrafiak.....	4,4
Generoak nahasian.....	3,5
Besterik.....	5,7
	<hr/>
	% 100

Generoen sailkapenak ez dakar ustekabekorik, ez bada narratibaren indar erakusketa. Narratibak iaz baino ere proportzio gehiago hartzen du aurrean, %53,3tik %62,3ra igaro da, zifra absolutuetan 127tik 142ra. Horren ondoren gainerako generoak hutsak edo erdi hutsak gelditzen dira, taula ikusita ondoriozta daitekeenez. Sailak bere osoan unitateak galdu dituelarik eta narratibak irabazi, bistan da olerkiak, saioak eta enparauek jasan dutela jaitsiera hori. Ez dakit zer esan nahi duen honek, baina gauza onik ez.

Gainerakoak

Hiru alor gehiagotan ere argitaratu dira liburuak euskaraz 2003an: erlijioaren sailean, aisia liburuaren alorrean eta zientzia eta teknikaren munduan.

Erljioa eta teologia gisa ezagutzen den sailean 23 titulu publikatu dira, liturgia, Biblia eta pastoraltza barne. Trinkotasunik aski ez duenez, azterketatik kanpo utziko dugu. Baina ohiko beste biak aurkeztuko ditugu segidan: Zientzia eta Teknika alde batetik; eta Aisia liburuak bestetik.

Zientzia eta Teknika

Zientzia.....	22,4
Natur zientziak.....	22,3
Ingeniaritza. Teknologia. Industriak.....	23,7
Medikuntza.....	15,8
Ekologia. Ingurumena. Agronomia.....	15,8
	<hr/>
	% 100

Sail honek hamar tituluko igoera izan du iaztik hona: 66tik 76ra. Gizarte modernoetako sinboloetako bat izanik, euskaraz ez du erakarmen handirik zoritxarrez.

Bere ahulezia ez da mugatzen kopuru txikira bakarrik. Ahuleziaren adierazle da, baita ere, berrargitalpenik eza.

Ba me sailkapen orekatu xamarra duela ematen du: ehuneko 20 pasean dabilta zientzia, natur zientziak eta ingeniartzita, eta 15aren jiran medikuntza zein ekologia.

Aisia liburuak

Musika. Argazkia. Margoa. Zinema.....	61,3
Jolasa. Jokoa. Kirola. Atletismoa.....	27,4
Besterik.....	11,3
	% 100

Aisia liburua jaitsi egin da, 83tik 62ra. Ekoizpenaren barruan pisu gutxikoa da bai kopuruz, bai presentzia sozialez eta bai biziraupenez. Ez du berrargitalpenik. Alor honetako libururik gehienak artearen mundukoak dira edo ikus-entzunezkoei lotuak: musika, argazkia, margoa, zinema (%61). Kirola, atletismoa, mendia ari dira pixkanaka-pixkanaka sartzen, baina ez belaunaldi berriek kontsumitu beharko luketen eritmoan.¶

Oharrak

1. Liburuen fitxa bibliografikoan ikur hauek agertzen dira:

- Tituluaren ostean eta parentesi artean:
 - i = itzulpena
 - b = berrargitalpena
 - e = elebikoa
- Izenen artean:
 - / = itzultzailea
 - // = ilustratzailea (marrazkilari zein argazkilaria)
- Izenaren ondoren:
 - * = prestatzailea, egokitzailea, paratzailea, biltzailea
 - ** = zuzendaria, promotorea, antolatzailea, arduraduna, koordinatzailea

*** = eus-
 kalki aldat-

2003ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	428	22,-
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Poligrafiak. Museoak	28	1,4
— Haur eta gazteentzako argitalpenak	400	20,6
1. FILOSOFIA	10	0,5
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	10	0,5
2. ERLIJOA. TEOLOGIA	23	1,2
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia morala. Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauetz besteko erlijioak	23	1,2
3. GIZARTE ZIENTZIAK	937	48,2
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	142	7,3
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	795	40,9
5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	34	1,7
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	34	1,7
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	42	2,2
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etzeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza. Sukaldaritza	42	2,2
7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK	97	5,-
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margogintza. Argazkigintza. Musika	80	4,1
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak	17	0,9
8. FILOLOGIA. LITERATURA	258	13,2
— Hizkuntzalaritza. Filologia	30	1,5
— Literatura. Literatur historia eta kritika. Literatur generoak	228	11,7
9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA	96	5,-
— Geografia	17	0,9
— Biografiak	41	2,1
— Kondaira	38	2,-
SAILKATU GABE	20	1,-
GUZTIRA	1.945	100

zailea

- [] artean sartu dugun informazioa liburuak berak dakarrenetik

aparte lortua da.

2. Eskerrak emateko orduan fitxa bibliografikoak osatu ahal izateko laguntza eskaini didaten guztiak eskertu nahi ditut. Hasteko, liburuak eskura utzi dizkidaten argitaletxeak: Elkarlanean, Ttarttalo, Ibaizabal, Erein, Gaiak, Zubia, Pamiela, Giltza, Susa, Aizkorri, EFA, Euskaltzaindia, Baigorri, Emakunde, Labayru Ikastegia, Txalaparta, Xangorin, Zumalakarregi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa eta beste zenbait, horien artean udaletxe batzuk. Fitxa bibliografikoak bidali dizkidaten editorialak ere gogotik eskertu nahi ditut. Ia denak dira, baina ez guzti-guztiak, harritzekoa bada ere. Ez dakit nik zenbait editorialen profesionaltasuna zer-nolakoa den, fitxak bidaltzeko ere gauza ez direnean.

Eskerron merezia zor diet Koldo Mitxelena Kulturuneko Susana Araizi eta Donostiako Udal Liburutegiko Arantxa Urkiari, informazio bibliografiko eskergaitza eskuratzen baitidate.

Eta zertan esanik ez, nire esker berezi-bereziak Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiari luzatu nahi dizkiot, hasieran bezala bukaeran, lan hau burutzeko eman didan laguntza ekonomikoagatik.

- “Montparnasse-tik ideia hutsera”:** XX. mendeko abangoardien bila Serra Bilduman / **“De Montparnasse a la idea pura”:** Viaje por las vanguardias del s. XX en la Colección Serra [Erakusketa]. (e/i). SPAGNOLO DE LA TORRE, Fernando; SERRA BAUZA, Pedro A.; DURAN, Dolores (testuak)/Share; Elhuyar Fundazioa; Gipuzkoa Donostia Kutxako Euskara Zerbitzuak//Askoren artean (argazkiak). Kutxa Fundazioa. Donostia. 30 x 24 cm. 128 or.
- “Pacem in Terris” Entziklika. Bakea lurrean / “Pacem in terris” Enciclica. Paz en la tierra.** (e/i). JOAN XXIII/Arrieta, Jesus Maria. Idatz. Donostia. 21 x 14 cm. 147 or.
- (Ir.T.nº513) zuloa [Erakusketa].** (e). ARANBERRI, Ibon/EHU. Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza; Arozena, Ruben**. EHU. Argitalpen Zerbitzua. Leioa. 25 cm. 28 or.
- 1 de cada 5 mujeres es víctima de la violencia: maltrato psicológico, maltrato social, maltrato físico, agresión, maltrato económico, abuso.** (e). EMAKUMEAREN BULEGOA. s.n. Donostia. 12 cm. 24 or.
- 11/2003 Foru Araua martxoaren 31koa, Ondare Eskualdaketa eta Egin-tza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa / Norma Foral 11/2003 del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentales.** (e). OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA. Arabako Foru Aldundia. Gasteiz. 21 x 15 cm. 80 or.
- 110. Street-eko geltokia.** (b). ZABALETA, Iñaki. Elkarlanean. Donostia. 21,5 x 14 cm. 196 or.
- 110. Street-eko geltokia.** (b). ZABALETA, Iñaki. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 152 or.
- 1903.2003: Azpeitiko Zezen Plaza. Zezenketan eta herri-kirolan historiaren ehun urte / Plaza de Toros de Azpeitia. Cien años de historia taurina y deporte rural.** ELIAS, Imanol eta beste. Azpeitiko Udala. Azpeitia. 27 cm. 567 or.
- 1979-2003: Azpeitia berria / Un nuevo Azpeitia. Memoria.** Azpeitiko Udala. Azpeitia. 25 cm. 153 or.
- 1993-2003: aukeraz aukera hamar urte / 1993-2003: una década de oportunidades.** (e). OARSOALDEA ESKUALDEAREN GARAPENERAKO ELKARTEA. s.n. s.l. 30 cm. 100 or.
- 1997-2001 bitarteko istripu-tasaren deskribapena eta istripuak kontzentratzen diren tarteak / Descripción de la accidentalidad 1997-2001 y tramos de concentración de accidentes.** (e). HERRIZAINGO SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 26 cm. 67 or.
- 2.500 hizkuntza galtzear. Baita euskara ere?. “HERRIAK, HIZKUNTZAK ETA KULTURAK” TAILERRA.** Gaiak. Donostia. 21 x 16,5 cm. 296 or.
- 2002 urteko txostena / Informe anual 2002.** TOLOSALDEA GARATZEN. s.n. s.l. 21 x 30 cm. 51 or.
- 2002 urteko txostena / Informe anual 2002.** Gipuzkoa Donostia Kutxa. (e). KUTXA. Kutxa. Donostia. 25 cm. 245 or.
- 2002ko atariko probak.** HAEE-KO EBALUAKETA ARLOA. HAEE/IVAP. Oñati. 25 cm. 151 or.
- 2002ko meteorologia txostena / Informe meteorológico año 2002.** (e). GARRAIO ETA HERRILAN SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 21 cm. 232 or.

- 2002ko Urrezko Q-Memoria / Memoria Q Oro 2002. (e/i). BIDASOAKO ESKUALDEKO OSPITALEA/Osakidetza. Servicio Oficial de Traducción. Osakidetza. Gasteiz. 31 x 22 cm. 208 or.
- 30.466: atsotitzak / refranes / proverbs / proverbial. (e). GARATE, Go-tzon/Bilbao, Joserra*. BBK Fundazioa. Bilbo. 25 cm. 823 or.
34. Abesbatza Lehiaketa: Tolosa, Euskadi, 2002 26.10-03.11. (e). -/Tolosako Ekinbide Etxea**. s.n. s.l. 28 cm. 84 or.
35. Abesbatza Lehiaketa: Tolosa, 2003-10-29. -/Tolosako Ekinbide Etxea**. s.n. s.l. 28 cm. 80 or.
- Egunez egun, esaldiz esaldi [Baliabide elektronikoa].** HABE. Eusko Jauriaritza. Gasteiz.
- Ekidazu kaja (Liburua + CDa).** URIBE URBEITA, Kirmen; OSKORRI. Elkarlanean. Donostia.
- Elgoibar “barne-barnetik” / “Desde dentro” Elgoibar [Bideoa].** (e). PRODUCCIONES B 30; AUDIOVISUALES B-30. B 30 Producciones 2002. Igorre.
- Energiak batuz +: kontsumoa murriztu eta ongizatea hobetu [Bideoa].** (i). Centro de Recursos Ambientales de Navarra. Iruñea.
- Energiak batuz. Kontsumoa murriztu eta ongizatea hobetu / + Suman-do energías: reducir el consumo mejorando el bienestar [DVD].** (e). Centro de Recursos Ambientales de Navarra. Iruñea.
- Entre la tierra y el cielo [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Erdi Aroa Euskal Herrian 1 [Baliabide elektronikoa].** Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Erramon Astibia “Errenderi Aba” (1881-1916: idazlanak) [Baliabide elektronikoa].** RENTERIA, Raimundo de/Perez Gaztelu, Elixabete*. Errenteriako Udala. Errenteria.
- Eskola bidean [Bideoa].** Medicus Mundi. s.l.
- Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren I. Jardunaldiak. Aktak / I Jornadas del Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi. Actas [Baliabide elektronikoa].** -/ALDEE**. s.n. s.l.
- Euskal EAKo emakumeen elkarten gida / Guía de asociaciones de mujeres en la C.A. de Euskadi [Baliabide elektronikoa].** EMAKUNDE. Emakunde. Gasteiz.
- Euskal Herria, la mirada mágica. Por valles y ciudades [Bideoa].** (e). ASKOREN ARTEAN/Pangua, Iñaki**. EITB. Iurreta.
- Euskal Herriko 101 gaztelu [Baliabide elektronikoa].** ARRIETA, Antton; MATXIÑENA, Sorne; AZKUE GABILONDO, Joxin/Lekuona, Iñaki; Gereka, Josune; Iturburu, Ander**. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- Euskara 5. Lehen Hezkuntza. 3. zikloa. (Opción D) [Kaseta].** IRAKASLE ESKOLA S. COOP. LTDA. Anaya. Madril.
- Euskara 6. Lehen Hezkuntza. 3. zikloa (Opción A) [Kaseta].** PIKO GABANTXO, Biotza; ZUBIZARRETA ESCALADA, Tomas. Anaya. Madril.

- Euskara 6. Lehen Hezkuntza. 3. zikloa. (Opción D) [Kaseta]. IRAKASLE
ESKOLA S. COOP. LTDA. Anaya. Madril.
- Euskararen jarraipena III: Euskal Herriko soziolinguistikako inkesta,
2001. Lan osoa / La continuidad del euskera III. Encuesta sociolin-
güística de Euskal Herria. Versión íntegra / The continuity of Basque
III. Sociolinguistic survey of the basque country. Complete version /
La continuité de la langue basque III. Enquête sociolinguistique du
Pays Basque. Version intégrale [CD-Rom]. (e). ASKOREN ARTEAN. E.J.
Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Euskararen jarraipena III: Euskal Herriko soziolinguistikako inkesta,
2001. Lan osoa / La continuidad del euskera III. Encuesta sociolin-
güística de Euskal Herria. Versión íntegra / The continuity of Basque
III. Sociolinguistic survey of the basque country. Complete version /
La continuité de la langue basque III. Enquête sociolinguistique du
Pays Basque. Version intégrale [CD-Rom]. (b/e). ASKOREN ARTEAN.
E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Exploradores y estrategias [Bideoa]. (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar,
Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Formaren matematika, 3-4. DBH. 2. zikloa [CD-Rom]. RUBIO GUARESTI,
Olaia; ALBAIZAR MARTINEZ DE LECEA, Aritz; ZARRAGA AZUMENDI,
Zalao/Morillo Gonzalez, Igor**. Zuhar Informatika Zerbitzuak. Bilbo.
- Formaren matematikak: formekin jolasten matematikak ikasten [Balia-
bide elektronikoa]. Zuhar. s.l.
- Gaikaoko Araztegia Legorretan / E.D.A.R. de Gaikao en Legorreta [Bi-
deoa]. (e). OBRA HIDRAULIKOETAKO ETA HIRIGINTZAKO DEPARTA-
MENTUA. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.
- Ganbarako biztanleak. 1. kapitula: Begiratu bat emango diogu eta ki-
to! / 2. kapitula: Lortu dugu [Bideoa]. Goiatz Multimedia. s.l.
- Ganbarako biztanleak. 11. kapitula: Nola aurkituko gaitu? / 12. kapi-
tula: Agur, laster arte! [Bideoa]. Goiatz Multimedia. s.l.
- Ganbarako biztanleak. 3. kapitula: Hori planeta honetan gertatzen
da? / 4. kapitula: Hamaika, esnatu! [Bideoa]. Goiatz Multimedia. s.l.
- Ganbarako biztanleak. 5. kapitula: Inork ez daki hemen zaretenik / 6.
kapitula: Gelditu, hamaika! [Bideoa]. Goiatz Multimedia. s.l.
- Ganbarako biztanleak. 7. kapitula: Galaxiaren batean izan behar zuen
bizitza garatua / 8. kapitula: Zer gertatu da?! [Bideoa]. Goiatz Multi-
media. s.l.
- Ganbarako biztanleak. 9 kapitula: Hau deskalabrua! / 10. kapitula:
Guk geuk konponduko dugu istilua [Bideoa]. Goiatz Multimedia. s.l.
- Gara: urtekaria 2002 [Baliabide elektronikoa]. (e). -/Guerra, Pello**. Bai-
gorri. Bilbo.
- Garraio jasangarriaren gidaplana: Euskadiko garraioei buruzko politi-
ka, 2002-2012 / Plan director del transporte sostenible: la política co-
mún de transportes en Euskadi, 2002-2012 [Baliabide elektronikoa].
(e). GARRAIO ETA HERRILAN SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagu-
sia. Gasteiz.
- Gernika-Lumo: bakearen hiria / Gernika-Lumo: ciudad de paz / Gerni-
ka-Lumo: city of pace / Gernika-Lumo: ville de la paix [CD-Rom]. (e).
Gernika-Lumoko Udala. Gernika-Lumo.

- Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko plan orokorra 2002-2016: eramangarritasunerako bidean / Plan integral de gestión de residuos urbanos de Gipuzkoa 2002-2016: un camino hacia la sostenibilidad [Baliabide elektronikoa].** NEKAZARITZA ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-instituzioen xedapen-bilduma 1981-2002 / Repertorio de disposiciones de las instituciones forales del Territorio Histórico de Gipuzkoa 1981-2002 [Baliabide elektronikoa].** (e). LEHENDAKARITZA DEPARTAMENTUA. Gipuzkoako Foru Aldundia; Ihardun multimedia. Donostia; Leintz-Gatzaga.
- Gipuzkoako sagarrondoan izurri eta gaixotasunak / Plagas y enfermedades de los manzanos de Gipuzkoa [Baliabide elektronikoa].** LANDA INGURUNEAREN GARAPENERAKO DEPARTAMENTUA. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.
- Gizon harrigarriak [Baliabide elektronikoa].** Elkarlanean. Donostia.
- Gotiko artea / Arte gótico [Baliabide elektronikoa].** (i). -/Urdanpilleta, Karmele/Ayerbe, Enrique**. Ostoa. Lasarte-Oria.
- Grandes inventos (I) [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Grandes inventos (II) [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Grandes viajeros [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Guggenheim Bilbao Museoa [Baliabide elektronikoa].** HABE. Donostia.
- Gure ingurumena [Baliabide elektronikoa].** SOLABARRIETA, Danel eta beste. Elhuyar. Usurbil.
- Hamaika jolas Hamaika kantu [DVD].** RESA BARDECI, Bea; INGUNZA ZEN-DAGORTA, Iraia eta beste/Luengo Lucas, Mertxe**. Escuela de Formación de Animadores de Gaztetxos. Bilbo.
- Haizearen nomadak / Nómadas del viento / Nomadas del vent [Bideoa].** (e). PERRIN, Valentino eta beste/Perrin, Jacques; Cluzaud, Jacques; Debats, Michel**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Herramientas cotidianas [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Historiaurreko artea, erromatarra eta bisigotikoa / Arte prehistórico, romano y visigodo [Baliabide elektronikoa].** (i). -/Urdanpilleta, Karmele/Ayerbe, Enrique**. Ostoa. Lasarte-Oria.
- Hombres de ciencia [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Hondarribia iruditan [Baliabide elektronikoa].** HONDARRIBIKO UDALA. Euskadiko Kutxa. Donostia.
- Imanes y plásticos [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Inventores [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Jasangarritasuna. 1. atala [Baliabide elektronikoa].** Tibidabo. Bartzelona.
- Jasangarritasuna. 2. atala [Baliabide elektronikoa].** Tibidabo. Bartzelona.
- Jasangarritasuna. 3. atala [Baliabide elektronikoa].** Tibidabo. Bartzelona.

- Juan Garmendia Larrañagaren hiztegi etnografikoa [Baliabide elektronikoa].** GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan; MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier; ITURBURU YARZA, Ander/Azkue Gabilondo, Joxin**. Ikastolen Elkarte. Bilbo.
- La aventura del saber [Bideoa].** (e). ASKOREN ARTEAN/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- La conquista del mar [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- La huella en el cielo [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Landare transgenikoak etorkizuna ote? [Bideoa].** -/KM; Cátedra Miguel Sánchez-Mazas**.
- Las primeras expediciones [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Las siete maravillas [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Lehen munduan biziraupenerako kartelak [Baliabide elektronikoa].** ASKOREN ARTEAN. Okupgraf. Asociación Promoción y Difusión Arte Gráfico. Donostia.
- Los hombres del hielo [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Lurra eta biok [Baliabide elektronikoa].** VEISS. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Makilakixki [Baliabide elektronikoa].** Elkarlanean. Donostia.
- Matematika Tailerra, 3-4. DBH. 2. zikloa [CD-Rom].** ETXEBERRIA LARRAZABAL, Aitor; GARCES BENGÓA, Maria Inmaculada/Morillo Gonzalez, Igor**. Zuhar Informatika Zerbitzuak. Bilbo.
- Mendata, Urdaibaiko begiratokia / Mendata, mirador de Urdaibai / Mendata, Urdaibai's view point [CD-Rom].** (e). MALLEA LAMIQUIZ, Idoia. Egile editore. Mendata.
- Mozarabiar artea, Prerromanikoa eta Erromanikoa [Baliabide elektronikoa] / Arte mozárabe, Prerrománico y Románico.** (i). -/Urdanpilleta, Karme/Ayerbe, Enrique**. Ostoa. Lasarte-Oria.
- Mundos perdidos [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Muskizko oroitzapenak: herri meatzariaren irudi historikoak / Recuerdos de Muskiz: imágenes históricas de la localidad minera [Baliabide elektronikoa].** Salgai. Abanto-Zierbana.
- Navegantes [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.
- Neoklasizismo eta Erromantizismoaren artea / Del Neoclasicismo y del Romanticismo [Baliabide elektronikoa].** (i). -/Urdanpilleta, Karme/Ayerbe, Enrique**. Ostoa. Lasarte-Oria.
- Nire gorputza barrutik [Baliabide elektronikoa].** SOLABARRIETA, Danel eta beste. Elhuyar. Usurbil.
- Odiseas del hombre [Bideoa].** (e). PLANETA DE AGOSTINI/Chalar, Concha**. Planeta DeAgostini. Bartzelona.

- Ohe handi bat / Una cama grande / La large bed [Bideoa].** (e). Arriola Kultur Elkartea. Elorrio.
- Oinarrizko elektronika laborategia I [Interneteko artxiboa].** RECART BARRAÑANO, Federico; SAENZ NOVALES, Maria Jose; GUTIERREZ SERRANO, Jose Ruben. EHU. Argitalpen Zerbitzua. Leioa.
- OpenOffice-org euskaraz [Baliabide elektronikoa].** KULTURA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Oroimenaren lapurrak [Baliabide elektronikoa].** Elhuyar. Usurbil.
- Oroitzatxostena 2002 / Memoria 2002 [Baliabide elektronikoa].** (e). AREA DE DESARROLLO ECONOMICO, EMPLEO Y COMERCIO. Donostiako Udala. Donostia.
- Pasaiaiko euskal kronika zaharrak [Baliabide elektronikoa].** ASKOREN ARTEAN/Elortegi Bilbao, Antxon*. Pasaiaiko Udala. Pasaia.
- Patxi errementaria [Baliabide elektronikoa].** Elkarlanean. Donostia.
- Piratekin hizkuntzaren munduan 1: 5-8 urte [Baliabide elektronikoa].** SOLABARRIETA, Danel. Elhuyar. Usurbil.
- Piratekin matematikaren munduan 3: 10-12 urte [Baliabide elektronikoa].** SOLABARRIETA, Danel eta beste. Elhuyar. Usurbil.
- Platereskota eta errenazimentuko artea / Arte plateresco y renacentista [Baliabide elektronikoa].** (i). -/Urdanpilleta, Karmele/Ayerbe, Enrique**. Ostoa. Lasarte-Oria.
- Sinonimoen Hiztegia MS Word-erako [Baliabide elektronikoa].** UZEI. UZEI. Donostia.
- Sinonimoen hiztegia [Baliabide elektronikoa].** UZEI. UZEI. Donostia.
- Tartalo [Baliabide elektronikoa].** Elkarlanean. Donostia.
- Teknologiaren gailurrean IV. Teknopolis [Bideoa].** ELHUYAR ZIENTZIA-REN KOMUNIKAZIOA. Elhuyar. Usurbil.
- Torturaren Aurkako Taldea [Baliabide elektronikoa].** (e). TORTURAREN AURKAKO TALDEA (TAT). Torturaren Aurkako Taldea. Hernani.
- Transgenikoak: auziaren mila aurpegiak [Bideoa].** -/KM Kulturunea**.
- Udal-adierazleak 2002. Serie estatistikoak / Indicadores Municipales 2002. Series estadísticas [CD-Rom].** (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz.
- Uren kalitatea / Calidad de aguas [Baliabide elektronikoa].** (e). AGUIRRE DAVILA, Santi; DIEZ ALKORTA, Belen. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Urtekaria 2002 [Baliabide elektronikoa].** -/Gysling, Erich; Dols, Joaquín G.**. Difor Multimedia. Ortuella.
- XX. mendearen artea / Arte del siglo XX (1) [Baliabide elektronikoa].** (i). -/Urdanpilleta, Karmele/Ayerbe, Enrique**. Ostoa. Lasarte-Oria.
- XX. mendearen artea / Arte del siglo XX (2) [Baliabide elektronikoa].** (i). -/Urdanpilleta, Karmele/Ayerbe, Enrique**. Ostoa. Lasarte-Oria.
- Zaldibar berbarik berba [Baliabide elektronikoa].** GAMINDE, Iñaki. Zaldibarko Udala. Zaldibar.
- Zegama: herri baten arnasa: usadio zahar eta berriak [Bideoa].** -/Eizaguirre, Igor*. Zegamako Udala. Zegama.
- Zuzen-zuzenean 2003 [Bideoa].** EITB. Bilbo.

Zuzenbide penaleko ikasgaia: zati orokorra eta zati berezia [Interneteko


artxiboa]. LANDA GOROSTIZA, Jon Mirena. EHU. Argitalpen Zerbitzua.

Leioa.

Zuzenbide zibileko ikasgaiak: pertsona [Interneteko artxiboa]. ALKOR-

TA IDIAKEZ, Itziar. EHU. Argitalpen Zerbitzua. Leioa.

Gaiak



JULEN ZABALO / TXOLI MATEOS
Euskara euskal nazioaren funtsa,
periferia erdaldunean ere?

165



CARMEN PEÑAFIEL / NEREIDA LOPEZ /
AINHOA FERNANDEZ DE ARROYABE
Etorkizuneko telebistaren itzalak eta argiak

183

Euskara euskal nazioaren funtsa, periferia erdaldunean ere?

JULEN ZABALO / TXOLI MATEOS

euskara euskal nazioaren funtsa denik gutxitan ipintzen da zalantzan gai horretaz mintzatzean edo agertzen diren idatzietan. Izan ere, euskal nazionalismoaren diskurtso ofizialak baieztapen hori bultzatu du azkeneko hamarkadotan, eta dogmatzat hartua izaten da gaur egun. Hala ere, teorian onartzen den diskurtsoak ez dauka beti jarraipenik praktikan, arrazoi asko direla eta. Sintomatikoa da zelako indarra duen Euskal Herrian euskal herritartasuna bertan bizi diren guztiei onartzeko iritziak, euskal nazioaren funtsa euskarari ematen dion teoriarekin bat ez datorrena. Kontraesan zabaldua dugu hau, abertzale askok batere arazorik gabe onartzen duena.

Baina kontraesanak teoriaren erlatibotasuna ere uzten du agerian. Izan ere, alde handia nabaritzen da euskal nazionalismoak arlo teorikoan dioenetik praktikan onartzen duenera. Zaila izango litzaioke, bestalde, teoria hori aurrera eramatea, jakina baita Euskal Herrian bizi diren guztiek, ezta gehienek ere, ez dutela euskal naziokide izateko euskararen baldintza betetzen. Egoera horretan, normalea dirudi euskara jakitearen betebeharra malgutasunez erabiltzeak!

► **Julen Zabalo** Geografian doktorea da. **Txoli Mateos** Soziologian doktorea da. Biak EHUko irakasle dira.

Artikulu honetan, baldintza hori betetzen ez duen sektore esanguratsu baten iritzia bildu nahi izan da, Euskal Herriko periferia erdaldunean bizi den jendearena, alegia. Karrantza, Enkarterria (Bizkaian), Mendebaldeko Haranak, Errioxa (Arabian) edo Erribera (Nafarroan) euskara urrun edo oso urrun sentitzen duten lurraldeak dira. Hala ere, abertzaletasunak nolabaiteko hedapena lortu du, militante askok euskara jakin ez arren. Jende honek euskal nazioaren funtza euskara delako baieztapena nola ulertzen duen aztertu nahi da hemen, teoria eta praktikaren artean kontraesanik dagoen ikusteko.

Periferia horretako jendearekin egindako elkarrizketetan oinarritzen den lan honetan, abertzaleen iritzia soilik batzen da, beraz, eta ez bestelako jendearena, euskal naziorik badela onartzen baita abiapuntu gisa. Baina iritzi horiek jaso baino lehen, ikus dezagun zertan datzan arazoa.

Euskara euskal nazioaren funtza

II. Mundu Gerraren amaierak aldaketa erabakigarriak utzi zituen European, besteak beste, pentsaeran. Faxismoaren eta nazismoaren gaitzespenak haien ondare teorikoaren berrikusketa ekarri zuen, eta ordura arte arraza kontzeptuari ematen zitzaion zentzu orokorra zehaztuz joan zen. Maila teoriko batean behintzat, arraza terminoa arlo zientifikora mugatu zen, baldintza zurrun batzuk bakarrik betez gero erabilgai. Askoz kontu handiagoz erabili zen, hortaz, eta, ondorioz, talde edo herri esanguraz hain normalak ziren arrazari buruzko aipuak gutxituz joan ziren. Are gehiago, arraza kontzeptua arrazismo kontzeptutik hurbilegi geratu zen, eta termino susmagarri eta arriskutsu bihurtu zen, ahal izanez gero baztertu beharrekoa.

Egoera hark euskal nazionalismoari ere eragin zion, zer esanik ez. Ordura arteko nazionalismoaren diskurtsu teorikoa arraza kontzeptu zabal zahar hartan zetzan, esangura arrazista batekin, batzuetan, eta oso modu zabalean erabilia beste askotan. Baina terminoaren mugatzeak eus-

kal nazionalismoaren argitzea eskatzen zuen, eta apurka, diskurtso teorikorako oinarri berriak bilatzen hasi zen.

Ez zen hori oinarri berriak bilatzeko arrazoi bakarra, noski. Hori baino larriagoa dateke, ordea, ordura arteko ibilbide osoan zehar euskal nazionalismoak zeraman ezintasun teoriko nabaria: zelan egin bateragarri euskal arrazaren goraipamena euskal herritar sentitzen baina euskal arrazakoa, zentzu estuan, ez zen jendearekin.

Izan ere, hazten hasi diren estaturik gabeko nazioetako nazionalismoen arazo arrunta izaten da hori, kasu gehienetan naziotzat hartzen den lurraldeko biztanle guztiak bihurtu nahi izaten baitituzte naziokide. Helburua ez da beti hori, baina normalena da Mendebaldeko Europan behintzat. Euskal nazionalismoak, hortaz, muga teoriko estuegiak zituen jarrita aukeran zeukan bezeriarako, eta hautatu beharrean zegoen: diskurtso teoriko estuari lotu eta bezeria mugatu, ala bezeria erakartzen saiatu (politikan ari denak nahi duen bezala) eta horretarako zurruntasun teorikoa nolabait erlaxatu? Esan gabe doa bigarren aukera hori izaten dela nazionalismoek jarraitzen dutena, eta hori ere orduko euskal nazionalismoarena.

Era horretara, Francoren kontrako gerra galduta, militantzia espetxeraturik edo atzerrian sakabanatuta, eta estaturik gabeko nazionalismoak nahiko desprestigiaturik, euskal nazionalismoak aipaturiko baldintza teoriko horiei egin behar zien aurre. Erabili ziren alternatibak ez ziren berriak, eta bai, ostera, tradizio handikoak. Batak lurraldea hartzen zuen oinarritzat, eta euskal nazioaren lurraldea zehazten hartzen zuen ardurarik handiena, barruko biztanle guztiak euskal herritartzat joz. Besteak, berriz, euskara hartzen zuen abiapuntutzat, eta berari ematen zion nazioaren funtza.

Laster garaile irtengo zen bigarren alternatiba hau ez zen, inondik inora, ideia berria, ez orokorrean ezta euskal nazionalismoaren barruan ere. Hala ere, ordura arte euskarak paper *osagaria* betetzen zuen diskurtso teorikoan, euskal arrazaren berezitasunak ageriago uztearena, alegia, eta orain berari eman behar zitzaion paper nagusia; hots, Euskal Herria existitzen zen euskara existitzen zelako. Al-

daketa honen bidez, *Euskal Herria, euskal arrazaren lurraldea* zena *Euskal Herria, euskararen herri* bihurtzen da.

Aldaketa teoriko hau EAJren barruan antzeman deza-kegu, baina modu pertsonal eta nahiko bakartu batean (Landabururengan, esate baterako). EAJtik kanpo gertatuko da bere gauzapena, ordea, EAJren ibilbidearekin bat ez datozenen aldetik, hain zuzen ere. Sektore hau gerran zuzenean parte hartu ez duten gazteek osatzen dute askotan, eta gehiegizko pasibitatea leporatzen diote EAJri. Hori dela eta, arrazaren diskurtso teorikoaren zamaz libratu-rik, gizarte arkieko harremana bilatzen dute, nazionalismoa gizarte osoari eskaini nahian.

Aktibismo hori arlo askotara zabaltzen da, baina garrantzi berezia hartzen du diskurtso berriaren funtza bilakatu denak; euskarak, alegia. 1960ko hamarkadatik aurrera, batez ere, euskararen aldeko mugimendu zabala eraten da, kultura arlor mugatu ezin dena. Aitzitik, oso giro politikoan murgiltzen da, eta elkar elikatzen dute: euskarak etekin politikoa ematen dio nazionalismoari, eta nazionalismoak lan itzela egiten du euskararen alde. Horrela sortzen dira ikastolak eta gau eskolak, euskara sendotzeko eta abertzaletasuna azkartzeko tresna erabakigarriak.

60ko hamarkadan errepresio baldintza zailetan Hego Euskal Herrian gorpuztutako mugimendu berri hau biderkatu egiten da hurrengo hamarkadan. Euskara eta euskal kulturaren edozein ezaugarriren aldeko taldeak sortzen dira non-nahi, helburuak euskara edo dantzak ikastea, herriko ohitura zaharrak berreskuratzea edo beste hainbeste direla. Eta mugimendu horretan adin eta jatorri guztietako jendea inplikatzeko da. Euskara ikasten gazteenak saiatzen dira, oro har, baina nagusiagoak umeak ikastoletara bidaltzen ahalegintzen dira, eta euren artean asko etorkin edo etorkinen seme-alaba direla.

70eko hamarkadaren amaierarako, beraz, aldaketa izugarria atzeman daiteke euskal nazionalismoan, bai diskurtso teoriko zein eguneroko praktikari begira. Hizkuntzan oinarritutako marko teoriko berriak herrian zabaltzeko aukera gehiago eskaintzen ditu arrazan edo etnien oinarritutakoak baino. Horrek aktibismo handiagoa dakar,

Hego Euskal Herriko orduko giroan ederto egokitzen zena, bestalde. Marko teoriko berria, gainera, malguagoa da aurrekoa baino, eta jende gehiagoren hurbilketa ahalbidetzen du. Euskal nazionalismoaren oztoporik handienetako bat ezabatzen edo leuntzen da, horrela: jatorriz euskal etniakoa ez zen jendeari zegokiona, alegia.

Arraza edo etniarekin ez bezala, euskal nazionalismoak lan ikusgarria egiten du herritarrak hizkuntzan oinarrituriko euskal nazio honetan integratzen, eta hazi egiten da, baina kide berrien euskalduntasuna ziurtatu gabe. Kantitatean, eta ez beti kalitatean, irabazte horrek, ordea, arazoak ekarriko ditu, 80ko hamarkadatik aurrera, batez ere. Ordurako, euskararen oinarritutako jatorrizko ildo teorikoari atxikiturik, euskararen zentralitateari eutsi nahi diotenen kritikak azaldu dira, euskal nazionalismo honen ezintasun teoriko eta praktikoa batzuk agerian utziz. Euskal nazionalismoa krisi teoriko berrian murgiltzen da, nahiz eta aurrekoa bezain argia ez izan, politikoki egoera abantailatsuan agertzen da eta.

Euskara euskal nazioaren funtza?

Euskal nazionalismoaren oraingo ildo nagusia euskara euskal nazioaren funts gisa ezartzen duena da, eta diskurtso horrek arrakasta nabaria lortu duena ezin du inork zalantzan jarri. Baina diskurtsoa bera zalantzan jartzen duten beste iritzi batzuk badaude, eta horiek oztopo garrantzitsuak dira teoria honen iraupenerako. Oztopo horiek hiru ildo nagusitan koka ditzakegu: errealitate soziologikoari dagokiona, nazionalismoaren praktika okerrari egiten zaion kritika, eta euskal nazioa ulertzeko beste eredu batzuei dagokiena.

Lehenengo oztopoa, oso agerikoa eta hasieratik presente egon dena, Euskal Herriko errealitate soziologikoan datza, zeinaren arabera, euskal heritarren arteko lautik hiruk ez baitu euskal nazioan integrazteko funtsezkoa den baldintza, euskaraz egitea, betetzen. Are larriago, hizkuntza, etnia ez bezala, atzeman daitekeen ezaugarri bat den

arren, ez da modu erraz eta arinean ikasten, eta, beraz, etorkizun hurbilean ere ez da baldintza hori betetzen hasiko. Euskal nazionalismoak, hortaz, ahaleginik handiena eginda ere, gainditu ezinezko muga dauka hor.

Aspalditik datorren arazo bat dauka hor euskal nazionalismoak; lurraldearena, alegia: Euskal Herria euskararen herria da, ala historikoki ulertu den herrialdea, euskaraz egin edo ez? Arrazarekin gertatzen zen bezala, erabaki kontraesankorra hartu ohi dute abertzaleek, ezen, alde batetik, historikoki Euskal Herria izan dena hartzen dute lurraldetzat (Axularrek modu natural batean deskribatzen zuena, adibidez); baina, bestetik, lurralde horretako biztanle guztiek betetzen ez duten ezaugarri bat hartzen dute nazioaren oinarri teoriko gisa; dela arraza, dela hizkuntza. Teoria bat erraz osa daiteke, baina praktika eraginkorra behar da gero, eta nekez lortuko da bien arteko sintonia abiapuntu desberdinetatik abiatuz bilatzen bada.

Euskal nazionalismoak aurrean duen bigarren oztopo teorikoa arazo horretatik sortzen da, hain zuzen ere, errealitate soziologiko horrek teoriarekin bat ez doan praktika egitea ekarri baitio abertzaletasunari. Euskara ikasteko mugimendua zabaldu zenetik asko eta asko dira euskara ikasi dutenak, baina asko ere ikasten saiatu bai, baina huts egin dutenak. Eta abertzaleengan zehatzago errepaturaz, abertzale asko saiatu da euskara ikasten, baina ez du beti arrakastarik eduki. Teoriarekin bat egin nahi zuen hainbat abertzalek, ondorioz, huts egin du ahalegin horretan, eta hortik kezka teoriko bat sortzen da: teoriarekin bat egiten saiatzean huts egin izanak galarazi egiten die pertsona horiei teoria hori bultzatzen duen mugimendu politikoarekin bat egitea? Euskal nazionalismoak oso argi eduki du hasieratik ezetz eta, hortaz, arazorik gabe integratu dira mugimenduaren barruan. Justifikazio gisa hainbat argudio erabili ohi da, baina bat batez ere, nazionalismoaren diskurtso orokorra indartzen baitu, gainera; Espainia eta Frantziaren errepresioa, alegia.

Francoren erregimenaren pean modu aski naturalean onartzen zen argudioa, ordea, zalantzan hasi zen ipintzen 80ko hamarkadatik aurrera, teoriari leial izan nahi zute-

nen aldetik, hain zuzen ere. Euskaltzaletasunetik datorren kritikaren arabera, euskara da Euskal Herriari izaera ematen diona eta benetan indartu beharrekoa, beraz. Nolabait euskal nazionalismoaren diskurtso teorikoa gainditzen dela esan daiteke, nazionalismoak euskara euskal nazioaren funts gisa erabiltzen baitu, baina ardatza nazioa izanik. Euskaltzaleen aldetik sortzen den kritikan, berriz, ardatza euskara bera da: euskara da gorde eta sendotu behar dena, euskararik gabe ez baitago ezer.

Hori dela eta, orain arteko nazionalismoarentzat, euskaraz egiten ez duen pertsona ere elementu baliagarria izan daiteke, euskal nazioaren alde jokatzeko badu (erran nahi baita, politikoki abertzale izatea, edo seme-alabak eskolako euskal ildoetara eramatea, adibidez), helburua euskal nazioa baita. Euskaltzaleen ikuskera berrian, aldiz, euskaraz ez dakien edo egiten ez duen pertsona elementu negatibo gisa ulertu eta onartu behar da, euskara —eta Euskal Herria, hortaz— suspertzeko ahaleginean nahikorik egiten ez duelako.

Euskaltzaletasunetik datorren kritika hori arrakastatsua gertatu da, maila teorikoan, behintzat. Izan ere, bere alde baitu teoria! Ondo eraikitako kritika da, gainera. Soziolinguistikaren arloan eginiko ikerketak jasotzen ditu, eta modu gordinean planteatzen du estatu baten euskarria ez duten hizkuntzen patua. Egoera horren aurrean, modu eraginkor batean bultzatu ezean, bestelako asmo, iritzi eta adierazpen ofizial guztiak alferrikakoak direla ohartarazten dute, eta, ondorioz, modu eraginkor horretan jarduteko, hainbat erabaki politiko hartu behar dela, euskararen ezagutza eta erabilera bermatu ahal izateko. Euskaldunen unibertsoa konpaktatu beharra dago, alde batetik, eta erdaldunen euskalduntzeari ekin.

Halako planteamenduen aurrean, gutxi dauka esateko praktika politikoan murgiltzen den euskal nazionalismoak. Abertzale batzuek begi onez ikusten dute kritika, eta euskararen alde gehiago egin behar dela da ateratzen duten ondorioa. Beste batzuk, ordea, kontziente dira errealitate soziologikoaren oztopo nabariaz, eta konturatzen dira halako kritika eta proposamenak arriskutsuak direla euskara

nagusi ez den Euskal Herrian. Hala ere, berauen defentsa guztiz mugaturik geratzen da, ezin baitute euskal nazionalismoak ofizialki bultzaturiko teoriaren kontra joan, eta nahiago izaten dute halako eztabaidetan ez sartzea. Errepresioaren edo errealtate soziologikoaren argudioak erabiltzen dituzte militante erdaldunen presentzia justifikatzeko, baina era ezkutuagoan lehenago baino, teoria ezin betetzeaz nolabait lotsaturik, bestela euskaltzale kritikoen berhalako erantzuna jasotzeko arriskua dago eta.

Nahita hartutako erabakia da, ordea, euskararen inguruan eraikitako nazioa ez baita berau ulertzeko modu bakarra. Ikusi dugu hasierako ikuskera arraza edo etniari loturik zegoela, baina badaude beste aukera batzuk, eta hauek ere kritika egiten diote ildo nagusiari. Hirugarren oztopoa osatzen dute, hortaz, Euskal Herria euskara ez den beste ezaugarri batzuei loturik ikusten dutenek. Horien artean, gaur egun nagusi da nazioa lurraldeari edo borondateari lotzen diotenena. Biak multzo berean sar daitezke, eta oso hurbil daude orain arteko ildotik. Laburrean, borondatean oinarriturikoak esaten du, euskal nazioa osatzeko, horretan sinestea eta horren alde aritzeko borondatea edukitzea dela garrantzitsuena; eta lurraldean oinarriturikoak, berriz, euskal lurralde izendatutakoan sartzen diren pertsona guztiek osatzen dutela nazioa, horretarako borondaterik badago. Beronen barruan nazioa komunitate historiko batean oinarritzen dutenak sar daitezke. Aipatzekoa da, ildo honetan, euskara eta Euskal Herria arlo kulturalera mugatu, eta lurraldea —Nafarroa historikoa— arlo politikora ekarri nahi dituen iritzia, azkeneko urteotan nahiko indartsu ari baitira batzuk ideia horren alde.

Egia esan, orain arteko ildoak behin baino gehiagotan erabili ditu borondatean eta lurraldean oinarritutako argudioak, nahiz eta euskararen zentralitatea gorde beti. Horregatik diogu ikuskera hauek ez direla arraroak euskal nazionalismoarentzat, baina inoiz ez dira ofizialtzat joak izan. Hala ere, beti presente egon badira ere, 80ko hamarkadatik aurrera nabariagoak dira, agian, euskaltzaletasunak egin duen kritikak agerian utzi baitu oraingo eredu nagusiaren ezintasuna. Teoriari kasu egitekotan, euskara

ezinbestekoa da euskal herritarrentzat. Hori dela eta, euskaldunen komunitatea aldarrikatzen dute batzuek, erdaldunen euskalduntzearen zain. Halako neurririk ez du inoiz euskal nazionalismoak onartu, eta bilatu gabeko ondorio gisa agertzen da, hautatzekotan, euskal nazionalismoak nahiago duela Euskal Herri izeneko lurraldea euskaldunengan zentratu Euskal Herria baino. Beste era batera esanda, euskal nazionalismoak, praktikan, lurralde irizpide bat hobesten du, teorian euskara aipatzen badu ere. Horitik, nazioa beste era batera ulertzeko ikuskera hauek oztopo nabaria izatea orain arteko ildo nagusiarentzat, adierazten baitute nazioa beste modu batera uler daitekeela hainbesteko kontraesanik sortu gabe.

Kontraesana euskaldun ez diren heritarrak dira, baina oraingo euskal nazionalismoak ez du arazo hori sakonean aztertu nahi izan, kontziente baita arazoaz. Erdaldunak zergatik diren erdaldun eta ez euskaldun aztertu da, arrazoi historiko, soziologiko eta politikoak erabiliz, baina ez da adierazten zein estatus dagokien euskal nazioaren barruan.

Euskal nazioa euskaldunik gabe: periferia erdaldunaren adibidea

Euskal nazionalismoaren oraingo ildo teoriko nagusiak azterketa gutxi egiten du ustez nazioaren oinarri den euskara ez dakitenek duten estatusaz, eta larriena, agian, da azterketa horretan ez dela sartu izaten egoera horretan dauden pertsonen iritzia. Kasu horretan dagoen jendeak errepikatu egiten ditu askotan diskurtso ofizialaren argudioak: deitoratu edo sentitu egiten du euskaraz ez jakitea, eta jarraitzen du euskarari euskal nazioaren zentralitatea aitortzen. Euskara presente, eta inguruan euskaldun nahiko edo asko dagoen aldean nolabaiteko erraztasunez jaurti daitezke halako argudioak, baina zer gertatzen da baldintza horiek betetzen ez diren aldeetan? Euskal Herriko periferia erdaldunaz ari gara.

Erdalduna esatean, gehiago zabal liteke *periferia* hori, baina kontzeptua, zentzu geografikoan erabiltzeaz gain,

euskararen presentzia urrun sentitzen den lurraldea adierazteko ere erabili nahi dugu hemen. Bilbo, Gasteiz edo Iruñea, kasu, periferia horretatik aterako ditugu, oro har erdaldunak izan eta periferiaren mugan egon arren, euskarak nolabaiteko presentzia duelako. Hiri horietatik *harrago* dauden lurraldeak aukeratu ditugu, hortaz. Oro har, hiru alde nagusi daude periferia horretan: Karrantza eta Enkarterria, Bizkaian; Mendebaldeko Haranak eta Errioxa, Araban; eta Erribera, Nafarroa Garaian.

Lurralde horiek Euskal Herriko mendebalde eta hegoaldean kokatzen dira, eta euskara aspaldi (mendeak, gehienetan) desagertu zen bertatik. Are gehiago, eztabaidan dago inoiz euskaraz egin ote den lurralde horietako batzuetan (nahiz eta gure asmorako interesik eduki ez). Nolanahi, oraingo lurralde euskaldunetik urrun geratzen dira, eta ikastolak egon, eta Araban eta Bizkaian B eta D ereduak irakasten badira ere, euskararen presentzia oso urria da. Kanpoko *muga* osatzen dute, eta hango biztanleek badute horren kontzientzia.

Argi dago, bestalde, lurralde hauek euskal nazioaren proiektuan sartzen direna, bai diskurtso ofizialak dioenez, eta bai bertako biztanle batzuek (askok, zenbaitetan) adierazten dutenez. Hortik suma daitekeen ahultasun teorikoa aztertu gura da, hortaz.

Asmo horrekin, eztabaida talde batzuk eratu ziren lurralde horietan, hango abertzale erdaldun batzuen ahotsa jasotzeko eta diskurtso ofizialaren ildoari nolako atxikimendua zioten ikusteko. Eztabaida taldeetan bildu zen jendea abertzalea zen, oro har, baina ezein alderditako goi kargua izan gabe. Beste alde batetik, jendearen espontaneitatea bilatu nahi izan zen, eta elkarriketa hasi arte ez zuten jakin hizketarako gai zehatza zein zen. Horrek eragina du, ikusiko dugunez, diskurtsoaren kalitatean, baina ukatu ezinezko interesa hartzen du jendearen bat-bateko iritzia ezagutzeko asmoz.¹

Euskal identitatearen sorburua periferia
erdaldunean bizi diren abertzaleen arabera

Nazionalismoen barruan identitatea ezaugarri bati lotu ohi zaio, maila teorikoan behintzat, eta ezaugarri horrek, ostean, paper sinbolikoa betetzen du. Horrek ez du esan gura beste ezaugarriak baztertu egiten direnik. Aitzitik, nazionalismoek denak erabiltzen dituzte, baina bati ematen diote zentraltasuna, eta besteak osagarri gisa ari dira maila teorikoan. Era horretara, jendea erakartzeko aukerak zabaltzen dira, eta ahalbidetzen da agian diskurtso ofizialarekin guztiz bat ez datorrenari ere leku bat egitea mugimendu nazionalistaren barruan. Euskal nazionalismoan gaur euskarak du, noski, zentraltasuna, baina ezaguna da abertzale batzuek, adinekoak gehienetan, arrazaren garrantzia jarraitzen dutela azpimarratzen; beste zenbaitek historian ikusten du lokarria, Nafarroa Garaian, batez ere, eta abar. Zelan ikusten da gai hori periferian?

Orokorrean, eginiko elkarrizketetan oso gutxitan aipatzen da identitatea sorlekuari loturik. Aipatzekotan, beste ezaugarri batzuei loturik joaten da, multzo gisa normalean, baina esanguratsua da ezaugarri hau aipatu izan den kasu guztietan eztabaida sortu dela, eta batzuek erabat ukatu dutela nazioa sorlekuari loturik egon ahal izatea. Euskara ere oso indar gutxiz agertzen da paper hori betetzeko, beherago ikusiko dugunez. Eta noizbait identitatea ezaugarri multzo bat bezala ere ulertzen da, agian modu libreago batez normalean aipatzen direnak sartzeko: sorlekua, sentimendu orokor bat, kultura, hizkuntza edo ohiturak; baina, askotan ere, ezaugarri politikoak: herriaren alde lan egitea, independentzia, autodeterminazioa, eta halakoak.

Non datza, orduan, nazioaren oinarria periferiako abertzaleentzat? Sentimenduan, duda barik; hori da gehien aipatzen den ezaugarria. Zer da, ordea, *sentimendua*? Ez dago erraz erantzuterik, ideia bat baino gehiago isla baitaiteke hitz horren atzean, baina, oro har, nazioa oinarritzeko ezaugarri politikoak hobesten direla ematen du; hots, borondatea eta lurraldea. Horrekin, adieraztera ematen da euskal nazioaren kide izateko jarrera kontzientea behar dela; Euskal Herriaren aldeko sentimendu bat, Euskal Herriko biztanle guztiak ez dutena.² Euskal Herria *sen* -

titu egin behar da, eta sentimendurik ez badago, alferrika-koak dira beste ezaugarri guztiak, hala nola, hemen jaioa izatea, euskaraz egitea, eta abar. Iritzi nagusi hori argi ro jasotzen dute Karrantzako kide bik:

— ... para ser vasco se tiene que sentir vasco. Si no, no eres vasco.

— Sí, si no te sientes vasco, por mucho que digas yo he nacido aquí y soy de aquí...

Baina nola lortzen da sentimendu hori; nola heltzen da pertsona bat Euskal Herria sentitzera? Solaskide gehienek ez dute hau argitzen, eta berez sortuko litzatekeen zerbait gisa uzten dute normalean. Tuterako kide batek, orde, gehiago zehazten du prozesua, eta argi uzten du sentimendua borondateari (borondate politikoari, zehatzago) loturik ulertu behar dela:

— Bueno, yo el sentirme vasco, [...] pues, por lo mismo que te puedes llegar a definir como una persona más a la izquierda o a la derecha, culturalmente yo me he ido confeccionando como persona; y entonces me considero una persona vasca porque no siento como identidad nacional más que la patria vasca, [...], es un tema que me he ido forjando poco a poco...

Sentimenduak islatzen duen borondatea da, beraz, gehien aipatzen den ezaugarria, baina askotan agertzen da borondatearekin batera erabiltzen den beste ezaugarri politikoa ere: lurraldea. Hemen bizitzeari (lurraldeari, beraz) garrantzi handia ematen zaio, eta beti argudiatzen da beste inork sorlekuaren garrantzia defendatzen duenean. Karrantzako kide batek ezaugarri politiko biak, borondatea eta lurraldea, esaldi labur batean batzen ditu, eta, horrela, euskal herritarra nor den galdetzean, zera dio:

— Una persona que vive en Euskal Herria y que con sus ideas se define vasco.

Euskararen garrantzia periferia erdaldunean bizi diren abertzaleen arabera

Periferiako abertzale erdaldunek ez diote ia aipamenik egiten euskal nazio teorikoaren ardatza den euskarari, identitatea, oro har, sentimenduan eta lurraldean oinarritzen dute eta. Elkarrizketan denbora bat pasatuta, eta eurek gaia ateratzen ez dutela ikusita, zuzenean horretaz galdetzen zaienean, euskarak garrantzi handia duela esaten da gehienetan, nahiz eta batzuetan garrantzi hori teorikoa izan, diskurtso ofizialak hala esaten omen duelako, Tuterako kide batek aipatzen duenez:

— Yo pienso que es lo más importante, porque el idioma dicen que hace el país...

Horrez gain, denek aitortzen dute euskararekiko maitasuna, eta ikastea ederra izango litzatekeela diote. Euretako asko euskara ikasten ahalegindu da, baina ezin izan du, a rrazoi asko direla eta. Itxaropen handia ipintzen dute, orduan, hurrengo belaunaldiek ikasiko dutelakoan. Hala ere, maitasun horrekin batera interes politikoa ere sumatzen da zenbaitetan. Tuterako taldean, batez ere, euskara ikasteari garrantzi handia ematen zaio nazionalismoa indartzen duelako.³ Hona iritzi bi:

— ... yo lo veo muy importante, sobre todo por el tema educativo, y sobre todo por el tema nacionalista; es decir, el idioma es fundamental...

— ... que el chaval que aprende el euskera [...] lo va a amar y va a tener un sentimiento nacionalista.

Baina hemen ardura zaigun gaira itzulita, euskal nazioa osatzeko, zer garrantzi ematen diote periferiako abertzaleek euskarari? Orokorrean (partaide bakar baten salbuespenarekin), euskararen garrantzia azpimarratu ondoren, iritzi esanguratsu bat gaineratzen dute gehienek; hots, euskara ez dela halabeharrezkoa euskal identitatea ezartzeko. Garrantzitsua, bai; ezinbestekoa, ez. Karrantzako kide honek ederto islatzen du periferia erdalduneko abertzale baten ikuspuntua gai honen aurrean:

— ... pero no quiere decir que por eso, por no saber el idioma, deje de ser menos vasco.

Euskal nazioaren ardatza euskaran ipinita ere, periferiako abertzale erdaldunak ez dauka zalantzarik bere euskal herritartasunaz, eta oso modu erabatekoan baiesten du. Are gehiago, gehienetan (adinekoen artean, batez ere) kontziente da erdaldun izaten jarraituko duela, eta bere euskal herritartasuna horrela bizitzeko eskubidea aldarrikatzen du. Gobiareneko kide honek euskarari buruz aipatu ditugun jarrera guztiak islatzen ditu:

— Yo por ejemplo no hablo euskera, por desgracia; me gustaría hablarlo, pero yo defiendo el euskera, porque es de esta tierra, es un patrimonio. Entonces, a mí que alguien venga diciendo que es que..., como hay gente que dice, que es que queremos imponer el euskera y queremos quitar el castellano, eso a mí me parecen elucubraciones que hace la gente. [...] Es que no, no hay que imponer ninguna de las dos, ¿no? Yo es lo que creo. Entonces, para mí no es vasco ése [hots, euskara inposatu gura duena], el que niega al que quiere ser vasco.

Identitatea politikari loturik

Gai garrantzitsu bat geratzen da, euskal nazioaz hitz egitean, periferiako abertzaleen artean behin eta berriro eta arlo guztietan agertzen dena, nazionalismoak duen eragina, alegia. Periferiako identitatea oso identitate politikoak, eta politizatua, da, hainbat aipamenek frogatzen duenez. Hona Gobiareneko kide batena:

— ... una de las bases para sentirme vasca es haber nacido aquí, y hombre, vivir en un entorno. Claro, yo también me relaciono con gente más o menos [...] abertzale y nacionalista, y entonces, eso también [...] me ha dado información que yo no tenía.

Politikaren eragin horrek konpromiso bat eskatzen dio euskal herritarri: jarrera aktiboa lantzea Euskal Herriaren interesen alde, dela kulturean, dela ekonomian, eta abar. Ez da argi geratzen interes horiek zeintzuk diren, baina bai hemengoa ez defendatzea euskal herritartasunari uko egitea izango litzatekeela. Salbuespenak salbuespen (erabatekoak, batzuetan), euskal herritarra izateko, abert-

zalea izan behar delako iritzia nagusitzen da, definizioz abertzaleak Euskal Herriaren alde egiten du eta. Era horretara, ez da arraroa euskal herritartasunari helburu politikoak lotzea, Karrantzako kide honek egiten duen bezala:

— Para mí ser vasco significa [besteak beste] [...] la independencia, que nos dejen decidir por nuestra cuenta, que haya trabajo para todos...

Politizazio horren aurrean, normaltzat jo behar da komunikabideetatik abertzaletasunaren kontra datozen erasoak modu berezian sentitzea, agian periferian ageriarago geratzen dena. Askotan entzuten da kanpoko eraso politiko horiek areagotu egiten dutela euren euskal herritartasuna (abertzaletasuna). Karrantzako gazte batek honela azaltzen du:

— No sé, yo cuando más vasca me empecé a sentir [...] cuando ves la televisión y ves lo que pasa y lo que dicen, y no sé, cosas que tú no sabes si son verdad o no, pero que te sientan mal, porque son gente como tú, son gente de tu pueblo. Te sientes mal, y ves lo que dicen sobre los vascos, y no te gusta, porque no.

Identitatearen politizazio horrek etengabeko termino nahastea dakar ondorio gisa. Egia esan, ezin da ulertu bata bestea gabe, eta azkenean euskal herritar eta abertzale kontzeptuak sinonimo bihurtzen dira. Adibide bat ipintzearren, Euskal Herriaren kontrako erasoak direla eta, Gobiarneko batek argi utzi nahi du elkarrekiko errespetua nagusitu beharko litzatekeela, baina euskal herritar guztiak nazionalista izango balira bezala ari da:

— Claro, porque es que, para mí, ser nacionalista no es ser antiespañol ni anticatalán ni antinada, es sentirse de tu propio pueblo. Pero que yo puedo hablar perfectamente con alguien que no se sienta vasco [Euskal Herriari, alegia], pero se los respeto. (sic)

Honek, euskal herritar izateko, baldintza politiko batzuk betearaztera darama, eta baldintza horiek betetzen ez dituenak ezin du bere burua euskal herritartzat jo. Oso esanguratsua da, aldiz, euskara ez dela erabiltzen baldintza

gisa (kasu bakar batean izan ezik), hots, euskaraz ez egiteak ez du euskal herritartasuna ukatzen, baina bai politikoki abertzale ez izateak.⁴ Beraz, hala nahi izan arren ere, Karrantzako kide batek ukatu egiten die abertzale ez direnei (PPkoez ari da, zehazki) euskal herritar izateko aukera:

— Se llamarán vascos, pero no son vascos, porque están en contra de todo lo que es la cultura vasca. Entonces, por mucho que se digan vascos, no son vascos.

Amaitzeko, euskal identitatea sentimenduan datzala, borondatean oinarritua, erabaki politiko baten ondorio, eta abertzale izateari lotua dela adierazteko, Tuterako kide honen deskripzioa jasoko dugu:

— ... yo, por ejemplo, mi padre es inmigrante, y mi padre sigue sintiéndose español y mis padres siguen sintiéndose españoles. Yo, sin embargo, he optado por no sentirme español y por sentirme vasco [...] unos poquísimos hemos optado por sentirnos nacionalistas vascos, y la gran mayoría, tanto por parte de inmigrantes, como propiamente hijos de Tudela, han optado por lo que aquí es normal, sentirse españoles; navarros y luego españoles...

Euskal herritar izatea erabaki dut

Aurreko aipamenak ondo batzen du periferiako abertzale erdaldunek euskal identitateaz duten ideia, elkarrengandik urrun egon arren, aztertutako leku guztietan errepikatzen dena: alde batetik, euskal herritar izatea borondatezko erabaki bat da, euskal herritar izateko sentimendu orokor batean gauzatzen dena; eta bestetik, erabaki politiko bat da, ideia politikoei lotua.

Garrantzitsua da sentimendua eta alde politikoa batzea, sentimendua ezaugarri etnikotzat ere har liteke eta. Hau da, nazioaren teorian eredu nagusi bi ageri dira: etnikoa eta politikoa. Lehenaren arabera, sentimendua arraza edo etnia bateko kide (hemen jaioa izatea, arbasoak hemengoak izatea, ezaugarri biologiko batzuk edukitzea...) izateari loturik joango litzateke. Bigarren ereduaren arabe-

ra, ordea, sentimendua borondateari (hala nahi delako) edo lurraldeari (hemen bizitzea) baturik agertuko litzateke.

Bietatik, beraz, Euskal Herriko periferiako abertzale erdaldunek eredu politikoa hautatzen dute erabatez, eta oso jaramon txikia egiten diote eredu etnikoari. Eredu politikoa ren ezaugarriak —borondatea eta lurraldea— dira behin eta berriro aipatzen direnak, kontzeptu abstraktu eta oso gaizki definituaren bidez emanak: sentimendua, alegia. Ez da azaltzen zer esan nahi den sentimenduarekin, baina argi ageri da Euskal Herrian bizi diren guztien esku dagoela, horretarako ageriko borondatea erakusten badute.

Eredu politiko hori, ordea, estaturik ez duen nazio batean garatu nahi da, eta horrek baldintza batzuk ezartzen ditu. Estatu batean garaturik, eredu politikoak biztanle guztien herritartasun orokorra aldarrikatzera eramaten du; estaturik ez duen nazioan, berriz, ezin da hala gertatu. Estaturik gabeko nazioen ametsa estatua eraikitzea eta estatuek ohi duten eran aritzea da, herritartasun orokorra aldarrikatzea, kasu. Baina, hori lortu bitartean, jarrera politizatuagoa eta konpromiso handiagoa eskatzen diote herritarrari. Horrela ulertzen da adskripzio politikoa horrenbesteko garrantzia ematea, estatu batean ez bezala. Lehenengo helburua estatua eraikitzea da, eta hortik dator, nazio identitatea eta adskripzio politikoa nahasturik, nazio identitatea estatu bat eraiki nahi dutenei loturik ulertzea.¶

-
1. Eztabaida talde hauek 2003-2004 urteetan egin ziren Gobiaren, Karrantza eta Tuteran, Euskal Herriko Unibertsitateak lagundutako 1/UPV 00018.230-H-1593/2003 ikerketa proiektuaren barruan. Taldeetan 4 eta 7 pertsona bitarte bildu zen: denak bertan jaiok edo bertan urte asko bizitzen eramanda; emakume eta gizonak, eta adin desberdinekoak. Aldagai (EAJ, EA, Aralar, Batasuna eta zehaztu gabeko jarrerak) eta konpromiso maila desberdinetako abertzaleak ziren, eta erdaldunak, euskararen nolabaiteko ezagutza maila eduki arren kasu batzuetan, Karrantzako D ereduko gazte batzuen, batez ere.

2. Mayor Oreja etengabe agertzen da jarrera hori adierazteko.

3. Oro har, elkarrizketan zehar Karrantzan garrantzi handiagoa

ematen zaio euskarari, gazteenen artean batez ere. Tuterako tal-

dean, bestalde, politizazio maila handia sumatzen da, eta euska-

raren garrantzia helburu nazionalistei loturik agertzen da.

4. Gobiaranen ados daude denak Mayor Oreja euskal herritarra ez

dela adieraztean.

Etorkizuneko telebistaren itzalak eta argiak



CARMEN PEÑAFIEL / NEREIDA LOPEZ /
AINHOA FERNANDEZ DE ARROYABE



Helburuak

Igorpen analogikoaren akabera 2012. urterako iragarrita egon arren,¹ 2003. urtean telebista digitala indarrean jarri da. Baina iraultza teknologikoarekin batera, telebista bera ulertzeko, ekoizteko eta kontsumitzeko, globala den filosofia berri bat ere nagusitu da, zeinak bi telebista sistema ondorioztatzen dituen: orotariko telebista masiboa eta ordainpeko eskaintza tematikoa, alegia. Bi telebista eredu hauek *herrixka globalak* konpartitzen duen unibertso sinboliko bakarraren sortzaileak dira. Izan ere, mundu osoan eta aldi berean, bai eredu baten edo bestearen programazioetan, eskema berberak errepikatzen dira etengabe. Eta beraz, frantziar, estatubatuar edota errusiar telebista eredu artean ez dago oinarrizko ezberdintasunik: herrialde guztietan mekanika berbera duten programak kontsumitzen dira, eta hauen bitartez, bertako teleikusleek egun nagusi den mundu ikuskera bakarrarekin bat egiten dute.

Globala den testuinguru honetan, bi telebista eredu indarrean egotearen arazoia ekonomikoa dela argi ikus daiteke. Honela, teleikusleen gehiengoak nahiago dituen edukiak jasotzen ditu, orotariko kateen bidez dohainik,

► **Carmen Peñafiel** eta **Nereida Lopez** EHUko Kazetaritza Saileko irakasleak dira. **Ainhoa Fernandez de Arroyabe** EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Saileko irakaslea da.

publizitate tarte erraldoiekin batera. Orotariko telebistaren edukiek, egunerokotasuna ikuskizun bilakatuz, munduaren isla desitxuratua lantzen dute. Honi esker, gero eta nabariagoa da orotariko telebistak zabor telebistaren ezaugarriak bereganatzen dituela. Ikusleak, zeharka ordainduta, zerga bidez edota publikitatea irenstearen truke, zabor telebistaren edukien artean aukeratzeko askatasuna duela ematen du.

Bien bitartean, ordainpeko telebista sortzen da zabor telebista nahi ez duen ikusle goaren beharrak asetzeko. Bigarren talde horrek kuota bat ordaintzen du gaika antolatutako eskaintza bereizitua jasotzeko, eta, batez ere, hainbat ikuskizun eksklusiboz gozatu ahal izateko; telebista horretan ez dago publikitate-tarterik. Gauzak honela, bi ereduak, herrixka globalaren balio sistema bakarra ezartzeaz gain, teleikusleen eskubideak pribatizatzen dituzte. Hots, gehiengoan orokortasunarekin konformatu nahi ez duenak, beste zerbait jasotzearen truke ordaindu behar du. Etorkizuneko telebistak muturreko bi eredu hauek biziki bultzatzen ditu, eta, hortaz, telebista zerbitzu ireki eta orokorra izatetik, ordainpeko sistema pribatuan bilakatzeko ordua gero eta hurbilago dagoela onar daiteke.

Honekin batera, ezin da ahantzi ekoizpen sistema globala indarrean jarri dela. Herrialde ezberdinetako ikus-entzunezko enpresak lan sistema kanonikoak bereganatzen ari dira; edukiak jorratzerakoan, patroik globalak erabiltzen dituzte. Eduki horien barruan sartzen dira tokikotasuna² eta giza sormena, baina modu oso mugatu batean.

Azken batean, formatu kanonikoa lekukotasunaren izaera topikoekin uztartuz, produktua bereiztea lortzen da. Honen adibide dira *Tela marinera* (Canal 9) eta *Lo que faltaba* (ETB2) magazinak; prentsa arrosa ren tratamendua burutzean tokikotasunari ematen dioten garrantzia aztertzerakoan hauxe aurki dezakegu: bi programek jorratzen dituzten gaiak, eguneroko berriak, berberak dira, baina ez berauei buruz hitz egiteko modua edo ikuspuntua. Valentziako telebistako saioan lekuko izaera kritikoa eta irekia nabarmetzen den bitartean, *Lo que faltaba*-k euskaldunen umore beltzari lekua egiten dio. Etorkizuneko telebistak,

tokikotasunaren gainean duen ideia murriztaren ondorioz, berezko nortasun ezaugarriak postaletako irudi bihurtzen ditu. Era berean, orokortasunaren balioak gero eta esparru zabalagoa bereganatzen du imajinario komunean.

Baina dudarik gabe —telebistaren estandarizazioarekin lotzen den bigarren aldagaia—, profesionalen sormen ahalmena murrizten da. Egungo telebistak hainbat eduki behar ditu, baina hauek formatu jakin batzuen arabera eraikita egon behar dute. Ekoizpen etxeek, edukiak baino, berauek jorratzeko lan sistema antolatzen dute, azken batean formatu kanonikoaren arrakasta bilatu behar baita. Testuinguru honetan, edukiak asmatu, proposatu edota molde berriak plazaratu nahi dituzten profesionalen aukerak erabat itxita daude. Lana mekanizatuta dago, telebista saioa erabat industrialia den ekoizpen sistemaren menpe dago. Dinamika honi esker, bai orotariko zein ordainpeko telebista eredu programazioak eta eskemak etengabe errepikatzen dira, eta, honek, gizartearen baitan sendotzeko indar handiagoa ahalbidetzen die.

Orain arte, telebista digitalaren ibilbidearekin batera munduan agertu eta indartu diren bi telebista sistema edo eredu nagusien ezaugarri orokorak aipatu ditugu, baina gure artikulua xedea eredu hauek espainiar estatuan nola sendotu diren argitzea da. Eta esparru honetan berebiziko garrantzia duen fenomenoarekin topo egiten dugu: TV3eko eredu alternatiboarekin, alegia.

Hirugarren eredu hau, katalanen eredu alegia, aspalditik egon da indarrean Katalunian. Teknologia zaharrak zirela eta, ordea, bere hedadura eta eragin eremua erkidegora mugatuta egon da. Orain, teknologia berriei esker, mugarik ez dago, eta berezko maitasuna, espezializazioa eta kalitatea eskaintzen dituzte sistema alternatibo horretan lau haizeetara. Hortaz, eta aurrera jo baino lehen, hirugarren bidearen ezaugarri nagusiak plazaratzeko beta hartuko dugu: lehenik eta behin, tokikotasuna osotasunez irakurtzen duen paradigma dela onartu behar dugu Kataluniako telebistarena. Izan ere, bere programazioaren helburua kataluniar hizkuntza eta nortasun bereizgarriaren araberako edukiak eraikitzea da. Honekin batera, pro-

gramazioak kalitate label bat betetzeaz gain, ikuslego tasa handia eskuratu behar du, baita ere. 2001-2002 denboraldiko emaitzen arabera,³ katearen batez besteko *share* osoa %21,4 izan zela kontuan hartuta, argi dago aipatutako helburuak bete zituela.

Hala eta guztiz ere, erronka ez da nolana hikoia, batez ere kateak formatu berriak hedatzeko egiten dituen ahaleginak kontuan hartzen baditugu. Zentzu honetan, hirugarren eredu honek Kataluniako ikus-entzunezkoaren alorra garatzen laguntzen du, eta, bide batez, formatu berritzaileak plazaratzea ahalbidetzen du. Kataluniako telebista estatuko abangoardistena dela aspaldi frogatu zen, eta horren lekuko dira etengabe ekoizten dituen *tv movie*-ak.

Hori guztia kontuan hartuta, artikulua helburu nagusia hau da: teknologia digitalarekin batera espainiar estatuan indarrean zeuden telebista ereduak eta jaiotako berri den ordainpeko eskaintza tematikoaren azterketa sakona egitea. Hots, egun indarrean dauden hiru telebista ereduak ezaugarriak eta funtzionamendua zehaztea: industriaren banaketa, estrategia bereizgarriak eta ikusleerako harremanak zehaztea. Azken batean etorkizuneko telebistaren argazkia egin nahi genuke.

Orotariko telebistaren bi ereduak

Teknologia berriak orotariko telebistaren esparruan indarrean dagoen eredu nagusiaren hedadura bultzatu du espainiar estatuan, baina honen ondoan Kataluniako alternatiba ere indarrean mantentzen dela onartu behar da.

Eredu nagusi eta orokortzailea, audientziaren epaiaren menpe

Audientziaren gehiengoaren nahiak asebetetzen dituen ereduak zabor telebistaren⁴ fenomenoak bultzatu dituela nabarmendu dugu. Izenburu honekin ezagutzen den telebista estiloak, inolako muga etiko edo moralik gabe, eduki espektakularrak eta morbosak kaleratzen ditu. Te-

lebistaren helburu merkantilistak, iragarleei audientzia tartea saldu ahal izateko, ahalik eta ikuslego gehien eskuratzea eskatzen du. Baina telebista eredu honek, ekonomikoki egokia den bidea zabaldu duela argi utzi duen moduan, etikoki eztabaida sakona piztu du aldeko eta kontrako adituen artean. Zabor telebistaren defendatzaileak (Bueno 2002) eredu hau inoiz ezagutu ez dugun demokrazia zuzenaren emaitzarik garbiena dela argudiatzen du. Filosofoaren ustez, urrutiko agintea, etxe guztietako egongelatan —eta hainbat logelatan— aurkitzen dugun ohiko tramankulua, berdintasunaren bermea da. Azken batean, bere bitartez gizartearen gehiengoak jaso nahi dituen edukiak aukeratzen ditu. Ikuspegi honetatik, telebista eredu nagusi hau ontzat hartu beharko litzateke.

Baina gauzak ez dira hain errazak, izan ere eskuragarritasunaren auzia kolokan jartzen dutenak ere badira (Cubels 2003). Hauen ustetan, ikusleak telebistaren leihotik zabaltzen zaizkion uharteen artean gustukoena aukeratzen du; beraz, produktuak erakusleihoan jartzen dituenak mugatzen du gailentzen den azkenengo hautaketa. Gauzak honela, neurri handi batean, zabor telebistaren arduradunak programatzaileak izango lirateke. Baina, noski, berauek katearen misioaren arabera egokitzen dute lana, eta, beraz, enpresaren filosofiaren arabera da kateak igortzen duen programazio eredu. Nolanahi ere, audientzien menpekotasunean bizi den sistemak berezkoak diren zenbait ezaugarri ondorioztatzen ditu:

- Ikuslegoaren gozamena bermatzea da gakoa. Edukiak modu sinplean⁵ landuak izateaz gain, telebista iraganeko ferian bihurtu da. Honela, barraketako ikuskizun krudelen amu ziren gizaki desitxuratuak berpiztu, eta leihatila laukiaren protagonista bihurtu dira. Baina *freak*-ak ez dira parte-hartzaile bakarrak, izan ere ikuslea bera zirkuaren pista nagusian lekua duen atrakzioan bihurtu da. Edozein kalekumeren atsekabe edo xelebrekeriek, arretera erakartzeaz gain, jakin-mina, barrea, pena edo denbora pasatzeko tarte goxoa eskaintzen dute. Ikuslea ikuskizunaren parte bihurtu da eta imajinario katodikoak dramatizatutako errealitatearen isla barreiatzen du.

- Edukien ikusgarritasun eta sinpletasunarekin batera, programazio kanonikoaren fenomenoaren ematen da. Hots, kanal ezberdinetan dauden programazioen eskaintza oso berdintsua da, eta berez produktua ezberdintzeko irizpideak bi izango dira: batetik, aurkezleak marka ikurra dira egun, eta, bestetik, enpresek formatuak egokitzeko orduan garatzen duten lan sistema ezberdintasunerako tresna nagusizat hartu behar da. Modu honetan, komunikatzaileak eta lan egiteko prozedura bereizgarrien ezagutza, *know how*-a alegia, produktua bera baino garrantzitsuagoak dira.

- Antzekotasun honek telebista generoen arteko mugak desitxuratu ditu. Egun, eduki batek *magazin*, *talk show* edota *teleuality*-a erraz uztar ditzake, hau da, generoen nahastea eman dela nabarmendu nahi genuke. Fenomeno honen isla zuzena kateek euren saioak genero batean finkatzeko orduan dituzten zailtasunek erakusten dute, eta, honen ondorioz, *miscelanea* terminoarekin izendatzen dituzte sailkaezinak diren edukiak.

- Era berean, parrillen arteko antzekotasunak industriaren polarizazioa dakar. Gauzak honela, enpresek kanal ugarituen esparru komunean txokoak eskuratzeko orduan bi aukera dituzte: indarrean dauden formatu globalak tokikotasunaren arabera egokitu,⁶ edota eduki finko batean adituak izan. Ekoizpen enpresa guztiak muturreko bi estrategia hauen barruan finkatzen dira, eta, bide batez, ikus-entzunezko merkatuaren banaketa egitura hierarkiko eta piramidalaren arabera antolatzen da.

- Ekoizpena arrisku bihurtu da. Egun produktu baten funtzionamendua ziurtatzeko denbora epeak oso urriak dira.⁷ Ikuslegoak ez badu segituan programa onartzen, parrillatik at kanporatzen da. Enpresak bereganatzen dituen galerak ez dira nolana hikoak, eta hauek ekiditeko modu bakarra eredu orokorren egokitzapena burutzea izan da. Argi dago sormena alde batera dagoen bidea dela. Ildo beretik, telebista kateak gero eta berezko ekoizpen urriagoz arduratzen dira; arriskua ekoizpen-etxeen gain egonda, merkatuaren banaketan indarrean dagoen egitura piramidalararen behin betikotasuna areagotzen da. Joera honi jarraitzen dioten kateek, barne ekoizpenaren erdiaz ardura-

tu arren, gainontzeko tartea estatuko ekoizpen etxean esku edota nazioarteko merkatuan eros daitezkeen formatu orokorrekin estaltzen dituzte. Hirukotea, Telecinco (barne produkzioaren %55,3 egiten du), TVE1 (honek %55,5 onartzen du), eta Antena 3 dira. Baina hiru kate hauen magaletan beste hainbat kate autonomiko ere lotu dira, Telemadrid, Canal Sur eta Canal 9 (azken hau pribatizazio prozesu sakonean murgilduta dago gaur egun). Nahiz eta kate hauek barne ekoizpen tasa handiagoak izan, beste edozein helbururi baino orokortutako edukiak egokitzeari lehentasuna ematen diote. Eta, beraz, kate nagusien taldearen parte direla adierazi nahi genuke.

Honekin batera, ezin da ahantzi teknologia digitalari esker merkatuaren liberalizazio prozesu geldiezinaren abiadura bikoiztu dela. Kateak ugaltzen diren neurrian, ikusle goaren multzoak berbera jarraitzen du izaten, eta instituzioek norgehiagoka bermatzeko legediaren traba guztiak alde batera uztea ezinbestekoa dute. Litekeena da, etorkizun hurbilean, kate komertzial eta publikoen arteko ezberdintasunak ezabatzea.⁸ Izan ere, ikus-entzunezko jarduerak arautzen dituen legedian emandako aldaketek norabide hau baieztatzen dute. Telebista publikoak eskaini behar duen zerbitzuaren berridazketak zeresan handia du liberalizazioan ibilbidean. Egun, eta 2003ko Estatuaren Aurrekontuen Laguntzarako Legeak iradokitzen duenaren arabera, zerbitzu publikoaren definizio berria honakoa da:

La producción y emisión de un conjunto equilibrado de programaciones y canales generalistas y temáticos, de radio y televisión, que integren programas diversificados, de todo tipo de géneros, con el fin de atender las necesidades democráticas, sociales y culturales del conjunto de los ciudadanos, garantizando el acceso de la ciudadanía a información, cultura, educación y entretenimiento de calidad. (...) A estos efectos, las programaciones de RTVE, compatibilizan, el objetivo de rentabilidad social con el principio de eficiencia económica.⁹

Baina honekin batera, oso kontuan hartzekoa da telebista baten jabegoaren inguruko mugak ere berridatzi direla. Maiatzaren 3ko 10/1998 Telebista Pribatuen Legeak

adierazten zuenaren arabera, enpresa batek ezin zituen bi telebista kate ezberdinen akzioak eduki, ezta telebista kate baten akzioen %49 baino gehiago eskuratu ere. 2002ko urriaren 6tik aurrera, eta Telebista Pribatuaren Legea birmoldatu ondoren, aurreko baldintzak bertan behera geratu dira. Honek eragiten du enpresa batek telebista kate baten akzioen %100 eskuratzeko ahalmena duela. Etorkizuneko telebistak botere ekonomikoaren eta komunikabideen jabegoaren arteko zubia eraikitzeke bidea zabaldu du. Honekin batera, adierazpen askatasuna kolokan izango delako kezka plazaratu daiteke.

Kataluniako paradigma, nortasuna eta abangoardiaren alde

Orotarikoko telebistaren eredu nagusi honen ondoan, Kataluniako telebistaren paradigma alternatiboaren sistematik edukien kalitatea eta audientzia kuota altuak lotzen ditu. TV3en oinarritzko filosofia honakoa da: kataluniar nortasun, hizkuntza eta jatorrizko ezaugarri bereizgarrien araberrako programazioa eraikitzea da. Baina tokikotasunaren erronkak audientzia eta kalitatea ere uztartu behar ditu.

TV3 ha de ser la cadena de referència en informació. Els programes informatius diaris i no diaris han de ser l'eix vertebral de la nostra graella.

TV3 ha de ser referència de qualitat. Tots els seus programes han de tenir un mínim de qualitat en els seus continguts i en la seva forma que sigui perceptible en el públic que, d'aquesta manera, considerarà TV3 com a cadena generalista amb una millor oferta de servei públic.

TV3 ha de ser referència de seguretat. La graella ha de ser al més estable possible adequant-se als hàbits de consum del públic majoritari en cada una de les franges horàries.

TV3 ha de ser referència per configurar una línia de programes dramàtics i documentals que la diferencien de la resta de cadenes.¹⁰

Abiapuntua kontuan hartuta, eredu alternatiboa sormenaren bultzatzailea ere badela onartu beharra dago. Ere-

duak telebista formatu berrien ikerketa etengabe burutzen du, eta, dagoeneko ukazina da estatuan dagoen telebistarik aurreratu, gaurkotu eta abangoardistena dela. TV3ek kataluniar ikus-entzunezko industriaren alorra indartu eta sakondu nahi duenez, koprodukzio sistema jartzen du abian. Hau da, kateak programazioan txertatu nahi dituen edukiak definitzen ditu, ondoren berauek ekoizteko deialdia zabaldu eta aurkezten diren enpresen proiektuen artean proposena aukeratzen du. Honela, enpresa eta katearen arteko hitzarmena sinatu ondoren, formatua eraikitzen da. Katea eskubideen jabea da, eta, noski, edukiaren produkzio prozesua bertikalki kontrolatzeaz gain, kalitate labela ere zaintzen du. «Tots els seus programes han de tenir un mínim de qualitat en els seus continguts i en la seva forma que sigui perceptible en el públic».¹¹

Formatu berriak egokitzerakoan tokikotasuna,¹² berrietasuna eta ikuspuntu abangoardista uztartzen dira. Bide honetatik, kataluniarra *docushow* eta *tv movie* bezalako formatuen aitzindariak direla nabarmendu behar da. Azkenengo fikziozko molde honi so eginez, TV3ek kokapen abangoardista gailentzen du. Izan ere, kataluniarrek lehendabiziko *tv movie*-a, *Carles Princep de Viana*, 1999an kaleratu zuten, ICC Institut de Cinemá Catalá delakoarekin batera. Estatuko gainontzeko kate eta baita ekoizpen etxeek 2001. urtetik aurrera formatu honen fikziozko produktuak sortzeari ekin zioten. Hala eta guztiz ere, 2003. urtera arte *tv movie*-ak ez ziren Espainiako merkatuan sartu. *Tv movie*-en promozioaren harira, aipatu beharra dago Cinema del Mediterrani delako Valentziako Mostraren barruan, Pitching Tv-movies Foroan,¹³ erkidegoetako kate publiko zein estatuko kate pribatuek formatu berri hau bultzatzeko konpromisoa hartu zutela. Aldi berean, kate hauek guztiek *tv movie*-ak ekoizteko koprodukzio proiektu guztiak 2003an finkatu direla ere nabarmena da. Dagoeneko Kataluniako telebistak fikziozko formatu honen biltegi zabala dauka.

TV3ek bultzatzen duen sistemaren abantaila, neurri handi batean behintzat, ekoizpenaren antolamenduan finkatu duen politikan datza. Izan ere, barne produkzioa

%56,2 da eta kanpoko, berriz, %32,2, eta kateak kontrolatzen duen ekoizpen tasak guztira %88,4 suposatzen du. Hots, esparru honetatik at dauden edukiak urriak diren moduan, kataluniarrak ez diren ekoizpen-etxeen parte-hartzea ez da inondik antzematen. Dena den, berezkitasuna defendatzen duen sistemak erkidegoko instituzioen laguntza ezinbestekoa du, eta legediaren harira, Kataluniako *Conseill del Audiovisual*¹⁴ erakundearen lana berebizikoa dela ere onartu beharra dago, edukien kalitatea eta hizkuntza gogoki babesten baititu.

Badira, orain arte deskribitu dugun paisaia katodikoaren barruan, aipatu ez diren kateak, ETB eta TVG, hain zuzen ere. Bi kate hauek kanpo-produkzio tasa handia bereganatzen dute, baina edukien gainean burututako irakurketa dela eta, ezin dira erabatekotasunez ez lehenengo sistemaren barruan finkatu, ezta bigarrean ere. Tarteko esparru imajinarioan daudela esango genuke, tokikotasunaren eta orokortasunaren erdi bidean. Hots, bi kateek dagozkien komunitateen hizkuntza, izaera eta bereizgarritasun soziokulturalak kontuan hartzen dituzte, eta baita ere magalean sortutako jatorrizko industria; baina ez dute tokikotasuna nortasunarekin lotzen, kataluniarrek egiten duten moduan behintzat. Eta, bestetik, bi kateek lantzen dituzten edukiak eredu orokorak indarrean jaritakoak dira; hortaz, formatu berriak sortzea baino nahiago dute globalak tokikotasunaren arabera egokitzea.

David eta Goliat orotariko telebistaren norgehiagokan

Espainiar estatuan elkarbizitzen duten bi orotariko telebista ereduaren kasuan, merkatua enpresen tamainaren eta garrantziaren araberako egitura piramidal eta hierarkiakoaren arabera banatzen dela ondoriozta daiteke. Dena den, Kataluniako telebistaren kasuan, egitura zorrotz honen izaera malguagoa da. Azken batean, kateak ekoizpean parte hartzeaz gain, bertako ekoizpen etxeen garapena bultzatzen du, eta honek nagusitasun egoerak suertatzeko aukerak gutxiesten ditu.

Salbuespenak alde batera utzita, ikuspegi zabala eta egoeraren argazki zehatza eskaini ahal izateko, analisisian estatuko merkatua bere osotasunean kontuan hartu dugu. Egitura hierarkikoaren maila bakoitzean finkatzen diren enpresa motak zeintzuk diren jorratzen du azterketak. Honela, sailkapenaren barruan dagoen talde bakoitzak zer-nolako edukiak lantzen dituen, eta berauek merkatu-ratzeko zer-nolako estrategia lehiakorrez baliatzen diren, argitu nahi dugu.

Ikuspegi orokorra islatzen duen fenomenoia izendatze-ko orduan, merkatuaren polarizazioa nabarmendu nahi genuke. Bi bide dira, egungo merkatuaren lehiakortasun maila bortitzaren aurrean, ekoizpen-etxeek hautatzen dituztenak: orotariko telebistaren ereduaren indarrean dauden formatu orokortuak egokitzea, edota espezializazioa lantzea. Polarizazioaren harira, azken urteetan ekoizpen etxeen sektorean ezagutu den hazkundera ulertzeko,¹⁵ sortu berri diren enpresen gehiengoa monoproduktoreak izan direla kontuan hartu behar da. Mota honetako produktoreak aditasunaren inguruan errotzen dira. Baina azpimarratzekoa da baita ere fikzioaren ekoizpenak ezagutzen duen oparotasuna, batez ere monoproduktoreen eskutik.

Ondoko taulak, hain zuzen, 2001-2002 denboraldian David eta Goliaten arteko norgehiagoka, edota espainiar estatuan emandako telebista merkatuaren banaketa bipolarra, grafikoki erakusten du.

Orotariko merkatuaren banaketa hierarkikoa

1. Ekoizpen etxe nagusiak

1.1. Buruzagiak

	TVE1	A3	T5	C+	TV3	ETB	TVG	Canal 9	TM	TVA
Grupo Endemol	X	X	X		X	X	X	X		
Globomedia		X	X	X		X			X	

1.2. Jarraitzaileak

Bocaboca		X	X							
Europroducciones	X	X	X							
Boomerang		X	X			X			X	

2. Bigarren mailako merkatuaren nagusiak

2.1. Anitzak: kate ezberdinetan txertatutako eduki sorta

	TVE1	A3	T5	C+	TV3	ETB	TVG	Canal 9	TM	TVA
Producciones 52	x						x	x	x	x
3 Koma 93						x			x	
ZZJ/Boomerang			x					x	x	x
Videomedia			x						x	
Martingala		x	x						x	
Miramón Mendi	x							x	x	
Prime Time Comunicaciones	x							x		
Splenders Ibérica	x							x		

2.2. Genero batean adituak

	TVE1	A3	T5	C+	TV3	ETB	TVG	Canal 9	TM	TVA
El Mundo TV		x					x	x	x	

2.3. Ekoizpen etxe bereizituak eta monoproduttoreak

- TVE1* BBC/ONCE, Breamo, Prodhler, Estarciera, Fremantle Media, Cartel/Calcón, Calleja Galiardo, Star Line Producciones, Grupo Ganga.
- Antena 3* Selecta Visión, Summers Producciones, Cuarzo Producciones, Pedro Marsó PC, Tesaurum.
- Telecinco* Asegarce, Walt Disney Televisión International, Anima 2, Capa LatAM, Buenavista Producciones, Lola Films, Atlas, servicios audiovisuales.
- Canal+* New Atlantis Transglobe Films.
- TVG* Nickelodeon, At Press/Faro TV, At Pres, Multimedia Lua, Olympus Comunicación, Tele 7, Adivina, Zopilote, Comunicassom, Pórtico de Comunicaciones, CTV, Formato vídeo, La región TV, Pórtico de Comunicación, Portozas Visión, Editorial Compostela, Voz Audio visual, Zenit Multimedia/Costa Oeste.
- TV3* Cibetel, Continental Producciones, Octubre Producciones, Benecé Producciones, Broadcaster, Mediapro, Mercuri, Dagoll Dagom, Diagonal TV, El Terrat Krampack, Ovidio TV, Laltragalta, In Vitro Films.
- ETB* K 2000, Eskena, Itesa, Kronos, Elhuyar, Abásolo, Igeldo Komunikazioa.
- Canal Sur* Signovisión, PC 29, Vamos a ver, Atico 7, Taller de Arte, FIT Producciones, Jondo Producciones, Paso al Sur/Pausoka, Videoplaning, Diagonal TV/Tiburón.

Canal 9 14WZY 180, Malvarrosa Media, Producciones Cibeles, Visual Producciones, Cartón Producción, Intercartel y varias, Adi Producciones, Trivisión, Star Line Producciones, Gabinete de Comunicación Global, Diagonal TV/Tiburón, Index Producciones.

Telemadrid El silencio, Vamos a ver, Banana, Diagonal TV/Tiburón, Pausoka.

Iturria: ikerketa proiektuaren kanpo lana.

Goliat eta genero nagusiak

Orotariko telebistaren edukien ekoizleen artean, bi enpresa talde ezberdinek banaketa mailakatuaren tontorra bereganatzen dute: lehenengo taldean, produktore erraldoiak eta merkatuaren buruzagiak agertzen diren bitartean, hots, Gestmusic-Endemol¹⁶ eta Globomedia Arbol,¹⁷ bigarrenen hauen jarraitzaile diren hiru ekoizpen etxe biltzen dira: Europroducciones, Bocaboca eta Boomerang, hain zuzen ere. Bi talde hauen ezaugarri komuna, telebista kate nagusien espamuak asetzeaz gain, ikuslego tasa gorenena eskuratzen dituztela da; eta, hortaz, ikus-entzunezko lehen mailako merkatuaren jaun eta jabe izatea lortzen dute. Dena den, ondokoak baino indar handiagoa eskuratzeko, lehiakortasun maila goreneko testuinguru honetan, bakoitzak berezkoak dituen tresna eta estrategiez baliatzen dira.

Produktore erraldioen indar nagusiak tamaina eta ekoizpen ahalmen handiak dira. Edozein erronkari aurre egiteko adina bitarteko dituzte, eta, beraz, enpresa talde hauen partaideek orotariko eduki izartsuen ekoizpen arriskutsuak hartuko dituzte beregain: ikuslegoak gustuko dituen *telereality* eta *late show* direlakoak.

2001-2002ko datuen azterketak Endemol eta Globomedia puntako formatuen gainean burututako berrikuntzen eta landutako estrategia lehiakorren berri ematen du. Ildo honetan, azpimarratu beharra dago Gestmusic-Endemol taldeak edukiak lantzeko garatu duen lan sistema bereizgarriak, edo *know how-ak*, lehenatasuna eman diola Globomediaen aurrean. Dena den, bigarren honek, formatu izartsuen birmoldapena landuz, kontraeraso interesgarria

burutu du. Azterketak, formatu izartsuen behin-behinekotasuna argi erakustez gain, etorkizuneko telebistaren lehiakortasun eremu eta estrategien berri ere ematen du.

Telereality-aren harira, Endemolen eskarmentu aitzindaritzak *Gran Hermano* saio arrakastatsua bosgarren emanaldia Telecincon txertatzeko aukera eman dio 2002. urtean, eta, aurrekoetan bezala, emaitza ezin hobekak jaso ditu (%32,7 batez besteko *share*-a,¹⁸ alegia). Norgehiagoka pertsona arruntan elkarbizitzan oinarritzen da, baina lehiakideen arteko harremanek ikuslegoa noizbait asper dezaketela aurreikusita, Endemolek *telereality*-aren formatua birrasmatzeari ekin zion. Honela, elkarbizitzarekin batera, parte-hartzaileen gaitasunak frogatzearen sustagarria nahastu zituen bere saio berriztatzailean, *Operación Triunfo* delakoan, hain zuzen ere. Saioak, ustekabeko arakasta izateaz gain (TVE1en ezin hobea den batez besteko *share*-a izan duela kontuan hartuta, %47,5, alegia), *telereality*-aren mugak hedatu eta norabide berriak zabaldu ere egin dituela ondoriozta daiteke. *Operación Triunfo*-k abeslarigai diren gazte taldea hautatu eta musika ikastetxe katodikoan biltzen ditu. Astero, trebakuntza frogak burutu ondoren, adituek zenbait lehiakide kaleratzea proposatzen dute, baina azkenengo erabakia ikusleen esku dago. Modu honetan, etorkizuneko telebistaren ezaugarri bereizgarri bat argi eta garbi indarrean dagoela onartu behar da, ikuslearen parte-hartzearena, hain zuzen ere. Hemendik aurrera, arakasta lortu nahi duen edozein edukik elkarreragiketarako sustagarri berriak bilatu behar ditu. Izan ere, egun, parte-hartzerako bitartekoak, SMSak edota telefono deiak, ikusleen telebista kontsumo ohituretan jadanik sendotuta daude, eta, telebista ikusteaz gain, ikuskizunean parte hartzea maite du ikusleak.

Baina badira ondoriozta daitezkeen bestelako ezaugarri baldintzatzaileak: saioetako lehiakideak ageriko pertsonaiaetan bihurtzen dira, merkataritza produktuetan alegia. Honek telebista saioaren eragin esparrua beste zenbait merkaturara nabarmen zabaltzen du. *Operación Triunfo*-ko parte-hartzaileak, edo *triumfitos* goitzenarekin ezagunak diren lanak, musika merkaturan indartsu txertatzen dira.

Eta, bide batez, pertsonaia-produktu¹⁹ hauen inguruan taldekatze²⁰ fenomenoaren ematen da. Audientziaren mesedetan dagoen telebista ereduari dagokionez, egonkortasuna suposatzen duen ezaugarria da ikusleen taldekatzearena. Honek produktua birziklapena dakar: abeslarien bitzitza pribatua magazinaren interesgunea da, eta ikuslegoa pertsonaia hauen atzetik bigarren programa hauek kontsumitzera ohitzen da. Baina eraginak harago doaz: lehiakide izartseuk, programaren marka eta katearen irudia ere gozoz indartzearekin batera, ikuslegoaren nazionalitate²¹ pertenenzia suspertuz, *Eurovision*, telebistaren hastapenetan erabateko garrantzia zuen saioa, berpiztea ere lortzen da.

Globomedia, *telereality*-aren mozkinak eta errentagarritasuna kontuan hartuta, esparru honetan murgildu da. Baina, aitzindariarekin lehiatzeko, berrikuntzak erantsi dizkio formatu izartseuari. Produktore honen saio nagusia *Supervivientes* dugu, Telecinco programazioan lekua hartu eta, aurreko bi formatuak baino emaitza urriagoak lortu arren (batez besteko *share*-aren %21), jadanik errotuta dagoen eredu dela ere onar daiteke. Globomediaren saioan, lehiakideek, inolako tresna edo gailurik gabe, eremu basati batean iraunbizitzeko erronkari aurre egin behar diete. *Supervivientes*ek, *Operación Triunfo*-k bezala, abilezia eta elkarbizitza batzen ditu. Izan ere, Globomediak tebetasunaren berrikuntza Endemolek baino lehenago burutu zuen saio honen bidez. Baina arerioen lan sistemak, eta bereziki musikak telebistan arrakasta lortzeko formulak iraganean bilatu izanak, *Operación Triunfo*-ren nagusitasuna ekarri zuen. Hau dela eta, telebista edukien lehiakortasunaren izaera aldatu dela ere onar dezakegu. Egun, eduki edo formatu bera baino garrantzitsuagoa da berau ekoizteko sistema edo formula bereizgarria, hots, estatubatuar esparruan *know how* moduan ezagutzen den kontzeptua.

Bestetik, Telecinco eta TVE1en *telereality*-aren formatu errotu den bitartean, Antena 3ek, nahiz eta Endemolen bi produktu parrillan txertatu, ez du lortu berezko formula arrakastatsurik egonkortzea: *Confianza ciega* elkarbizitza eta bikote harremanak kudeatzen dituen saioaren emaitzak, onak izan arren (batez besteko *share*-aren %21,2),

kateak igorri nahi duen kalitate irudia kolokan jartzen du. Eta *Estudio de Actores* saioari dagokionez, *Operación Triunfo*-rekiko antzekotasunak tamainako porrota ekarri zion (batez besteko %8ko *share*-a eskuratu zuen²²).

Late show-a dugu egungo telebistaren bigarren formatu izartsua. Esparru honetan, Endemol nabarmen nagusitzen dela onartu beharra dago. Telecincoren nortasunean errotuta dagoen *Crónicas macedianas* saioak batez besteko %31,5eko *share*-a eskuratzen du, eta programa honekin lehiatu nahi izan duten gainontzeko guztiek porrot egin dute. *Crónicas macedianas*-ek lortu duen arrakasta, neurri handi batean, aurkezle eta kolaboratzaile taldeari zor dio; beraz, saioa egun ematen ari diren komunikatzaileen sakralizazioaren erakuslea da. Xavier Sardá Telecincoren irudien marka bihurtu da; katea eta programa, aurreko kasuetan bezala, zuzenki lotuta daude. Testuinguru kontuan hartuta, Globomediak lantzen duen *late show* bakarra, *La noche de Fuentes & Cía*, kate berean txertatuta egoteaz gain, igandean igortzen da, eta batez besteko *share*-aren %24 lortzen du. Aurkezlea, Manel Fuentes, *Crónicas*-eko kolaboratzaile ohia izateak ere berebiziko garrantzia du.

Bi genero izartsu hauez gain, ekoizpen etxe horiek fikzioa eta umore edo denbora-pasako edukiak ere lantzen dituzte. Bi esparru hauetan, Globomediaren *know how*-ak Endemolen gaineko nagusitasuna ematen dio. Umorea ren arloan Globomediak egokitutako formatu argentinararen bermea azpimarratu nahi da, *Caiga Quien Caiga* delakoa. Enpresak umoreari emandako trataera kritiko eta adimentsuak produktua bereizi du eta, horrela, gainontzeko ekoizpen etheen lanerako ezinbesteko erreferentzia bihurtzea ekarri du. Ildo beretik, *El club de la comedia*-k antzerako arrakasta lortzen du, baina orotariko ordainpeko katearen ikuslegoan, Canal-en alegia. Honek guztiak Globomediak umorea lantzeko uztartu duen labela erakusten du.

Umorerako gaitasunari lotuta, enpresak harrera arrakastatsua jaso zuen, *Siete vidas* delako *sitcom* fikziozko generoarekin. Saioa Telecincoko *prime time*-an aireratu zuen. Baina, dudarik gabe, 2001-2002 denboraldiko telesail nagusia *Un paso adelante* izan zen: gazte eta nerabeen *target*-ak²³

eraz beregatu zituen, eta gainera telesailarekin lotutako bigamen produktua ere kaleratu zuen, *UPA Dance* musika taldea, alegia. Telesailak, artista ospetsu izan nahi duten gazteen bizimodu eta gorabeheratan oinarrituta, antzezpene, dantza edota zinemaren mundu liluragarrian kokatzen ditu adineko gazteen arazo eta erronkak. Globomediaren fikziozko ekoizpenak hemen aipatutakoak baino ugariagoak dira, eta baita bi enpresa nagusiek kaleratzen dituzten bestelako produktuenak ere, baina arreta merezi dutenak aipatzera mugatu gara. Zentzu honetan, Gestmusicen fikzioan duen arrakasta ezarekin amaitu nahi genuke bi erraldioen deskribapena. Ekoizpen etxe honek TVE1en txeratatutako *Agente 700* telesailaren porrotaren ondoren, saioa programaziotik at geratu zen. Fikziozko esparruan mantendu zen produktu bakarra kate berean finkatutako *Esencia de poder* telenobela izan zen.

Goliaten osteak

Jarraitzaileen taldean finkatutako ekoizpen etxeen lehiakortasun estrategia nagusiak hiru direla aipatu beharra dago: lehenik eta behin, buruzagiek lantzen ez dituzten generotan dihardute, beti ere orokortutako telebistaren genero indartsuak dira hauek; bigarrenik, genero hauen barnean formatu ezberdinak trebatzen dituzte; eta, azkenik, ikuslegoaren leialtasuna lortzeko, edukiaren marka iradokitzen duen aurkezlearen figura erabiltzen dute.

Bocabocak fikzioaren aldeko apustu gogorra egiten du. Antzerki eta zineman izandako eskarmentuak abantaila lehiakor indartsua eman dio *Al salir de clase* eta *El comisario* telesailak Telecincon txertatu ahal izateko. Lehenengo Espainiako gazte telesailen aurrekari bihurtu den bitartean, bigarrenak Bocabocaren gaurkotasun eta egoitzapenerako trebezia agerian utzi du. Ikuslegoaren oniritzi sakona lortuz, *El comisario*-k estatubatuar polizi telesailetan indarrean dauden azken berritasunak bere egin ditu. Baina etxearen moldatze gaitasuna, Antena 3en erantzun baikorra jaso duen *Pasapalabra* lehiaketa aireratzeke ere, oso baliozkoa izan da. Honetaz gain, Telecincon

El corte inglés «telesalmenta» saila ere burutzen du. Hortaz, Bocabocak, produktu ugaritasuna baino, kalitate eta egokitzapen prozesuaren prestutasunean oinarritutako saio mugatuen aldeko apustua egiten duela esan dezakegu.

Europroducciones, bere aldetik, beste estrategia lehiakor bati lotzen zaio; gehiegikerian oinarritutako lehiaketa ezberdinduak merkaturatzen ditu. Saio hauetan, parte-hartzaileek tramankulu zalapartatsuak soinean eramanda hainbat froga gainditu behar dituzte. Estiloak ikusle *target* finko baten asenahiak estaltzen dituzenez, TVE1 eta Antena 3eko parriletan errotutako edukia da. Lehenengoan *El Gladiador* eta bigarrenean *El show de los records* saioek *share* kouta garrantzitsuak eskuratu dituzte. Baina dudarik gabe enpresaren eduki nagusia *Día a día* magazina dela aitortu beharra dago. María Teresa Campos-ek²⁴ gidatzen duen programa telebistaren goizeko tartearen jaun eta jabe izatearekin batera, generoa jorratzen duten gainontzeko produktoreen erreferentea ere bada. Azkenik, Televisa mexikar enpresarekin elkarlanean, TVE1en goizeko franja finkatu duen *telenobela* formatuaren ekoizpena ere burutu du. *El secreto* eta *La verdad de Laura* telesailek, arrakasta eskuratzeaz gain, Zeppelinek burututako *Esencia de poder*-en aurrean nagusitasun argia dutela aipatu beharra dago. Hortaz, Europroduccionesek fikziozko trama korapilatsuetan lehenatasuna hartu du.

Boomerangek, jarraitzaileen taldean dagoen hirugarren ekoizpen etxeak, *talk show* delakoetan aditasuna lortu du. Honi esker, formatuaren antzeko bertsioak hainbat katetan banatzen ditu, baina dudarik gabe Antena 3eko arratsaldetan emititzen den *El diario de Patricia* ekoizpen etxearen marka dela azpimarratu beharra dago. Programa batez besteko *share*-aren %28,3ren erantzulea da. Honekin batera, Antena 3en errotutako *De buena mañana* magazinak Boomerang eta Europroduccionesen arteko lehiaketa zuzena dakar. Norgehiagokak, aipatu moduan, *Día a día*-ri aurre egitea ia ezinezkoa dela frogatu du. María Teresa Camposen saioak batez besteko ikuslego kuotaren %26,1

lortzen duen bitartean, *De buena mañana*-k %19,2rekin konformatu behar du.

Guda zelaiaren erdigunean: ez David, ezta Goliat ere

Orotariko telebista eredu nagusiaren magalean sortutako bigarren mailako merkatuak biltzen du aurrekoak baino ekoizpen ahalmen urriagoa duen enpresa sorta. Bigarren merkatu honek erraldoiek utzitako tartea definitzen du. Hemen finkatzen diren ekoizpen etxeek ezin dute nagusi edota jarraitzaileek merkaturatzen dituzten *reality* eta *late show*-ekin lehiatu, eta testuinguru erraldoi honetan berezko lekua hartzeko dibertsifikazioaz baliatzen dira.

Talde honetan biltzen diren tamaina ertaineko enpresek, hedadura estatala duten kateetan zein erkidego ezberdinetako kate publikoetan, asetu gabeko tartea identifikatu eta estaltzen dituzte. Honek enpresa dibertsifikatuei, nahiz eta lehen mailako edo puntako eremuan hirugarren kokapen marjinala eskuratzeko bidea eman, bigarren mailako esparruan nolabaiteko egonkortasuna eta nagusitasuna, lidergoa, ahalbidetzen diela nabarmendu behar da. Baina ekoizpen etxe dibertsifikatuek izartsuak eta arriskutsuak ez diren generoak lantzen dituzte. Dena den, saio hauek puntakoak ez izan arren, dagoeneko edozein telebista kateetako oinarrizko edukiak direla ere kontuan hartu behar da: hots, orotariko telebistaren ereduaren barruan finkatuta dauden eduki motak.

Gauzak horrela, talde honetan aritzen diren enpresek, nahiz eta marjinalki bestelako generoen ekoizpena ere burutu, *magazin*, *lehiaketa*, *talk show* edota, oro har, denbora pasatzeko formatu arinak merkaturatzeari ekiten diote. Sinergiaren ustiapena abiapuntu izanda, enpresa ertainek sortzen dituzten formatu generikoak kate batean baino gehiagotan ikusgai izango dira; hori bai, oinarrizko erroak mantenduz, produktua lekuko tokikotasunaren ezaugarriari esker bereizituko da. Dena den, sail honetako enpresek tokikotasuna ulertzeko duten modua merkatu

lokalen estereotipoetara mugatzen da, eta ez du benetako ezberdintasun edo berezkotasun kulturaletarako sakontze aukerarik zabaltzen. Arlo honetan darabilten enpresa txikien elkarkidetzarako joera ere oso nabaria da. Azken batean, elkarkidetzak bigarren mailako merkatuaren barietate hazkunde horizontala bermatzen du. Hau dela eta, esparru honetan diharduten bi enpresa eduki bakarra merkaturatzeko orduan elkartzea ez da batere harrigarria.

Zortzi dira ekoizpen etxe dibertsifikatuak: Producciones 52, 3 Koma 93, ZZJ/Boomerang, Videomedia, Martin-gala, Miramón Mendi, Prime Time Comunicaciones eta Splenders Ibérica, hain zuzen ere. Berauek ekoizten dituzten produktuen artean, aipagarrienak, arrakasta edo zenbait katetan errotzea lortu dutenak, aipagai ditugu. Haue-tako bat Splenders Ibéricak merkaturatutako *El rival más débil* lehiaketa dugu. TVE1eko arratsaldetako tartean fin-katzen da eta batez besteko ikuslego *share*-aren %17,6 bereganatzen du. Saioaren bereizgarritasuna aurkezlean datza, honek lehiakideak mesprezu handiz tratatzen baititu. Beste adibide aipagarri bat Prime Time Comunicacionesek plazaratzen duen bestelako lehiaketa dugu, *Pequeños grandes genios* delakoa. Haurrak dira programaren protagonistak, eta euren jakintza eta ezagutza maila erakusteko beta dute, TVE1eko arratsaldetan finkatuta dagoen tarte honetan. Ikuslegoaren erantzuna primerakoa izan da, batez besteko *share*-aren %22,2 hain zuzen ere.

Baina lehiaketak alde batera utzita, zenbait eduki tradizionalek parrillean errotzeko eta dagoeneko indartsu mantentzeko erakutsi duten gaitasuna ere oso nabarmentzekoa dela uste dugu. José Luis Moreno-k zuzentzen duen *gaueko show*-ari buruz ari gara, *Noche de fiesta* delakoa ari buruz, alegia. TVE1eko gaueko tartean batez besteko %27ko *share*-a lortzen du. Ezin da ukatu telebistaren has-tapen garaikoa dugun *gaueko ikuskizun formatuak* ikusle *target* bat harrapatu eta telebistaren aurrean saioaren jarraitzaile sutsuak izatea lortu duela. Azkenik, Boomerang eta 3 Koma 93 ekoizpen etxeen arteko elkarkidetzak ondo-rioztatu duen *Esta es mi gente talk show*-aren arrakasta aipatu nahi genuke. Saio hori ETB eta Telemadriden astegu-

netako *prime time*-an kokatuta egon arren, batez besteko *share* oso positiboak bereganatzen ditu: %23,5 ETB2n eta %22,5 Telemadriden.

David, edota espezializazioaren indarra

Teknologia digitalak kateen hedadura esparrua orokortu izanak lehen mailako merkatuaren eta bigarrenaren arteko tarteareagotu egin du. Polarizazioa sakonagoa da egun, eta ekoizpen etxe txikiagoek katearen nortasunean, edota genero edo formatu batean aditu bihurtuz, bere lekua hartzen dute. Espezializazioak hiru enpresa mota ezberdin ondorioztatu ditu: formatu iraultzaile batean zentratu direnak, kate baten izaeraren arabera edukiak lantzen dituztenak, eta, azkenik, eduki zehatz baten inguruan murgiltzen diren monoproduktoreak. Azken hauek, nitxo batean adituak izanda, mota honetako eduki bakarra merkaturatzeaz arduratzen dira. Estrategia honek merkatu globalean sartzeko bideak zabaltzen dituzenez, mota honetako enpresak dira azken urteetan gehien ugaltu direnak.

El Mundo TV formatu iraultzailean aditutako enpresen azpitaldearen partaide bakarra da. Prentsa idatziaren esparruan jorratu duen ikerkuntza kazetaritza oinarritzat hartuta, formatuaren ezaugarriak telebistaren lengoaiara primeran egokitu ditu. Gizartea kolpatu duten auziak, gertaerak, dira formatuaren oinarri. Saiok gertakari hauen inguruko argiketak, azalpenak, ematen saiatzen dira, edota auzi baten trapu zikinak ezkutuko kamara bidez erakutsi eta salatzeke modua egituratzen dute. Beti ere oso deigarria eta zalapartatsua den estiloa erabiliz, beraz, argiketa ikuskizun bilakatzen dute. Ikuslegoaren erantzuna oso baikorra da, baina informazio generoaren sinesgarritasuna kolokan jarri dela ere onartu beharra dago, nolabaiteko errealitateko gertaeren *dramatizazioa* egiten baita saio hauetan. Lan sistemaren aditasunak, ikerketa kazetaritzako formatu berberak kate ezberdinetan kokatzeko modua ematen dio enpresari; era honetan, *Investigación TV* hiru kate autonomikoetako *prime time*-an txertatzen da. Canal 9 eta TVGn emaitza onak dituen bitartean, ETB2koak

urriagoak dira. Ildo honetatik, *Al descubierto* saioaren oihartzuna aipatu beharra dago, programak Antena 3eko *prime time*-an batez besteko *share*-aren %19,7 eskuratzen baitu.

Bigarrenik, eta kate baten nortasun bereizgarriaren araberako produktuen ekoizpenean aditu diren enpresei dagokienez, hauek gehienbat erkidegoko telebista kateen inguruan dihardutela azpimarratu behar da. Modu honetan, tokikotasunaz baliatzen dira. Hots, lekuko hizkuntza, ohitura, gustu eta izaeraren inguruko lehen eskuko informazioa izanda, hedadura esparru finakoaren ikuslegoa bereganatzen dute. Eta, gainera, produktu ezberdinak lantzen dituztenez, lekukotasunean oinarritutako ikuslegoaren azpitaldeak edo ikusle *target* zehatzen arreta eta leialtasuna bermatzea ere lortzen dute. Baina katearen nortasuna, tokikotasuna, eta azkenik ikuslegoaren azpitalde zehatzen araberako produktu sorta ekoiztean, enpresa hauek merkatuaren gaineko kontzentrazio politika burutzen dutela agerian dago. Edo beste modu batez esanda, merkatu lokalean diharduten enpresak, telebista autonomikoen esparruan gehienbat, bertako behar eta hutsune guztiak asetzen ahalegintzen dira. Modu honetan, eremu geografikoaren ezaugarri soziokulturalen ezagutza sakonari esker, kompetentzia uxatzeko gaitasuna dute.

Dena den, kate batean aditzeak nolabaiteko menpekotasuna ere ondorioztatzen du. Ekoizpen etxeak katearen nahiekiko lotura estua du, eta noizbait beste enpresa bat katearen nahiak hobeto asetzeko prest baldin badago, egonkortasuna galduko luke aditutako enpresak. Honekin batera, ekoizpenaren kostuak eta produktutik jasotako mozkinak ere, neurri handi batean, katearen esku daude. Prezioak finkatzerakoan, enpresak produktua saltzeko gune bakarra duela kontuan hartu behar du, eta horrek askotan baldintza ez egokiei muzin egitera bultzatzen du. Baina, bestetik, eta katearekiko harremana emankorra bada, egoerak merkatu global aldakor eta erasokorraren barnean nolabaiteko egonkortasuna dakar. Aipatu moduan, talde honen barruan aritzen diren ekoizpen etxe gehienek

erkidegoko kate publikoetan dihardute, eta oso urriak dira hedadura estataleko kateetan aritzen direnak. Baina honek ez du esan nahi erreferentzi tarte garrantzitsurik ez dutenik. Aitzitik, zenbait kasutan gainontzeko enpresentzako ezinbesteko abiapuntu bihurtu dira. Honen lekuko, Cuarzo Produccionesek burutzen duen *Sabor a ti* magazina dugu. Ana Rosa Quintanaren ekoizpen etxeak Antena 3eko arratsalde tartean txertatzen duen saioak batez besteko *share*-aren %26,6 bereganatzen du, eta, berriro ere, aurkezlearen oihartzuna eta markaren pisua aipatzekoak diren ezaugarriak ditugu.

Azkenik, eta aditasun maila altuena duten ekoizpen etheen artean, orotariko edukien genero edota formatu bakarra aieratzeaz gain, maila oso nabari batean, fikzioaren ekoizpena ere burutzen da. Izan ere, monoproduktoreek fikzioaren merkatuaren %70,2²⁵ bereganatzen dute. Honen arrazoa hobeto ulertu ahal izateko, uztartzen diren hainbat egoerei so egin behar zaie: lehenik eta behin, zinema krisialdi sakonean dagoen eremua izanda, iraunbizi ahal izateko, bertan diharduten hainbat profesionalak telebistara jauzi egin dute. Bestetik, ezin da ahantzi, profesional hauek produktu bakarra aurrera eramateko orduan, enpresa bat sortzeko erraztasunak ere oso handiak direla. Izan ere, produktua ekoizteko helburu soilarekin sortzen diren enpresak dira hauek, eta arrakasta lortuz gero, indarrean jarraitzen dute. Honek sortzaileei askatasun handia ematen die, ekoizpen etxe erraldoiekin lan egitekotan eskuragarri ez duten aukera, eta, beraz, apustu interesgarria da eurentzako. Azkenik, fikziozko produktuen barruan, genero edota trama finko bat primeran landuz gero, nitxoak estaltzen dute. Produktua, orotariko telebista kate anitzei saltzeko aukera izateaz gain, kate bereizituei eskaintzeko aukera ere baldin badute, modu honetan errentagarritasuna eta mozkinak bikoiztu daitezke.

Bestetik, ezin da alde batera utzi Kataluniako ereduak honelako enpresak osatzeko baldintza ezin hobeak tartekatzen dituela; eta, beraz, monoproduttore asko kataluniarrak izango dira. Hauen lanak, fikzioaz gain, orotariko telebistaren barruan aitzindariak diren produktuak izango

ditugu. Saioak tokiko kateetan kokatzen dira, baina esparru globalean merkaturatzeko gai ere izan daitezke.

Orotariko telebistaren formatuak lantzen dituzten monoproduttoreen artean, aipatzekoa da Breamok kale-ratutako *Saber vivir* dibulgazio saioa. Bertan hirugarren adina delakoaren bizitza kalitatea hobesteko aholkuak eta, oro har, beraien nahi eta beharrianak asebetetzen dira. Hori dela eta, programak, *target*-a bereganatzeaz gain, ikusle talde honen izaera dela eta, leialtasuna ere lortu du. Saioa TVE1eko goizetan errotuta dago, eta batez besteko *share* indartsua erakusten du, %21,9koa hain zuzen ere. Formatu berriztatzaileei dagokienez, Continental Producciones kataluniar ekoizpen etxearen *Veterinaris*²⁶ *docu-show*-ak ere berebiziko garrantzia du. TV3en txertatutako saioak dokumentalaren generoa eraldatu du, eta *telereality*-aren aurrean beste formatu bat aurkezten du. Honela, *docu-show*-ak egunerokotasunean ematen diren hainbat auzien inguruko jarraipena egiten du eta, ondoren, fikzioaren legeen arabera ikusle goaren gain interesa sortzen du. Hots, familia batean bizi den txakurra larriki zaurituta dago, eta maskota osatuko ote delako zalantzak ikuslea erakartzen du. Saioan planteatzen diren arazoak benetakoak dira, baina berauen konponketaren narrazioa intriga modura aurkezten da. Ekoizpen etxe honen lanak batez besteko *share* oso aipagarria eskuratzen du, %34,9 hain zuzen ere. Estatuko hedadura duten kateen *telereality*-en antzerako kopurua da, baina Kataluniara mugatuta.

Bestelako zenbait monoproduttoreen eduki arakatsatuak azpimarratzekotan, honakoak aipa daitezke: haurrei zuzendutako saioen artean, batez besteko %20,6ko *share*-a eskuratuz, Selecta Visionek Antena 3en finkatzen duen *Desesperado Club Social*. Umore tarte bereizituei dagokienez, TVE1n *prime time*-an txertaturik dauden Prother eta Estarcieraren *Cruzyraya.com* eta *The Morancos Chou* di-relakoak. Hauek batez besteko *share*-aren %29,3 eta %20,2 eskuratzen dute. Edota *Cifras y letras* lehiaketa ospetsuaren ekoizle den V@mos a ver enpresaren adibidea: programa estatuko kate nagusietan hainbat urtetan mantendu ondoren, Telemadrid eta Canal Surren txertatuta dago gaur

egun, eta oraindik ere emaitza onak jasotzen ditu. Eta, azkenik, ezin da ahantzi, *Crónicas marcianas*ekin zuzeneko lehian aritu den saio arrakastatsu bakarra, nahiz eta arrakasta xumea eta maila lokalekoa izan: *Senders de gloria talk show*-a. Saio hori Canal Surren txertatzen da, PC 29 monoproduttoreak merkaturatzen du eta batez besteko *share*-aren %17,4an finkatzen da.

Arestian aipatu moduan, fikzioa monoproduttoreen eragin esparru nagusia da. Baina produktu hauen guztien artean bi goraipatu nahi genituzke: *Cuéntame cómo pasó* telesaila eta *Padre Coraje tv movie*-a, hain zuzen ere. Grupo Gangak zuzentzen duen telesailak, Alcántara familiaren bizipenen bidez, Espainiako trantsizioaren urteak zeharkatzen ditu. Azken urteotako aldaketak erakusteko, gizartean bizitako tentsioaren lekuko, sendiaren kideen ikuspuntuak aurrez aurre jartzen ditu. Arreta handiz landutako girotze eta dokumentazio lanak oso agerikoak dira fikzio honetan. Zinema produkzioen labela duen telesaila dela onartu beharra dago. *Cuéntame cómo pasó* TVE1eko *prime time*-an finkatzen da eta batez besteko *share*-aren %33,7 lortzen du.

Padre Coraje delako *tv movie*-a²⁷ Benito Zambrano zine zuzendariaren ardurapean sortu zen. Tesaurum ekoizpen etxeak Antena 3eko *prime time*-an finkatu ondoren, kateak 2001-2002 denboraldian izandako arrakastarik nabarmena suposatzen zuen, batez besteko *share*-aren %29,1ekin hain zuzen ere. *Padre Coraje* errealitatean emandako gertaera batean oinarritzen da, Francisco Holgadoren auzian, hain zuzen ere. Gurasoa, bere semearen heriotzaren errudunak aurkitu ahal izateko, Jerezko droga trafikatzailen giroan murgiltzen da.

Absolutismoaren aztarnak gaikako telebistan

Ordainpeko telebistaren eredu teknologia digitalari esker hedatu da, baina berau errotzeko ibilbidea ez da baterexamurra izan. Ikuslegoa ez dago telebista eskaintza bereizituagatik ordainketa buntzearekin ohituta, eta, beraz,

etorkizun hurbilean, produktuaren onura zein harpidetza sistema ohikoa bihurtzen diren neurrian, gaikako telebista errotuko dela antzeman daiteke. Ildo honetatik, aipatu behar dago egungo satellite digital bidezko gaikako telebistaren merkatua indarrean jarri ahal izateko, Espainiako Gobernua sasi monopolio egoera onartu eta beharrezkoak ziren aldaketa legalak burutu zituela. 2002an jadanik aukeran zeuden bi plataforma digitalek ez zuten iraunbizitzeko adina merkatu eskuratu. Gauzak horrela, Canal Satélite Digital eta Vía Digitalen arteko fusioak beharrezko egonkortasuna bermatu zuen, eta, 2003ko uztailaren hasieratik hona, Digital+ delako plataforma bakarra igorri da.

Digital+ Sogecablen esku dago. Korporazioak 1988an Canal+ orotariko ordainpeko katea abian jarri zuen. Horrek Sogecableri, kalitate eta aditasun maila gogoko zuen ikusle goa ezagutzeko aukera emateaz gain, ordainpeko telebistaren marka eta estiloa jorratzeko aukera ere eman zion. Abantaila lehiakor honi esker, Sogecable ordainpeko telebista erdua ikus-entzunezko merkatuaren antolamenduan gauzatu duen eraldaketa sakonaren adierazlea da, estatuan dagoen abiapuntu nagusia. Hortaz, egoera aztertze-ko orduan, erakundearen antolamenduaren behaketa burutzea ezinbestekoa dela ondoriozta daiteke.

Sogecable,²⁸ satellite bidezko merkatuaren jaun eta jabe izan arren, ez du ordainpeko gaikako merkatua erabat menperatzen. Izan ere, kable igorpen sarearen kasuan ez dago monopoliorik. Nahiz eta Sogecable euskarri honen bidez zabaltzen den ordainpeko eskaintzaren liderra edo nagusia izan, badaude berarekin lehiari diharduten beste plataformak batzuk ere. Hauen artean, eta liderraren atzetik, Mediapark²⁹ dugu. Plataforma honek bederatzi gaikako kate merkaturatzen dituela kontuan hartuta, ondorengoa dela onar daiteke. Honen ostean RTVE dugu: zazpi kate tematikoez gain, Latinoamerikako harpidedun kopururik altuena beraganatzen duela ere ezin da ahantzi. Hegoamerikatik dator, Multicanal korporazioarekin batera, laugarren lekua hartzen duen enpresa, Televisa mexikarra hain zuzen ere. Bi hauen ondorengoak Multipark³⁰ eta Antena 3 Temática³¹ dira, bakoitzak lau kanal merkaturatzen dituela. Jarraian,

kablearen merkatuan sartzen ari diren plataforma berriekin egiten dugu topo: aipagarrienak, Planeta 2010,³² Cisneros TV,³³ Vocento,³⁴ Pramer Promecom,³⁵ Telefónica Servicios Audiovisuales,³⁶ MultiThématiques España,³⁷ edota Cuatro Cabezas España. Azkenik, eta maila murriztaz gero, badira gaikako kanal baten eduki zehatzetan aditu diren enpresa txikiagoak. Hauek, orotariko merkatuan monoproduktorek egiten duten moduan, edukien nitxoak aurkitu eta berauek asetzen aditu bihurtzen dira. Ordainpeko merkatuan, orotarikoan ematen den fenomeno bera errepikatzen da. Hots, bertan sartu eta parte hartu nahi duten enpresa txikiek espezializaziora jo behar dute. Fenomeno honen adibide batzuk TVC Multimediak ekoizten duen Canal Meteo edo Pavina Pavoniaren Canal Salud ditugu.

Teknologia digitalak seinalea igortzeko eskaintzen dituen euskarri ezberdinetatik hedatzen dira ordainpeko telebistaren eskaintzak. Ildo honetatik, harpidetza finantzabide nagusiak duen eragina ere azpimarratu nahi dugu. Eskaintzaren iraunbizitza ikusle goaren asebetetze mailarekin lotzen denez, marketineko lanabesak hartzaileen gustuak, nahiak eta desioak sakonki aztertzea zuzentzen dira. Merkatu ikerketak erakusten duen bezala, zinema eta kirola nagusitzen dira harpideen nahiagokotasunen artean. Hauetatik at, zenbait gaien inguruko zaletasun edo jakin-mina duten azpisegmentuak ere agertzen dira. Baina, noski, talde hauek kuantitatiboki hazten diren neurrian, haziko da ere gaien aniztasunaren arabera eskaintza berria.

Harpidetza gain, ordainpeko telebistaren finantzabide marjinala publizitatea da. Iragarleek spot formatu tradizionala eraldatu eta etorkizuneko telebista sistemaren ezaugarrietara egokitu behar izan dute publizitatea. Honen ondorioz, elkarreragiketan oinarrituta dauden iragarri mota berriekin egiten dugu topo. Izan ere, gaikako telebistak, aditasun maila oso altua eskatzeaz gain, ikusleerako elkarreragiketarako bitarteko berriak, zerbitzu ugariak, Internetetik lotura, eta norberaren beharren arabera kontsumoa egokitzeko aukerei bidea ematen die. Ordainpeko telebista, norberaren beharrak asetu ahal izateko, komunikazio bitarteko anitzen sistema bateratuta oina-

rritzen da. Orain arte ezagutu dugun norabide bakarreko komunikazio eredu bertan behera dator. Etorkizuneko telebista, beraz, kanal aniztasunarekin eta komunikazio bide ezberdinekin lotutako sistema bateratua da, multi-mediatikoa, alegia.

Hau guztia kontuan hartuta, telebista eredu berriarekin batera, edukien industriaren garapen eta hazkunde handia heldu dela pentsa daiteke. Baina gauzak oso bestelakoak dira: gaikako telebista digitalaren merkatua komunikazio korporazio baten esku dago (satelite bidez monopolioa duena eta kablearen kasuan liderra dena, hain zuzen ere). Korporazioa eredu honen eduki eta zerbitzuak osotara asetzeaz arduratzen da. Ez dago beste inorentzako esku-hartze aukerarik.

Dena den, orotariko telebistaren arloan diharduten enpresek, testuinguru berri honetan parte hartzeko, bi bide uztar ditzakete: korporazioari formatuak saldu, edota oso bereizituak diren edukien ekoizpenerako elkarkidetza akordioak sinatu, hain zuzen ere. Azken aukera honen adibide garbia Produce Plus delako korporazioaren sailak eskaintzen duena dugu. Sogecableren negozio unitate estrategikoak estatuko ekoizpen etxeekin erreportaia eta dokumental bereizituak ekoizteko elkarkidetza sistema jartzen du abian. Enpresek korporazioak finkatutako kalitate labela errespetatu behar dute, eta baita eskubideen ustiaketa, enpresa erraldoiaren jabego izatearen baldintza, ere.

Sogecable, buruaskitasunerako lan sistemaren antolamendua

Ikerketaren emaitzak erakusten duen moduan, berezko nortasun indartsua eta ikuslegoaren beharrianen eza gutza sakona dira gaikako telebistaren esparruan lidergoa ondorioztatzen duten bi ezaugarri nagusiak. Sogecable, orotariko merkatuan txertatutako ordainpeko kanala abian jarri zuen momentutik, nortasuna eraikiz joan da. Irdia epe luzera lantzen den balioa da, eta ikuslegoak berau bereizteak produktuaren balioa bikoizten du. Ildo honetan, ikusle eta korporazioaren arteko harremana ezinbestekoa

dela ere nabari daiteke. Sogecablek bere bezeroekin harreman zuzena izateko bitartekoak luzatu ditu. Hauen bidez, harpidedunen iradokizunak eta eskaintza berdefinitzeko balizkoa den lehen eskuko informazioa jasotzen du. Eta zuzeneko informazioa oinarritzat hartuta, korporazioak bezeroen beharrezan araberakoa eta buruaskea den eskaintza plazaratzen du. *Feed back*-aren bidez, ordainpeko plataformaren kanalak eta zerbitzuak eguneratuta daude, bezeroen joera eta gustu berrien arabera.

Kanpoko informazioa jasotzea barne komunikazioaren helburuak finkatzeko modu bat da. Ondoren, korporazioa banatuta dagoen negozio unitate ezberdinen arteko harreman eta sinergiak ustiatzen ditu, Digital+ sortzeko. Hemen deskribatzen ditugun Sogecableren unitate estrategikoak gaikako eskaintzaren eraikitze prozesuan parte hartzen dutenak dira. Badira ikuskizun merkatuaren orokortasuna asetzera bideratuta dauden bestelako unitateak ere.³⁸

1. Ordainpeko eskaintza

Korporazioak ordainpeko hiru produktu mota ezberdin kaleratzen ditu: Canal+, Digital+ eta berezitutako ha maika kate tematikoen paketea, hain zuzen ere. Lehenengoko produktuak bi funtzio betetzen ditu: batetik, orotariko merkatuaren barruan, ordainpeko telebistarekiko merkatua hedatzea. Sogecableren gaikako telebista eskaintzeko orduan, abantaila lehiakorra suposatzen duen funtzioa alegia. Bigarren helburua, eta egun garrantzi handiagoa duena, erakusleihenarena da. Canal+ek legearen arabera doako hainbat saio emititzen ditu, eta hauek eskaintzaren nortasuna eta erakargarritasuna pizteko amua dira.

Bigarren produktua Digital+ plataforma dugu: paketetan bildutako hainbat kate tematiko eskaintzen ditu. Izan ere, bere ahalmen lehiakor nagusia gai tematikoak editatzea da, hots, kate tematikoen edukiak hautatu eta egituratzeko prestutasun handia du. Eta, honekin batera, elkarreragiketarako moduak uztartu eta kirol ekitaldien emanaldi esklusiboak bultzatzea dira beste bi estrategia nagusiak. Az-

kenik, eta gainontzeko telebista edukien banatzaileei zuzenduta, Sogecablek editatutako hamaika kate tematikoak merkaturatzen ditu. Kanal sorta Cinemanía, Documanía, Estilo, Viajar, Sportmanía, Golf+, Real Madrid TV, CNN+, 40 TV, 40Latino eta Foxkids-ek osatzen dute. Harpidedunei zuzenki, pakaketan, eskaini eta nazioarteko edukien merkaturatze bestelako plataformei saltzen dizkienak, alegia.

2. Gaikako kanalen edizioa: *Compañía Independiente de Televisión, CIT*

Kanalen edizioa, negozio unitatea baino, negozio unitate ezberdinak kudeatzen dituen jarduera nagusia dela esan genezake. Esparru honetan, Compañía Independiente de Televisión (CIT) delakoak kanalen ediziorako bi ardua ezberdin bereganatzen ditu: kanalen neurrirako programak ekoiztea eta nazioarteko merkaturatze eduki proposak erostea.

Lehenengo funtzioari dagokionez, bi arlo ezberdinetan ematen dela aipatu beharra dago: batetik, Canal+en erakusleihen tartetako programen antolamendua, eta, bestetik, ordainpeko emisioan barreiatzen diren programa tematikoak. Batean zein bestean, edukiak korporazioaren irudi eta kalitate labeletara lotzen dira. Dena den, orotariko teleikusleei zuzendutako tartetean ahalegin bereziak egiten direla ere kontuan hartu behar dugu.

Doako saioentzako, orokortutako ereduaren genero eta formatuen bertsio zaindu eta dotorea burutzen dute. Hauek kalitateko estilo bereizgarriaren zigilua duten produktua dira. Honen adibiderik argiena *Lo + Plus* saioak magazinaren gainean egiten duen irakurketa dugu. Bertan, zinema, antzerki, musika edota artearen esparruan agerikoa den pertsonaia elkarrizketatzen dute, eta burututako lanaren inguruko informazioa emateaz gain, elkarrizketatuaren gizatasuna azaleratzen da. Elkarrizketa lagunarteko solasaldi dibertigarri, umoretsu eta arinean bihurtzen da —inoiz ez, orotariko telebistan gertatzen den moduan, espektakulu eta desitxuraketa gordinean—. CITek merkaturatzen dituen erakusleihen tarteen artean, errotuta dauden *Los 40 Principales*, *Las Noticias del Guiñol*, *El día des -*

pués, + Te vale, edota Zap...Zap...Zapin saioak kalitate eta estilo ezberdindutako erreferenteak direla ere gaineratu dezakegu.

Baina ekoizpena Digital+entzako denean, zenbait baldintza atxikitzen zaizkio kalitate eta nortasun irizpideei: gaikako saioetan, adituen presentzia ezinbestekoa da, eta ez soilik aurkezle lanetan, erredaktore edo zuzendaritza taldeak soslai bereizitua duten profesionalen osatuta egon behar du. Testuinguru berriak etorkizuneko telebistaren esparruan kazetarien aditasuna ezinbestekoa izango dela erakusten du; arestian alor bakoitzeko profesionalen kazetarien lekua hartuko dute.

CITen bigarren funtzioa nazioarteko merkatuan edukia erosi eta ondoren kanalen programazioa antolatzea da, hots, kanalak editatzea. Lan hau Sogecablek duen abantaila lehiakor baten inguruan burutzen da: nazioarteko eduki sortzaile erraldoiekin indarrean jarri dituen eskusibitate hitzarmenak, hain zuzen ere. Gauzak honela, CITek nazioarteko edukien merkatu ekoizle erraldioen produktu sortak erosten ditu, eta ondoren paketearen edukia bereizitu eta gaikako kateen programazioa eraikitzeari ekiten dio. Edizioan, erositako produktuez eta CITek ekoiztutako neurriko programez gain, bestelako eduki bereizitua ere uztartzen dira. Azkenengo hauek Sogecablen beste negozio unitate estrategikoen ardura dira, CITek kudeatzen dituen hainbat sailenak, alegia.

3. Sogecine eta zinema ekoizpena, Sogepaq eta fikzio bilduma

Sogecine espainiar³⁹ filmen ekoizpena bultzatzeaz arduratzen den negozio unitate estrategikoa dugu. Kalitate labela eta nortasun zigilua duten filmak dira hauek. Korporazioak tokiko zinema industria laguntzen duen heinean, bere telebista eskaintzan txertatzeko jatorrizko edukia ere eskuratzen ditu, eta, beraz, enpresaren irudiari dagozkion emaitza errentagarriak lortzen ditu. Sogecable zinema espainiarraren bultzatzailearen irudiarekin lotzen da. Ildo honetatik, aipatu beharra dago bere komunikazio tresna eragingarriena zinema jaialdien babesgoa dela. Bes-

te alde batetik, Sogepaq telebistarako filmen eskubideak erosi eta kudeatzeaz arduratzen da; dagoeneko 5.500 filmez osatutako bilduma edo *library*-a du esku artean. Dударik gabe, Sogecablek gainontzeko telebista kate edota nazioarteko merkatuan eskaintzen dituen izenburu hauek guztiek mozkin ekonomiko handiak ondorioztatzen dizkiete.

4. Gestport eta Audiovisual Sport

Sogecableren bi departamentu hauek munduan ematen diren kirol ikuskizun nagusien eskubideak erosi eta kudeatzeaz arduratzen dira. Helburua hauxe da: plataformaren kirol kateetan, kirolzaleen nahiagokoak diren norgehiagoka eta lehiaketen igorpen eskusiboa bermatzea. Kirol emanaldien pribatizazio honek futboleko oihartzun handia izan du. Lehen mailako taldeen arteko lehiak ordainpeko eskaintzaren barne dauden bitartean, garrantzi urriagokoek orotariko kateen parrillen hutsuneak betetzen dituzte. Bi negozio unitateek kirol klubei eskubideen gaineko tarifak inposatzen dizkiete, eta dagoeneko kirola pribatizatu egin den ikuskizuna da.

5. Produce Plus, eduki bereizituen ekoizpena

Produce Plusek eduki tematikoak sortzen ditu, gai zehatzen inguruko kalitatezko dokumental eta erreportaiak, hain zuzen ere. Aurrerago aipatu dugun bezala, sail honen, koprodukzio sistema bidez, orotariko telebistaren merkatuan dauden ekoizpen etxeei gaikako merkatuan sartzeko aukera ematen die. Baina baita ere sortzaile gazte eta aitzindariak. Ekoiztutako eduki tematiko hauek Digital+en ikusgai izateaz gain, nazioarteko edukien merkatuan salgai daude.

6. OK Plus eta Pus.es., elkarreragiketa eta multimedia zerbitzuak

Ok Plusek elkarreragiketa bitartekoak eta multimedia zerbitzuak antolatu eta bideratzen ditu. Ikusleak, urrutiko agintearen bidez, posta elektronikoa erabili, Interneteko webak behatu, kontu korrontean eragiketak egin edota

produktu ezberdinen erosketak burutzeko aukera dauka. Telebista komunikabide anitzen topalekua da, eta baita bere kontsumoa ulertzeko modu berriaren aitzindari ere: hots, ikusle aktiboak behar dituen zerbitzu eragilea. Pus.es webguneari dagokionez, berriz, Sogecableren irudia eta produktu anitzen erakusleihen birtualaren funtzioa bereganatzeaz gain, Internet bidezko telebista igorpenerako saiakerak egiten ditu. CNN+en⁴⁰ informatiboen zuzeneko igorpena emaitza baikorrak suposatzen dituen froga hauetako bat izan da.

Argazkiaren argiak eta itzalak

Artikuluaren zehar, etorkizuneko telebista digitalak ondozortatu duen testuinguru berria definitzen ahalegindu gara. Honela, Espainian dauden hiru telebista eredu aztertzen ditugu: orotariko telebista, ordainpekoa eta salbuespen moduan agertzen den kataluniar ereduak. Gauzak honela, ikuspegi berriak sortarazten dituen hainbat kezkei erantzuten saiatu gara.

Lehenik eta behin, telebista digitalaren garapenaren eta globalizazio prozesuaren artean erabateko lotura dagoela ondozortatu dugu. Egun, telebista komunikabiderik eraginkorrena da. Eta, noski, globalizazioaren balioak giza irratetzeko eragile nagusia dela ere aipa daiteke. Mundializazioak bi telebista eredu kanonikoak sortu ditu, orotariko eta ordainpekoa, hain zuzen ere. Jakina, eredu hauen programazio kanonikoak planeta osoan errepikatzen dira.

Programazioaren estandarizazioak industriaren gaineko lan sistema finkoa jarri du indarrean. Ekoizpen etxeek sistemak finkatutako formatu zein generoen egokitzapena burutu behar dute. Honela, telebista kontsumo merkatuaren produktu bilakatzeko bidea ere argia da. Etorkizuneko telebista eta pribatizazioa bat datozen terminoak dira. Eta, noski, komunikabideen jabegoa, aipatutako mundu ikuskeraren bakarra ren sostengurako ezinbestekoa den faktorea dugu.

Etorkizuneko telebistak aurreikusten duen ibilbidean, orotariko kate pribatuak Estatuko enpresa erraldoien esku egongo diren bitartean, orain arte ezagutzen genituen kate publikoen jabegoa ere aldatuko da. Azkenengo hauek, titularitate publikoa mantendu arren, gestio pribatua izango dute. Hots, eta berriro ere, enpresa nagusiek telebista kate publikoen funtzionamendua eskuratuko dute. Bide honek askatasun eta aniztasunaren inguruko hutsuneak erakusten ditu. Telebistak ez du zertan interes orokorra babestu behar. Are gehiago, kateak zuzentzen dituzten enpresa pribatuen interesak babestuko dira, eta ez beste batzuk. Dena den, pribatizazioa eta kontrol maila are zurrunagoa da ordainpeko plataforma digitalen eremuan. Ezin da ahantzi egun Sogecablek bereganatzen duen monopolioa, zeinak edukien kontrol bertikala abian jartzen duen.

Honekin batera, telebista ez da berdina gizaki guztientzat. Ikusle gehienek zabor telebistaren portzio ezberdinetan eraikitako programazio ezberdinen artean —kate publiko zein pribatuek eskaintzen dituztenak— aukeratze-ko askatasuna daukate. Doako telebistak iradokitzen duen imajinarioa errealtate desitxuratuarena da. Hots, eta aipatu moduan, ikuslea ikuskizunean parte-hartzailea izateaz gain, protagonista ere bada. Edonor interes publikoaren erdigunean koka daiteke. Baina bizitza arrunta publikoa bihurtzen den bitartean, pribatizatutako negozioaren parte ere bada. Ikusle protagonistak epai eta iritzi publikoaren menpe izango ditu bere bizitzaren nondik norakoak. Telebista saioetan parte hartu duen edonor negozio bihurtzen da. Etorkizuneko telebistan, aspaldian herri edo auzunetako zurrumurruak *herrixka globalera* zabaltzen dira. Baina bizitzaren penak, alde ilun eta eskatologikoak dira interesgune, publikoaren jakin-mina gizartearen arazo nagusietatik desbideratzen da. Zabor telebistak errealtate desitxuratuaren zipristinak igortzen ditu; ikuslearen heziketa, informazioa eta ahalmen kritikoa erabat murrizak dira egungo ikuspegi honetan.

Ikusle eta igorleen arteko parte-hartzea da etorkizuneko telebistaren ezaugarri nagusia. Zabor telebistak bultzatzen duen harreman hau gai zalapartatsuen ingurukoa da.

Modu honetan, SMS edota telefono deien bidez, edonor ikuskizunaren protagonistaren harreman sexual, droga zale-letasu, edota izaerari buruzko iritzia eman dezake. Ikusle aktiboa SMSen bidez diru sarrera handiak ematen dituen da. Baina protagonista arruntak garrantzitsuak badira, are garrantzitsuagoak bilakatu dira aurkezleak. Etorkizuneko telebistak komunikatzaile nagusien sakralizazioa dakar. Hauek audientziaren erakarleak dira, eta futboleko jokalaria bezala, komunikatzaileen inguruko fitxaje politika abian jarri da telebista kate nagusien zuzendaritza bulegoetan. Orotariko telebistak gizartearen ardura nagusiak estali eta errealitate desitxuratuaren entretenimendua eskaintzen du. Ikusleak, orotariko programazio anitzen artean, gogokoena aukeratzeko askatasun mugatua dauka.

Dinamika honek, aipatu moduan, programazioen estandarizazioa ekarri du. Kate guztietan indarrean dauden formatu eta generoak etengabe errepikatzen dira. Ekoizpen etxe handiek, eredu nagusi eta globalen formatuak egokitzearen bidez, arrakasta lortu dute. Hauen ondoan, txikiagoak diren enpresek espezializazioaren bidea hartu dute. Hots, produktu bakarra sortu eta igorri, inork asetzen ez duen nitxoaren aditu bihurtu dira. Merkatuak egokitzapenaren eta aditasunaren arteko erabateko polarizazioa bizi du. Honen ondorioz, banaketa sistema hierarkiko eta piramidala abian jarri da, zeinak boteretsu eta indartsu diren enpresa handiak nabarmenki laguntzen dituen. Azkenik, eta profesionalei dagokienez, sormen eta ekarpen pertsonalerako tarterik ez dagoela ere azpimarratu behar da. Orotariko telebistaren eduki kanonikoen mekanismoak errepikatu besterik ez dira egin behar.

Ildo honetan, orotariko telebistan, kate publiko eta pribatuek zabor telebistarekiko duten harrera ezberdina dela goraiatu nahi dugu. Kate batzuk gertuago daude eredu horretatik besteak baino. Hala eta guztiz ere, balio sistema honetatik aldentzen den alternatiba aipatu nahi dugu, kataluniar telebistaren paradigmatikoa alegia. TV3ek kataluniar komunitatearen nortasun eta hizkuntza beharren arabera telebista eraikitzen du. Edukiek gizartearen kezka eta gai nagusien inguruan dihardute. Auzien informa-

zioa eta ikuspegi ezberdinak plazaratzen dira etengabe. Iritzi publikoak bere epaia emateko aukera dauka, baina ez xebebrekerien gainean, baizik eta eguneroko kezka nagusien inguruan. Kataluniako teleikusleek, informazio landua jasotzen badute, iritzi kritikoa izateko aukera ere dutela nabaria da. Baina baita ere ondo pasatzeko aukera. Izan ere, telebistak *reality*ak eskaintzen ditu, baina kasu honetan arreta publikoa pizten duten auzi ezberdinetara gerturatzaren diren *docu*showak dira. Baina fikzioak ere garrantzi handia du, batez ere telebista formatu berriei dagokienez. Ezin dugu ahantzi telebista honen produktu guztiek kalitate label bat bete behar dutela. Bertako industriaren banaketak, hierarkia ezagutzen badu, beraz Estatuan indarrean jarritzen den hierarkia zurruna baino malguagoa da. Honekin batera, kateak abian jarri duen koprodukzio sistema ere oso kontuan hartzekoa da. Honen bidez, partaidetza berrietarako aukerak zabaltzen dira. Kataluniar ekoizpen enpresen etorkizuna sormen ahalmenean eta lan egiteko sistemaren balioan datza, eta ez estereotipoen egokitzapean. Baina eredu honek badu bere itzala, galera ekonomikoak. Kataluniar telebistaren sistema ez da errentagarria; hala eta guztiz ere, erkidegoko instituzioek beregain hartzen duten gastua dela azpimarratu nahi da. Azken batean, eta euren filosofiaren arabera, nortasun, kalitate eta kriteriodun audientziak merezi du.

Baina, TV3en alternatiba alde batera utzita, ordainpeko telebistaren edukiak, gaika, aditasun eta eksklusibitatearen ardatzetan antolatzen dira. Gaikako telebistaren programazioan ez dago publizitaterik, edo ez behintzat ezagutu ohi dugun publizitate sistema. Iragarleek elkarkidetzarekin lotutako pertsuasiorako formatu berriak landu dituzte. Eta *feed back*-erako aukera anitz eta berriak dira telebista digitalak eskaintzen dituenak. Orotariko sistemen ondoan, ordainpeko plataformak komunikabide ezberdinen biltoki dira. Telebista gailu multimediatikoa dugu, eta, beraz, Internet, elkarreragiketako mezuak, musika edota hainbat ibilbideren topagunea da. Azkenengo hau da etorkizuneko telebistaren ezaugarriarik nabarmenena: telebista kontsumo produktu moduan saltzen da. Hots,

etorkizuneko ikusleak eredu honek eskaintzen dizkien abantailak onartu eta masiboki ordaintzeko prest egongo dira. Ezin dugu ahaztu plataforma digitalek orotariko kate zalapartatsuak ikusteko aukera ematen dutela.

Dena den, ikusleak ordainduko duen kuota ez da soilik kuantitatiboa izango. Azken batean, bere eskubideak nolabait pribatizatuta baitaude. Ikusleak, beraz, korporazio erraldoi batek alde aurretik aukeratutako edukien artean hautatzeko askatasuna dauka. Eta soilik hauen artean. Azken batean, komeni zaizkionak dira. Edukien hautaketa eta kanalen edizioa, inoiz baino argiago, munduan nagusi diren enpresa erraldoiek onartutakoak izango dira. Honekin guztiarekin, badirudi ordainpeko eskaintza iraganeko despotismo ilustratuak burutu nahi zuen iraultzaren oihartzuna dela. Eliteek aukeratzeko dute herriak, ikuslegoak, berratu behar duena. Azken batean, eurak dira herriari, ikuslegoari, komeni zaiona zer den ondo dakitenak.

Gauzak honela, eta bi eredu global eta nagusiek eskaintzen duten bidearen ondoan, agertzen ari den kataluniar alternatibaren balioa handitu egiten dela dirudi. Batez ere, *he mixka globalaren* barmuan nahasten diren komunitate gutxituei begira. Nahiz eta artikuluak zuzenki joratu ez duen gaia izan, lerro artean irakur daitekeen galdera, eta zergatik ez, eztabaida batekin amaitu nahi genuke: zein ote da, telebistaren mundializazio prozesuaren aurrean, euskal komunitateak hartu beharko lukeen bidea?[¶]

-
1. Urriaren 9ko 2169/1998 Errege Dekretuan, Plan Técnico Nacional de Televisión Digital Terrenal delakoa indarrean jarri eta, plangintzaren 7. artikuluan, 2012. urtea muturreko data izanda, telebista seinalearen igorpen teknologia digitalaren arabera emateko garapen egutegia finkatzen da. Plan teknikoak aurreikusita baino abiadura handiagoan eman da teknologia digitalaren benetako egokitzapena.
 2. Tokikotasunaren definizioak esparru geografiko mugatu batean bizi den komunitatearen ezaugarri soziokulturalei, edota egote-

kotan, jatorrizko hizkuntza eta kulturaren ezaugarri bereizgarriei so egiten die. Telebista ereduaren arabera, eta tokiko edukiak jorrazteko orduan, irakurketa ezberdinak izango dituen ezaugarria da; zenbait kasutan kultur eta hizkuntza gutxituen nortasunarekin, nazionalitatearekin lotzen den bitartean, bestetan lekuko gizartearen izaera topikoetara mugatzen da.

3. GECA 2003.
4. Kateen izaera publiko edota pribatuak zabor telebistaren eduki bildumarekiko konpromiso edo joera nabarmenagoa edo urriagoa baldintzatu arren, egun orotariko telebistaren erakusle den telebista eredu a zabor telebistarena da. Kate publikoek, mementuz, zabor telebistaren zenbait eduki bereganatu arren, aspaldiko konpromisoari eusten diete, eta badira eredu honetatik aldentzen diren tartekak. Hau ez da kate pribatuaren ematen; azken hauean, zabor telebistarekiko gertutasuna erabatekoa da.
5. Sinpletasunak edukiak jorrazteko orduan nahitaezkoak diren bitartekoak erabiltzea suposatzen du, beste inolako hausnarketa edota bide aberatsagoi so egin gabe. Bitartekoen irizpide minimalista izanda, ikuslengoiaren baliabideak estuki murrizten dira.
6. Tokikotasuna, kasu honetan, estereotipo soilen edota lekuko bereizgarritasunen artean mugituko da, baina ez du inoiz ondorioztatuko kataluniar ereduak egiten duen moduko apustu sendoa.
7. Telebista kateek, programa berriak frogatzeko orduan, sei saiotako kontratuak sinatzen dituzte. Lehen hamahiru saio zirela kontuan hartuta, argi ikusten da ikusle goak produktua onartzeko duen denbora eta aukerak murriztu direla, eta honekin batera eduki beraren arrakastarako baldintzak.
8. Telecinco, Antena 3 eta Sogecable biltzen dituen Unión de Televisión Comerciales Asociadas (UTECA) erakundeak telebista publiko eta pribatuaren arteko norgehiagoka garbia emateko beharrezkoa den liberalizazioa eskatzen du. Telebista publikoen pribatizazioa bermatzen zuten neurriak aurreko gobernuak aurkeztutako Telebista eta Irratirako Ikus-entzunezko Lege Orokorren Aurreproiektuan islatzen ziren, baina dagoeneko aurreproiektuaren onespena atzeratu egin da. Hortaz, erakundeak 2003ko ekainaren 6an prentsaratutako komunikatuan, ondokoa eskatzen dio gobernuari: «a través de otros procedimientos a su alcance, pueda paliar en esta Legislatura los problemas más acuciantes, hasta tanto se apruebe la Ley General que necesita urgentemente un sector incardinado en la sociedad digital y básico para que ésta se desarrolle dentro de una economía de mercado sana y en armonía con la televisión pública».
9. Ley 24/2001 de Acompañamiento de los Presupuestos Generales del Estado para 2002 (BOE 10/11/2001).
10. www.tvcatalunya.com.
11. www.tvcatalunya.com.

12. Honakoa, hizkuntza, kultura eta nazionalitate printzipioak errotzen dituen tokikotasun maila da.
13. www.eltorrenti.com.
14. Erakundeak edukiak zeharka arautzen ditu eta, finkatzen dituen irizpideen arabera, Kataluniako telebistak garatzen dituen formatuek, berriztatzaileak izateaz gain, katearen kalitate labela eta printzipio filosofikoak errespetatu behar dituzte.
15. 2003ko hasieran 138 ekoizpen etxe bazeuden, amaieran 151 etxek osatzen zuten ikus-entzunezko alorra. Kopuru honek sektorearen hazkundea %9,4an finkatu dela erakusten du (GECA 2003).
16. www.endemol.com.
17. www.globomedia.es.
18. *Share*-ak programa ikusten duen ikusleko kopuruaren batez bestekoa adierazten du. Urte osoko batez besteko *share*-ari so egiten diogunean, saioak urtean zehar lortutako ikusleko osoaren batez bestekoa adierazten digu.
19. Philip Kottlerrek, *Dirección del marketing. Edición del milenio* liburuan, pertsonaia publikoak produktu moduan sailkatzen ditu eta hauen inguruan jorratzen diren marketin estrategiak zehazten ditu.
20. Taldekatzea egun globalki ematen den marketin tendentzia nagusia da, zeinaren arabera kontsumitzaileak produktu baten inguruan taldekatzen baitira, produktuaren parte sentitzeko, eta honen ondorioz lehiakortasuna eskuratu daiteke: hots, kontsumitzaileak produktuari lotutako bestelako produktuak kontsumitzeko grina.
21. Espainiarra kasu honetan.
22. Aipatzekoa da hirugarren katearen hutsunea betetzeko beharrak merkatuaren aldaketa nabaria ondorioztatu duela 2003-2004 denboraldian. Egun, Globomediak Antena 3entzako *telereality*-a garatzen duen bitartean, Endemolek TVE1 eta Telecincorako *reality*-ak burutzen ditu; banaketa honek garatutako formatuaren eta katearen irudiaren arteko lotura ezberdintzailearen ezinbestekotasuna plazaratzen du. Testuinguru berrian, maila globalean indarrean dauden eduki izartsuek, katearen nortasunaren arabera egokitzapenei esker, ikuslekoa bereganatzen dute. Azkenik, eta *telereality*-aren formatuari atxikita, bi ekoizle nagusiak berri-tasun bera lotu diote bi saioei, hots, bigarren mailako pertsonaia ospetsuak lehiakide bihurtzea hain zuzen ere. Modu honetan, Endemolek *Hotel Glamour* plazaratu du eta Globomediak *La isla de los famosos*.
23. *Target*-a marketinetik eratorritako merkatu segmentaziorako tresna dugu, eta telebistaren arloan, ezaugarri demografiko zein soziokultural komunak partekatzen dituzten ikusle potentzialen taldea izendatzen du.

24. Aurkezleek gaur egun ondorioztatzen duten marka irudiarekin lotuta, María Teresa Camposek 2004-2005 denboraldian Telecinco *Día a día* saioa utzi eta Antena 3en tarte berean antzeko saioa aurkeztuko du, Terelú Campos alabarekin batera. Kateen fitxaje politika, eta aldaketa honek ekarriko dituen ikuslego *share*-aren mugimenduak, aurkezle izartsuen garrantzia norainokoa den erakutsiko dute.
25. Carmen Peñafiel, Nereida Lopez, Ainhoa Fernandez de Arroyabe eta Teresa Agirreazaldegik: *La televisión digital en España: implantación y tendencias de un nuevo modelo*. Ikerketa Proiektua (1/UPV 00015.323-H-13963/2001).
26. 2004ko udan, Continental Produccionesez, audientzia tasa arrakastatsuak eskuratuz, *Veterinarisen* formatua duen *Pelopicopata* saioa Antena 3en txertatu du.
27. Nahiz eta *tv movie*-aren ezaugarriak izan, produktua serie laburraren formatuarekin tartekatu zen Antena 3eko parrillan.
28. Satellite bidezko ordainpeko telebistaren esparruan duen monopolioaz gain, Cable Antena delako negozio unitate berriaren bitartez, edukiak kable banatzaile honetatik ere barreiatuko ditu. Gauzak honela, etorkizun hurbilean, Sogecableren Digital+ eskaintza tematikoak, egun ezagutzen ditugun kable banatzaileen bidez hedatzeaz gain, banaketa sare propioa errotuta izango du.
29. www.mediapark.com.
30. www.multipark.es.
31. Planetak, 2003ko uztailaren 22an, eta Digital+eko eskaintzatik at geratu ondoren, Antena 3 Temática ixtera derrigortuta ikusi zuen bere burua.
32. Planeta 2010ek, bere edukiak Digital+en onartuak ez izateagatik, ekoizpen etxea 2003ko abuztuan itxi behar izan zuen.
33. www.cisnerostv.com.
34. Vocentok komunikabide ugari biltzen ditu eta dagoeneko eduki ekoizle erraldoi moduan aurreikusten da. Europroducciones, Grupo Boca, Grupo Arbol, Telecinco eta COPE Vocentoren partaide dira (www.vocento.com).
35. www.grupoterras.com.
36. www.telefonica.es/tsa.
37. www.multithematiques.com.
38. Zinema aretoen eta oro har ikuskizunen esparruan Warner Sogefilms eta Warner Lusomundoren garrantzia aipatzekoa da, hala nola abian jarri berri duen Cable Antena, kable bidezko telebista banatzaile berria, edota zinemaren babesgoa bermatzen duen Komunikazio saila, besteak beste.
39. Sogecablek Europako Batasunak suspertzen dituen jatorrizko zinema ekoizpenerako programak betetzen dituzenez, elkartearen diru laguntzak hartzen ditu. Diru sarrerek, ekoizpenaren ingu-

ruan burututako ahalegina laguntzeaz gain, korporazioaren irudi

bereizgarria indartzen dute.

40. Berriak idatzi eta igortzeko moduak teknologia berriarekin bate-

ra eraldatu egin direnez, egungo kazetariak, erredakzioan trebeak


izateaz gain, multimedia bitarteko berri ezberdinen ezaugarrien

arabera egokitu behar dute euren lana.

Bibliografia

- Alvarez Monzoncillo, J. M. (1997): *Imágenes de pago*. Fragua, Madril.
Anuario GECA 2003. GECA, Madril.
- Ambrosio, S. eta Hooper, K. (1998): *Interactive Multimedia*. Microsoft, Washington.
- Benoit, H. (1998): *Televisión digital*. Paraninfo, Madril.
- Bettetini, G. eta Colombo, F. (1995): *Las nuevas tecnologías de la comunicación*. Paidós, Bartzelona.
- Bueno, Gustavo (2002): *Telebasura y democracia*. Ediciones B, Bartzelona.
- Bustamante, E. (2003): «Televisión: globalización de procesos muy nacionales», in E. Bustamante (koord.): *Hacia un nuevo sistema mundial de comunicación. Las industrias culturales en la era digital*. Gedisa, Bartzelona.
- Bustamante, E. eta Alvarez Monzoncillo, J. M. (1999): *Presente y futuro de la televisión digital*. Universidad Complutense de Madrid, Madril.
- Cubells, M. (2003): *Mírame tonto. Las mentiras impunes de la tele*. Robinbook, Bartzelona.
- Garitaonandia, C. (1997): «El mundo de la televisión digital: un cambio del mundo», in Askoren artean: *Retos de la sociedad de la información*. Universidad Pontificia de Salamanca, Salamanca.
- Garitaonandia, C., Fernández, E., Oleaga, J. A. eta Ramajo, N. (2003): *Del espectador pasivo al interactivo. La televisión digital interactiva en Estados Unidos, Europa y España*. Universidad de Salamanca, Salamanca.
- Haro Mata, I. (2000): «Hacia un sistema de interacción televisiva», in Askoren artean: *Comunicación audiovisual y desarrollo de las regiones*. Universidad Pontificia de Salamanca, Salamanca.
- Kottler, P. (2001): *Dirección del marketing. Edición del milenio*. Prentice Hall, Madril.
- La Sociedad de la Información en España (2003): *Anuario 2002. Presente y perspectivas*. Telefónica, Madril.
- Lopez, N. eta Peñafiel, C. (koord.) (2003): *Odisea 21. La evolución del sector audiovisual*. Fragua, Madril.
- Lopez, N., Peñafiel, C., Fernandez de Arroyabe, A. eta Agirreazaldegui, T. (2003): *La televisión digital en España: implantación y tendencias de un nuevo modelo*. Ikerketa Proiektua (1/UPV 00015.323-H-13963/2001).
- Maya Retamar, R. de la, eta Jorge Alonso, A. (1999): *Producción audiovisual y nuevas tecnologías*. Universidad de Málaga, Málaga.
- Moreno, I. (1999): *El relato hipermedia. Una perspectiva auditorial de las nuevas tecnologías*. Universidad de Málaga, Málaga.
- Otte, P. (1996): *La superautopista de la información*. Prentice Hall, Madril.

- Peñafiel, C. eta Lopez, N. (2000): *Tecnología de la televisión. Del disco de Nipkow a la revolución numérica*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Peñafiel, C. eta Lopez, N. (2002): *Claves para la era digital. Evolución hacia nuevos medios, nuevos lenguajes y nuevos servicios*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Pérez de Silva, J. (2000): *La televisión ha muerto*. Gedisa, Colección estudios de televisión, Bartzelona.
- Prado, E. (1999): «Estudio del consumo televisivo en el contexto multicanal: metodología de los tres escalones», in M. Ledo eta M. Krohling (argk.): *Comunicación audiovisual: investigación e in - formación universitarias*. Universidad de Santiago de Compostela, Santiago.
- Vals, J. M. (1997): *Mercado de televisión por cable y por satélite*. Newsletters/Informes Telecomunicaciones, Recoletos, Madril.
- Zabaleta, I. (2003): *Tecnología de la información audiovisual*. Editorial Bosch, Bartzelona.
- Zabaleta, I. (arg.) (1993): *Innovaciones tecnológicas en radio y televi - sión*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jakingunea.com